


Enseiukarrean

Juan Manuel Etxebarria
Oihane Etxebarria

Sonia González
Itziar Túrrez

15. zenbakia



Deustuko
Unibertsitatea

Euskal Ikaskuntzen
Institutua

enfeiuCarrean

Enseiukarrean

Enseiukarrean

Deustuko Unibertsitateko Aldizkaria

15. zenbakia

Bilbo
Deustuko Unibertsitatea
2001



Bizkaiko Foru
Aldundia
Kultura Saila

Diputación Foral
de Bizkaia
Departamento de Cultura

Ekintza honek Bizkaiko Foru Aldundiaren
Kultura Sailaren laguntza jaso du.

Zuzendaritza:

Joan Otaegi

Edizioa:

K. Josu Bijuesca

Kolaboratzaileak:

Juan Manuel Etxebarria

Ohiane Etxebarria

Sonia González

Itziar Turrez

Batzorde Kontseilaria:

Euskal Ikaskuntzen Institutuko Zuzendaria

Joseba Abaitua

Juan Manuel Etxebarria

Joan Otaegi

Jesus Uranga

Argitalpena:

Deustuko Unibertsitateko Argitalpen Saila

1 Posta Kutxa - 48080 Bilbo

Tfnoa.: 944 47 03 58 Fax: 944 47 26 30

Zabalkundea:

Ediciones Mensajero

Sancho Azpeitia 2, 48014 Bilbo

Tfnoa.: 944 47 03 58 Fax: 944 47 26 30

Paper ekologiazkoan irarri argitalpena

ISSN: 1130 - 8192

Legezko gordailua: BI - 1.113-92

Fotokonposaketa: IPAR, S. Coop. - Bilbao

Inprimatzailea: Artes Gráficas Rontegui, S.A.L.

Aurkibidea

Editoriala	9
Juan Manuel ETXEBARRIA, <i>Azentuaren eragina kontsonanteen gortzean</i>	11
Oihane ETXEBARRIA, <i>Bizkaieraren lekua Bilboko Kirikiño Ikastolan</i>	31
Sonia GONZÁLEZ, <i>Barietatea eta estandarra: batuaren eragina ume bizkaitar biren hizkeran</i>	89
Itziar TÚRREZ, <i>Euskal bokalismoaren inguruan</i>	145

15. zenbakia

Editoriala

Enseiukarrean aldizkariaren hamabostgarren ale honek hizkuntzalari buruzko lau ikerkuntza lan bildu ditu. Hauetariko bi soziolinguistikaren alorrean sartzen dira, eta beste biak euskararen bokalismo eta azentuaren esparruan. Oraingoan, lanon idazle guztiak Deustuko Unibertsitatearen giro akademikoan murgiltzen dira. Itziar Túrrez eta Juan Manuel Etxebarria aspaldi dabiltza hemen irakasle lanetan. Ohiane Etxebarria eta Sonia González azken belaunaldietako Euskal Filologiako ikasle izan ditugu eta hona ekarri digutena euren tesinen mamia da.

Juan Manuel Etxebarriaren artikuloak euskal azentuaren eragina kontsonanteen ahoskabetzean sistematikoki aztertzen du, Bizkaiko Zerberio herrian egiten den euskeran oinarrituz.

Ohiane Etxebarriak Bilboko Kirikiño Ikastolan euskeraren zenbait erregistrok betetzen duen tokia aztertzen du, batez ere bizkaierarena eta batuarena. Hauen arteko interferentziak eta gaztelaniaren erabilera ikasleen artean ere aztertu ditu.

Aurrekoaren osagarri bailitz, Sonia Gonzalezen lanak ere bizkaieraren eta batuaren arteko harremanak ikertu ditu, baina oraingoan Bizkaiko Busturian bizi diren haur biren hizkeran. Horretarako bizkaiera eta batua noiz eta nola erabiltzen duten azaltzen du, eta bakoitzaren erabilerarako arrazoiak eman ere.

Azkenik eta ikerkuntza eremua Euskal Herri osora hedaturik, Itziar Túrrezek euskararen bokalak deskribaten ditu euskalkiz euskalki, leku-koei grabaketak egin eta hauen ezaugarriak aztertu ondoren.

Esandakoarekin ale berri bat bete dugu, ondo ere ondo. Ale hau erabat hizkuntzalari atera bazaigu ere, hurrengoetan linguistika eta literaturen arteko ohizko oreka zaintzen ahalengiduko gara.

Amaitzeko, eskerrik asko Bizkaiko Diputazioari argitalpenerako eman duen diru laguntzagaratik eta Deusko Unibertsitateko Idazkaritza Teknikoari argitalpenean egindako lanagatik.

AZENTUAREN ERAGINA KONTSONANTEEN GORTZEAN

Juan Manuel Etxebarria Ayesta

Hipotesi-planteamendua

Zeberiko euskararen Doktorego tesia egin nuenean¹, kontsonante multzoetako ahozkeraren ondorio batzuk argitu nituen eta beste batzuk planteiatuta bakarrik utzi². Ondorioen artean, kontsonante ozen batzuen gorketa baieztatzen da aldameneko beste kontsonante gor batek eraginda. Baina, beste hainbat kasutan, bokal artean zein bokal eta kontsonante ozen artean edo eta kontsonante ozenen artean ere, kontsonante ozen batzuren gorketa dago.

Zeberiko euskararen ahozkerako errealitate zabaldu honen zergati-hipotesia, AZENTU TONIKO eta INTENSITATEAn dagoela esango nuke, le-xematik hasi eta goragoko multzo fonikoetara bitartean.

Kontsonante multzoak eta gorketa

Nire doktorego tesiko ondorioen laburpena eskeini baino lehen, K. Mitxelenak bere *Fonética Histórica Vasca*-n, «Grupos de Consonantes» izenburuko 18. kapituluaren dioena gogoratu nahi nuke.

K. Mitxelenak, kapitulu horretan, kontsonante multzoen arteko ka-suistika luzea eskeintzen digu, tokian tokiko adibideak lagun.

Kontsonante ozenen gorketari dagokionez, K. Mitxelenak, 18.2.an, Leherkari + Leherkari multzoan «-t eta -k» + kontsonante ozena > gorketa baieztatzen digu adibideak eskeiniz: Esate baterako: «nitakit» < nik dakit (B) «onati(r)a» < onak dira (G) edo «oroipen» < *oroit + men (AN; G).

¹ ETXEBARRIA, J.M.: *Zeberio Haraneko Euskararen Azterketa Etno-Linguistikoa*, Ibaizabal, 1991.

² Ikus ETXEBARRIA, J.M.: 1991, 275-277 orr.

Bere hitz testualetan esanda: «El resultado es el enmudecimiento de la implosiva con ensordecimiento de la explosiva. Cuando ésta es sorda, se pierde simplemente la primera.»

Beste alde batetik, 18.6.an, Txistukari + Leherkari multzoan ere gorketa agertzen da. Hona hemen K. Mitxelenaren hitz testualak: «Sibilante + Oclusiva. El resultado uniforme, descontadas grafías etimológicas y pronunciaciones influidas por analogía, es Sibilante Fricativa + Oclusiva Sorda. (Ejemplos en 12.6 y 14.6 c)».

Lehen aipatu dudana bezala, nire Zeberioiko euskararen doktorego tesiko VIII. kapitulu³ sakonki aztertu nuen kontsonante multzoetako ahozkerak.

Nire azentu tonikoaren hipotesian zuzenean sartu aurretik, komenigarria litzateke kapitulu luze horretako planteamentu eta ondorengo gorketa batzuk aipatzea adibide eta guzti.

Zeberioiko kontsonante multzoen ahozkerak

Sarrera

Hitz egiten dugunean, «Kanpo Sandhi» edo «Grupo Foniko»-en bidez egiten dugu eta era horretara kontsonanteen elkar-joteak sortzea guztiz bidezko da herri-hizkuntzaren eufonia, ekonomia eta artikulazio ohitura bitarteko direlarik.

Izan ere, ez da bat ere erraza «Grupo Foniko» edo osterantzeko kontsonante elkarte batzuk ahozkatzea eta horregatik herriak, berezko fonetika legeak jarraituz, erraztu egin du kontsonanteon ahozkerak⁴.

Hiztun bakoitza aparteko mundu bat da bakarrean zein gizartean eta beste hitzunekin bateratsu hitz egin arren, beti dira bata bestearen-gandiko aldakuntzak.

Gainera, hiztun bakoitzarengan ere, bizitzako egoera guztiak ez dira berdinak, eta egoera batean egon edo beste batean egon «Grupo Foniko» berbera ez da berdin-berdin ahozkatzen⁵.

Nire aldetik, Zeberioiko euskeran aurkitu ditudan «Kontsonante Multzo»-en ahozkerak jasoten saiatu naiz, euretariko batzuk, aurrerago aipatu ditudan faktoreen arabera, beti berdin ahozkatzen ez direlarik.

³ Ikus ETXEBARRIA, J.M.: 1991, 261-282 orr.

⁴ Ikus ETXEBARRIA, J.M.: 1991eko korpusean datozen euskara biziaren transkripzioak.

⁵ Adibideak ugariak dira baina hona hemen bat edo beste: «EGON» hiru eratara entzun daiteke: «egon», «eon» edo «on». «EGIN» berdin: «egin», «ein» edo «in». Laburketok multzo fonikoaren arabera egiten dira hiztunaren barbaroaren abiada bitarteko.

Hemen ez dut doktorego tesiko adibidetegi guztia aipatuko, kontsonante gorketari dakokiona baizik.

Metodologiari dagokionez, era askotara azter daiteke «Kontsonante Multzo»-en ahozkerak. Nik jarraitu dudak bidea hau da: Ahots-Moldeari dagokion sailkapena hartu eta eurentariko kontsonante bakoitza herrian erabilten diren beste kontsonante posible guztiekin elkar-jo erazi banan-banan eta alfabetikoki herriko hiztunengandik jasotako adibideak bitarteko direla⁶.

Argibide bezala, komilla artean doan fonologia mailako herri-adibide bakoitzak, literatura mailako bere pareak darama gainean, «Kontsonante Multzo»-en jatorria ikusi eta ondorioak aterateko.

Jarraian, *Zeberio Haraneko Euskararen Azterketa Etno-Linguistikotik* azterketa gai honi dagozkion kasuen hustuketari ekingo diot⁷.

1. Leherkari gorrak

1.1. «-p» bukaeradunak + gainetikoak

Ez da erraza azken posizioan «p» bat aurkitzea «eup!» edo ez bada. Beraz, bertanbehera utziko dugu.

1.2. «-t» bukaeradunak + gainetikoak

1.2.1. «-t + b-» > «-p-»

- 1) bat bai > «bapai»
- 2) bat bakarrik > «bapakarrik»
- 3) ez dakit buruz > «estakipuruz»

1.2.2. «-t + d-» > «-t-»

- 1) bat dator > «batator»
- 2) ontzat dauka > «ontzatauko»
- 3) ez dakit dana > «estakitan»

1.2.3. «-t + g-» > «-k-»

- 1) bat gara > «bakara»
- 2) zeuretzat gorde > «sautzakorde»
- 3) ez jat gustatu > «etxakustau»

⁶ Ikus ETXEBARRIA, J.M.: 1991eko kontsonantismoaren taula, 113 orr.

⁷ Ikus ETXEBARRIA, J.M.: 1991, 261-282 orr.

1.2.4. «-t + j-» > «-j-»⁸, «-t + y-» > «tx-»

- 1) bat jan dau > «batxandau»
- 2) esantzat joan da > «esantzatxoan da»
- 3) ez dakit jaten > «estakitxaten»

1.3. Ondorioak

a) «-t» fonemak «b-; g-; y-» jotean, fonema berri bat sortzen da bakoitzarekin: «-p-; -k-; -tx-» hain zuzen.

Fonema berrion izateari buruz, Ahoskunea bigarren fonemarena da baina Ahots-Moldekoaren eraginez gorturik.

b) «-t + d-» kasuan, biak ditugu Ahoskune berekoak eta elkar-jotean gorra nagusitzen da.

d) «-t + y-» kasuan, gortzetik aparte, Ahoskunea ere zertxobait aldatzen da sabai-aurrerantz.

e) Beste kasu guztietan, «-t» galdu egiten da jarraian datorren fonema nagusituz.

Baliteke «-t» hori galdu ez egitea intensitatearen arabera, baina orduan leherkari gorraren eraginezko eten bat sortuko litzateke eta datorren fonema⁹ hitz hasieran balego bezala hartu behar da. Dena den, herria beti doa errazera eta galtzea da errazena.

Intensitate gutxiko ahozkeran «-t + b.d.g-» ozenduta ere entzun daitezke, multzo fonikoko kontsonante biak frikari suertatuz: Adibidez: Bat bai > «badbai». Beste testuinguru batzuetan ere frikaritzen da azken posizioako leherkaria. Adibidez: bat zan > «badsan».

1.4. «-k» bukaeradunak + gainetikoak

1.4.1. «-k + b-» > «-p-»

- 1) nik badakit > «nipakit»
- 2) biderik bide > «bideripide»
- 3) etorri dok ba! > «etorriopa!»

⁸ Kasu hau abadeari eta, egindako erantzuna da. Berorikako tratamentuan normala zen «bai jauna, ez jauna». Kasu honetan, erantzunean, ergatiboa galdu da baina galderakoarena da nahiko ulertzeko.

⁹ Herri berbaikune bizian ez da erraza eten hori aurkitzea, gehienetan leherkari bata «jan» egiten delako.

1.4.2. «k + d-» > «-t-»

- 1) geuk dakigu > «gautakiu»
- 2) eurak dabilz > «auretabis»
- 3) gastatu jok dirua > «gastauyotiriue»

1.4.3. «-k + g-» > «-k-»

- 1) hark garoaz > «akaroas»
- 2) gazterik gangartu > «gasterikangartu»
- 3) hortik goaz > «ortikoas»

1.4.4. «-k + y-» > «-tx-»

- 1) berak jan dau > «beratxandau»
- 2) ez dok jan > «estatxan»
- 3) pozik joan da > «positxoan da»

1.5. Ondorioak

a) «-k» fonemak «b-; d-; y-» jotean, fonema berri bat sortzen da bakoitzarekin: «-p-; -t-; -tx-» hain zuzen.

Fonema berrion izatea dela eta, Ahoskunea bigarren fonemarena da baina Ahots-Moldekoaren eraginez gortutakoa.

b) «-k + g-» kasuan, biak dira Ahoskune berekoak eta elkarjotean gorra nagusitzen da.

d) «-k + y-» kasuan gortzetik aparte, Ahoskunea ere zertxobait aldatzen da sabai-aurrerantz.

e) Beste kasu guztietan, «-t»rekin gertatu den bezalaxe, «-k» galdu egiten da jarraian datorren fonema nagusituz. Eta ahozkeraren errelajatu batean elkarteko leherkari biak frikari ozen bezala ere entzun daitezke. Adibidez: nik bai > «nigbai». Beste kontsonante batzuekin ere bai, adibidez: nik neuk > «nignauk».

1.6. Frikari-xistukariak

1.6.1. «-s» fonema ez da oso ugaria azken posizioetan eta gainera ez du ahozkatze arazorik beste kontsonanteekin elkar-jotzean.

1.6.2. «-z» («S» bezala ahozkatzen da): (EZ «-z + b-» > «-zp-»

- 1) ez badator > «espadator»
- 2) ez bedi esan > «espei esan»
- 3) ez baletor > «espaletor»

1.6.3. «-z + d-» > «-zt-»

- 1) ez dator > «eṣtator»
- 2) ez dakit > «eṣtakit»
- 3) ez deutsu egin > «eṣtotzu in»

1.6.4. «-z + g-» > «-zk-»

- 1) ez gara > «eṣkara»
- 2) ez gabilz > «eṣkabis»
- 3) ez gaitu > «eṣkatu»

1.6.5. «-z + y-» > «-tx-»

- 1) ez jatok > «eṣxtok
- 2) ez jakiat ba > «eṣxakiapa»
- 3) ez jautsat ezer egin > «eṣxtotzat eser in»

1.7. Ondorioak

Herriko adibideetan ikusi ahal izan dugunez, baditugu fenomeno aipagarri batzuk (e)z proklitikoaren «-z» dela eta.

a) Alde batetik goian aipatu dugun «-z» horrek gortu egin ditu hurrengo «b-; d-; g-; y-» fonemak «-p-; -t-; -k-; -tx-» bihurtuz.

b) «-z + z-» kasuan, gaur egun adinekoren bat ez bada Goi-Hobietakoa egiten dugu Bizkar-Hobietakoa egin beharrean.

d) Beste kasuetan leherkari gorra ez badira «-z» galdu egiten da hurrengo datorren fonema nagusituz.

e) Gorketa egin ez egitea ere posible da eta gazteengan entzun ere egiten da. Adib: «esgoas» < lit. ez goaz; etab.

1.8.

Orain arte esandakoa egia bada ere, badira gorketarik gertatzen ez diren «Grupo Fonikoak»:

- a) ez behar > «esbear»
- b) ez gauza > «esgausa»
- d) ez jakin > «esyakin»
- e) etab.

Gortu ez egitearen arrazoia zabala litzateke baina hipotesi gisa baino ez bada ere, gorketa gehientsuenak aditz jokatuan gertatu dira eta beste kasuok ez dira erabilera berdinekoak. Eta gainera nere ustez kronologiarekin loturik dago gortzea edo ez gortzea geroago ere ikusiko dugun bezala.

1.9.

-z instrumentala hartzen badugu ez dugu gorketarik aurkitzen normalean.

- a) berez badabil > «beresbadabil»
- b) berez dator > «beresdator»
- d) berez goaz > «beresgoas»
- e) oinez jatok > «oñesyatok»
- f) buruz dakit > «burusdakit»
- g) etab.

Dena dela eta kronologia kontutan harturik kasu batzuetan agertzen da gorketa, esate baterako -z gero kasuan: joanez gero > «yoa-neskero», etorritz gero > «etorri eskero», etab.

Kasu berean eta esakuna eginetan ere agertzen da gorketa hori: «arreskero», «oneskero», etab.

1.10. Afrikariak

1.10.1. «-tx + b-» > «-sb-»

- 1) apatx barrua > «apaşbarrue»
- 2) apatx burua > «apaşburue»
- 3) gatx barik > «gaşbarik»

1.10.2. «-tx + d-» > «-sd-»

- 1) apatx dandarras > «apaşdandarras»
- 2) gatx daukat > «gaşdaukat»
- 3) gatx dago > «gaşdao»

1.10.3. «-tx + g-» > «-sg-»

- 1) apatx ganea > «apaşganea»
- 2) apatx garbia > «apaşgarbie»
- 3) gatx gogorra > «gaşgogorra»

1.10.4. «-tx + y-» > «-sy-»

- 1) gatx jagok > «gasyaok»
- 2) gatx jaukak > «gasyaukok»
- 3) gatx joakok > «gasyoakok»

1.11. Ondorioak

- a) «-tx + etab.» > «-s + beste kontsonentea»

Ikusten denez, «-tx» afrikaria «-s» frikarira pasatzen da. Hurrengo kontsonantea ozena baldin bada ozendu egiten da, bestela gor jarraitzen du.

1.12. «-tz + etab.» > «-s + beste kontsonantea»

1.12.1. «-tz + b-» > «-sb-»

- 1) gatz bakoa > «gasbakoa»
- 2) hotz bakoa > «osbakoa»
- 3) berakatz burua > «berakasburue»

1.12.2. «-tz + d-» > «-sd-»

- 1) gatz dirua > «gasdirue»
- 2) hotz dabil > «osdabil»
- 3) berakatz dariola > «berakasdariola»

1.12.3. «-tz + g-» > «-sg-»

- 1) gatz garaua > «gasgaraue»
- 2) hotz gara > «osgara»
- 3) berakatz garaua > «berakasgaraue»

1.12.4. «-tz + y-» > «-sy-»

- 1) gatz jotea > «gasyotea»
- 2) hotz jatea > «osyatea»
- 3) latz jostea > «lasyostea»

1.13. Ondorioak

1.13.1. «-tz + etab.» > «-s + hurrengo kontsonantea»

Kasu honetan ere «-tz» afrikaria «-s» frikarira pasatzen da. Ozen edo gorra izatea jarraian doan kontsonanteak dakarkio.

1.14. Sudurkariak

1.14.1. «-nb-» elkartzean eta biak ozenak izan arren, esakuna zahar eginetan bigarrena gortu egiten da:

- zain bedar > «sanpedar»
 agindu/te bide > «aginpide»
 ezkondu/te barri > «eskonpárri»
 ezagun/te bide > «esaupíde»

1.14.2. «-n + m-» > «-m-» egitea bidezko da eta «-n + n-» asimilatzea ere bai. Adibidez: ahal dan moduan > «aldamoduen»

1.14.3. Kasu honetan be, «n»ri deutsala jarraian kontsonante gorbat badago, «n» hori galtzeko joera daukagu. Adibidez: egoten zan > «otesan»; monjea > «mojea»

1.15. Albokariak

1.15.1. «-l + b-» elkartean, biak ozen egitea bada ere normalena, kasuren baten bigarren elementua gorturik dago:

ibilbide > «ibilpíde»

1.15.2. Dena dela, kasu honetan be, «l» baten jarraian fonema gorbat datorrenean, «l» hori galtzeko joera dago. Adibidez: dabilz > «dabis»; darabilt > «da(r)abit».

1.16. Dardarkariak

1.16.1. «-r»ren jarraian kontsonante ozen bat baldin badago erraz galtzen da dardarkaria; eta gorra badatorkio errazago.

- 1) behar da > «beada»
- 2) ur bidea > «ubidea»
- 3) akersolo > «akesolo»
- 4) dakarzu > «dakasu»
- 5) dakargu > «dakagu»
- 6) daroardie > «darodie»
- 7) dakart > «dakat»
- 8) merzedez > «mesedes»

1.16.2. Esakuna eginetan gortzeraino ere heltzen da dardarkariaren hurrengo kontsonante ozena:

burdi bide > «burpíde»

arri bide > «arpíde»

1.17. Kontsonante bikoitzak

1.17.1. «-st» + beste kontsonanteak

1.17.2. «-st + b-» > «-sb-»

- 1) bost bider > «bos**u**bider»
- 2) bost baso > «bos**u**baso»
- 3) bost barku > «bos**u**barku»

1.17.3. «-st + d-» > «-sd-»

- 1) bost doaz > «bostsdoas»
- 2) bost datoz > «bostsdatos»
- 3) bost dozena > «bostsdosena»

1.17.4. «-st + g-» > «-sg-»

- 1) bost goas > «bostsgoas»
- 2) bost gara > «bostsgara»
- 3) bost ganadu > «bostsganadu»

1.17.5. «-st + y-» > «-sy-»

- 1) bost joan > «bostsy Joan»
- 2) bost jan > «bostsyan»
- 3) bost jorrai > «bostsyorrai»

1.18. Ondorioak

«-st + etab.» > «-s + beste kontsonantea».

Kasu honetan leherkari gorra galtzen da eta ozen-gor arazoa hurrengo fonemak eragiten du.

Bizkaieraz, ZER-NORI-NORK aditz-erroa *euts*itik hartzen da eta berez «-ts»z bukatu behar luke baina metatesi bidez «-st» egiten du.

Dena den, aditz horren lehen pertsonan «-st» azken posizioa bada, ahozkatu egiten da baina sarritan hobeto ahozkatzeko edo, bokale paragogiko bat agertzen da azken «-t» horri deusala:

ekarri deust > «ekarrioste»¹⁰

1.19. «-rt» + beste kontsonanteak

1.19.1. «-rt + b-» > «-rp-»

- 1) bart bai > «bartpai»
- 2) bart bakarrik > «bartpakarrik»
- 3) bart bakean egon gara > «bartpakean on gara»

1.19.2. «-rt + d-» > «-rd-»

- 1) bart danok > «bartdanok»
- 2) bart dirua galdu dot > «bartdirue galduot»
- 3) bart dana beharrean > «bartdanabearrean»

¹⁰ Bokale paragogikoak egiteko joera dago. Adibidez: «etzerantza», «jata», etab.

1.19.3. «-rt + g-» > «-rk-»

- 1) bart goizetik > «barkoxetik»
- 2) bart kantzatuta > barkantzaute»
- 3) bart kontuz > «barkontus»

1.19.4. «-rt + y-» > «-rtx-»

- 1) bart jan > «bartxan»
- 2) bart joan > «bartxoan»
- 3) bart jausi > «bartxausi»

1.20. Ondorioak

Kasu honetan, «-r-» gorde egiten da eta «-t-» fonemak beste kontsonante ezberdinekin jotean aurrean aipatu dudana 1.2. apartaduaren antzera jokatzeko du.

1.21. «-rk» + beste kontsonanteak

1.21.1. «-rk + b-» > «-p-»

- 1) inork badaki? > «iñopadaki»
- 2) nork batu dau? > «nopatu dau»
- 3) zerk bizi dau? > «sepisidau»

1.21.1. «-rk + d-» > «-t-»

- 1) nork dauka? > «notauko?»
- 2) nork daki? > «notaki»
- 3) zerk daragoio? > «setaragoyo»

1.21.2. «-rk + g-» > «-k-»

- 1) nork garoaz? > «nokaroas?»
- 2) nork galdu jok? > «nokalduyok»
- 3) zerk galdu jok? > sekalduyok»

1.21.3. «-rk + y-» > «-tx-»

- 1) nork jakin > «notxakin»
- 2) zerk jakak > «setxakak»
- 3) hark jan jok > «atxanyok»

1.22. Ondorioak

Bikote honetan «-r-» galtzen da eta «-k-» fonema beste fonema ezberdinekin elkar jotean aurrerago aipatu dugun 1.4. apartaduko antzera jokatzen du.

1.23. «-lz»

Kasu hau aditzean aurkitzen dugu eta Zeberioko euskeran «l» galtzen da eta «z» bakarrik ahozkatu Goi-Hobietakoa eginaz. Adibidez:

- «sabis» < lit. zr. zabilz, lit. zabiltz
- «gabis» < lit. zr. Gabilz, lit. gabiltz
- «dabis» < lit. zr. Dabilz, lit. dabiltz

1.24. «-lk-»

Kasu hau suertatzen denean ere, kontsonante ozena galdu egiten da. Adibidez:

- «ñabiko» < lit. niabilko
- «sabikos» < lit. zabilkoz

1.25. «-rs-», lit. -rz-; «-ns-», lit. -nz-

Kasu hauetan ere kontsonante ozenak galdurik aurkitzen ditugu lehen kasua bigarrena baino argiagoa delarik. Adibidez:

- «dakasu» < lit. dakarzu
- «ekasu» < lit. ekarri egizu
- «otesan» < lit. egoten zan
- «itesaindun» < lit. egiten zendun

1.26. Ondorioak

Jasoak jasota eta joera nagusi bezala harturik ondorio hau atera genezake azken adibideetatik: kontsonante elkarte hauetan bigarrena nagusitzen dela, alde batetik posizioaren arabera eta bestetik elkarteko ozena, hemen aurrekoa, errazago galtzen delako.

Orokorki aipatuz, beti goaz berdinerak; hiltunak badaki zer behar duen aurrekoak ulertzeko eta logika osoz gordetzen ditu behar dituen fonemak behar duena adierazteko.

Guzti honi deusala, hor dugu ume txikitxoekaz darabilgun hizkuntz-jokoa eta gainetiko mundu hipokoristikoa.

Kasu honetan, sistema edo eta normatik aldatzen gara, batzuetan geuk, nagusiok gura ta, eta sarritan umeek eurek hizketan ikasi ahala darabilten hizkuntza imitatu baino ez dugulako egiten.

2. Kontsonante ozenak gortzearen datu berriak

2.1. Azentuaren eraginkortasuna

Hasierako hipotesiaren planteamentuari eusteko, lehenago aipatutako 1.14.1 puntuan kontsonante ozenen arteko gorketa berezi bat aipatzen da.

Kontsonante multzoetan gertatzen den gorketa, bai K. Mitxelena-ren¹¹ sailkapenean bai nire Zeberikoarenean¹², badirudi kontsonante gor baten eraginezko gorketa dela.

Ni neu aurrerago joango nintzateke. Kontsonante gor baten eragiaz gain, AZENTUA ere erabakiorra dela esango nuke, 1.14.1. puntuan aipatutakoa kontutan hartzen badugu.

Nire ikerketa honetako aportazio gisa, eta hipotesi honen euskarri bezala, tesia egin ondorengo hainbat eta hainbat adibide gehiago aurkitu ditut Zeberiko euskera bizian eta etnotestoetan¹³. Badakit, jakin, Euskal Herri luze zabaleko beste lurralde batzuetan ere gertatuko dena fenomeno hau. Ni neu, oraingoz, Zeberiko testigantza ematera noatzue.

2.2. Gorketaren posizioa

Herriko adibideetan ikusiko dugun bezala, aipatutako kontsonante gorketa hiru kontestotan egiten dela ikusi dut. Hasteko, lexeman bertan; baita lexemari mugatzailea eransterakoan eta azkenik hortik goragorako multzo fonikoetan. Artikulua dela eta, argi dago gorketa, artikulua erabiltzen hasi baino lehenagokoa dena. Izan ere, artikulua eransterakoan, azentua sarritan silabaz aldatzen da baina lehenago bilakatutako gorketak berdin jarraitzen du.

Esandakoa horrela bada ere, ahozkeraren erelajatuan baliteke gortasunik agertu ez egitea ere, baina, jarraian datozen adibideak azentua edo eta intensitatearen eraginezko gortasunaren testigu ditugu.

¹¹ IKUS MITXELENA, K.: *Fonética Histórica Vasca*, 1977, 343-377 orr.

¹² IKUS ETXEBARRIA, J.M.: 1991, VIII. kapituloa.

¹³ IKUS ETXEBARRIA, J.M.: *Gorbeia inguruko Etno-ipuin eta Esaundak*, 1995.

Hiru kontestuotako adibideak aurkeztuko dira azentu edo eta intensitatea markatuz. Adibideetan herri-ahozkerako etno-testoaren ondoan Bizkaiera literarioa agertuko da.

2.3. Bokal arteko kontsonante gorketa

2.3.1. «epái» < ebagi¹⁴. Adibidez:

- 1) «epái ertza artes eroan galberdean». Lit. epai ertza artz eroan galberdean.
- 2) «epái ona daukotzu gastai onek». Lit. epai ona daukatsu gastai honek.
- 3) «epái sala yaukok urdai gardamutu onek». Lit. epai zaila jaukak urdai gardamutu honek.

2.3.2. «epáie» < ebagia. Adibidez:

- 1) «ganeko epáie daukotzun galberde onek». Lit. gaineke epaia daukatsun galberde honek.
- 2) «epáie urdindu yako gastaia». Lit. epaia urdindu jako gastaia.
- 3) «sasbako landeak epáie txarra». Lit. sats bako landeak epaia txarra.

2.3.3. «yayopárri» < jaiobarri¹⁵. Adibidez:

- 1) «yayopárri dao ondiño». Lit. jaiobarri dago oraindiño.
- 2) «yayopárri orpogorrie yatzu». Lit. jaiobarri orpogorria jatzu.
- 3) «yayopárriten arpegi urdine aukiten dotzue úmeak». Lit. jaiobarritan arpegi urdina eukiten deusue umeak.

2.3.4. «yayopárrie» < jaiobarria. Adibidez:

- 1) «yayopárriek asbegiek ondo ekarri daisela». Lit. jaio barriak hatz-begiak ondo ekarri dagizala.
- 2) «yayopárrieri naira asko in beayako». Lit. jaio barriari nahiera asko egin behar jako.
- 3) «yayopárrien amari ermakariak iten jakos». Lit. jaiobarria-ren amari ermakariak egiten jakoz.

¹⁴ K. Mitxelena, kasu honetarako haxe dakar bere *Fonética Histórica Vasca* -ko 12.7 artikuluan: «No obstante, también se observa una alternancia sonora/sorda en las formas nominales de algunos verbos antiguos.» Ez du azenturik aipatu ere egiten. Ikus Zeberio euskara biziaren sonograma eranskinean.

¹⁵ K. Mitxelena, *Fonética Histórica Vasca*-n, R.S. 486ko «jaypar(r)i» hitz konposaturako, «-te» sustantibo berbalak egiteko atzizkitik hasi behar dela dio. Beraz, jaiote barri > jaioparri > jaiparri. Baina ez du azenturik aipatzen.

2.3.5. «iripási» < irabazi¹⁶. Adibidez:

- 1) «iripási andiekas kontus». Lit. irabazi handiekaz kontuz.
- 2) «iripási in yostek». Lit. irabazi egin jaustak.
- 3) «iripási baño galdu geao». Lit. irabazi baino galdu gehiago.

2.3.6. «iripásie» < irabazia. Adibidez:

- 1) «iripásien yabik kartetan». Lit. irabazian diabilk kartetan.
- 2) «iripásiekustietxan yosak». Lit. irabaziak guztiak jan jozak.
- 3) «iripásieri eutzin in beayakiek». Lit. irabaziei eutsi egin behar jakiek.

2.4. Kontsonante ozen eta bokal arteko kontsonante gorketa

2.4.1. «sanpédar» < zain bedar¹⁷. Adibidez:

- 1) «sanpédar asko agiri de artotzan». Lit. zainbedar asko ageri da artotzan.
- 2) «sanpédar denodu onek onurea yaten yotzek artoari». Lit. zain bedar denodu honek onura jaten jautsak artoari.
- 3) «sanpédar au nok ebateko ba?» Lit. zain bedar hau nork ebagiteko ba?

2.4.2. «sanpedárra» < zain bedarra. Adibidez:

- 1) «sanpedárra ebaten daragoio». Lit. zain bedarra ebagiten daragoio.
- 2) «sanpedárra estaurie yaten ondo ganaduek». Lit. zain bedarra ez dabe jaten ondo ganaduek.
- 3) «sanpedárra igitiegas ebagi beada». Lit. zain bedarra igi-tiaiaz ebagi behar da.

2.4.3. «nosepéin» < noizean behin. Adibidez:

- 1) «nosepéin etorten yaku». Lit. noizean behin etorten jaku
- 2) «nosepeinéan ondo yatorkuk». Lit. noizean behinean ondo jatorkuk.
- 3) «nósepein egaberape ikusten yusek». Lit. noizean behin egaberak be ikusten joaguzak.

¹⁶ Aditz honen testigantzarako ikus adibidez: R.S. 155: «yrapazi», Onsa 170: «ira-paizteko, irapaizliak»; *Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa. Antologia*, 1999, Zeberioko infor-mantea Pantxike Ellakuria, 13 orr. Ikus, gainera, Zeberioko euskara biziaren sonograma eranskinean.

¹⁷ DRAEn «sapedar» dator.

2.4.4. «sapátu» < zapatu < *sabbatum*

K. Mitxelenak, *Fonética Histórica Vasca*-ko 12.5ean dio: «Hay ejempllos claros, aunque escasos, que prueban que oclusivas sonoras geminadas latinas o grupos de consonantes sonoras romances están representados por oclusivas sordas vascas».

Adibide hau eta gehiago jartzen ditu K. Mitxelenak, baina nik aurrerago joko nuke nire hipotesian. Gaztelerak azentua aurrean daroa eta hortik «sábado» baina Zeberion (zabalago ere bai) azentua bigarren silaban daroa eta beste kasuetan lez, bokale arteko kontsonante ozena gorturik agertzen da: «sapátu». Beraz, nire hipotesian, azentuak eragina dauka gortzean. Adibidez:

- 1) «sapátuetomekea yakak». Lit. zapatuak domekea jakak.
- 2) «sapatú-domekak onatosak». Lit. zapatu-domekak onak dozak.
- 3) «sapáturitxoak juergan». Lit. zaturik joak juergan.

2.4.5. «ibilpíde» < ibilbidea (gazt. *facultad de andar*)¹⁸. Adibidez:

- 1) «ibilpíde eskasean ikusi yoat urlie». Lit. ibilpide eskasean ikusi joat urlia.
- 2) «ibilpíde alosokoan yabik undiño». Lit. ibilpide alosokoan diabilk oraindiño.
- 3) «ibilpíde txarreko idirik etxupear». Lit. ibilpide txarreko idirik ez joaguk behar.

2.4.6. «ibilpídea» < ibilbidea (gazt. *la facultad de andar*). Adibidez:

- 1) «ibilpídea galdu eskero es as gause esetako». Lit. ibilpídea galdu ezker ez haiz gauza ezertarako.
- 2) «ibilpídea gausonookero!». Lit. ibilpídea gauza ona dok gero!
- 3) «ibilpídea nok etxokaltzean ba sartzaroan?». Lit. ibilpídea nork ez jok galtzen ba zahartzaroan?

2.5. Behe < -be / -pe, hitz konposatuetan

K. Mitxelenak *Fonética Histórica Vasca*-ko 12.18.an protoeuskarako leherkarien serie bikoitza aipatzen digu eta 21.5.ean bikoitzasun hori azentu edo eta ezean oinarritzen du.

¹⁸ «Ibilte bide»-tik baletor, ikus 2.6.3. Ikus Zeberioko euskara biziaren sonograma eranskinean.

Zeberiko euskera bizian (haragoan ere antzera egingo da) bokal arte eta kontsonante ozenaren jarraiko leherkari ozena gortzearen adibide ugari dugu eta hemen ere azentu intensitatea nabaria dela esango nuke. Adibidez: «lurpé, lurpéa», «urpé, urpéa», «oinpé, oinpéa», «minpé, minpéa», «surpé, surpéa» < sudurpe, etab.

2.6. Konposatuetakoa lehen hitzaren azkeneko gortzeak

2.6.1. K. Mitxelenaren *Fonética Histórica Vasca*-ko 12.10.ean hauxe dator:

En compuestos antiguos es regular que, cuando las consonantes d, g, h quedaban en final de primer miembro a consecuencia de la caída de la vocal que les seguía, según 6.1, aparezcan representadas por la sorda -t ante vocal. A veces t se escribe también —y no hay razón para pensar que no se pronunciara— ante oclusiva inicial del segundo miembro, pero por lo general su antigua presencia se patetiza por el ensordecimiento de esta oclusiva.

Baieztapen hau ukatu gabe, nire hipotesiari jarraituz, kasu hauetan ere azentu intensitatearen eragina nabarmena dela esango nuke kontsonanteon gorketan. Ikus ditzagun adibideak:

2.6.2. «itáurren» < idiaurren (gaur idi aurrean). Adibidez

- 1) «itáurreko onik etxaok iñonbe». Lit. itaurreko onik ez jakok iñon be.
- 2) «itáurren gogaitute ñaok». Lit. itaurren gogaituta niagok.
- 3) «itáurreokas kontzelauko as». Lit. itaurreokaz kontsolatuko haiz.

2.6.3. Bide beretik joango liratekeen beste adibide hauek aipatu eta zerrendatu baino ez ditut egingo: «bepúru, bepurúe» < begi burua, «burpíde, burpidéa» < burdi bidea, «arkáste, arkastéa» < ardi gaztea, «ertígídien» < erdi edegian, «aginpíde, aginpídea» < agindu/te bidea¹⁹, «eskonpárrí» < ezkondu/te barri, «bekáne, bekáne, bekanéko» < begi gane, «ipústarrí, ipústarríe» < idi buztarria, «supúru, supurúe» < su/te buru²⁰, «supástar, supastárra» < su/te bazterra, «esaupíde» < ezagun/te bide, etab.

¹⁹ Batetik etorri zein bestetik etorri, ikus *Fonética Histórica Vasca*, 12.15, gorketa, azentu tonikoaren aurrean gertatzen da. «eskonpárrí»-rekin beste hainbeste.

²⁰ Su naiz sutetik etor daiteke. Argibide gehiago ematearren, Zeberiko euskaran, su = *fuego*; surte = *fuego*; sute = (sute) = *cocina*.

2.6.4. «itargi / idergi» dela eta argitasun batzuk ematea interesgarritzat jotzen dut. Hasteko, Zeberion «itárgi - itárgie» = *luna, la luna* dugu eta «idérgi-idérgie (betea, barrie) = *luna llena* eta *luna nueva* hain zuzen.

M. Agud eta A. Tovar-ek, hitz honen teoria ezberdinak jasoten dituzte eta R. M. Azkueri jarraituz «illargi + argi» oinarritzat hartzen badugu, 2.6.3.ko adibideen artean sartu beharko genuke.

Honen ondoan, nire neure hipotesia haxe litzateke: «il + argi»-tik hasten badugu bilakaera, «l / r» eta gero «r / d» alternantziak bidezkoak dira, hots: «irargi / idargi».

Behin «idargi» berbara helduz gero, eta azentu tonikoa bitarteko, «itárgi» daukagu, Zeberion egiten duguna²¹.

2.7. Kontsonante ozenak gorturik hasiera absolutoan

Problematika hau, zabal, luze eta maixuki aztertzen du K. Mitxele-nak bere *Fonética Histórica Vasca*-ko zenbait kapitulutan.

Ni neu, oraingo honetan beste bide batetik noa. Nire neure *Zeberio Haraneko Azterketa Etno-Linguistikoa* doktorego tesian²², herririk hara-ko hainbat hitz edo eta multzo fonikoen sonograma aztertu nituen Deustuko Unibertsitateko Laborategi Fonetikoan.

Emaitzak hor daude. Baina sonogramak birraztertuz, fenomeno ku-rioso bat gertatzen da, haxe: hitz edo eta multzo fonikoko hasiera ab-solutoko kontsonante ozenak ozen jarraitu arren, hurrengo bokalean azentu tonikoa baldin badarama, hainbat kasutan, sonoritateko marra gabe dager sonograma. Azterturiko sonogramak asko direnez batzuk bakarrik hartuko ditugu adibide gisa, tesian agertzen diren zenbaki eta guzti: 34 bére; 87 gúre; 138 yákin; 153 beárren (ea = diptongo balioaz); 158 beósu (eo = diptongo balioaz); 161 dáó; 165 béot; 179 yákak; 213 bíger; 242 góxa; 244 góye; 279 bápai < bat bai; 301 bátxandau < bat dau; etab.

2.8. Doktorego tesiko sonogramon ondorioak


Neure doktorego tesiko sonogrametan ikus daitekenez, azentu to-nikodun bokalaren ezkerreko kontsonanteak ez du sonoritate marrarik ageri hasiera absolutoko hainbat kasutan. Nire ustez, azentu toniko eta intensitateak badu bai zerikusia fenomeno horretan. Beraz, kasuistika hau ere, aportazio-hipotesiaren barruan sartuko nuke.

²¹ Ikus ETXEBARRIA, J.M.: 1995, «Itargia, Eguzkia eta Mundua» ipuina, 99 orr.


²² Ikus ETXEBARRIA, J.M.: 1991, Sonogramen eranskina.

Eranskina


Adibide gisa, Zeberioko euskara biziaren sonograma batzuk, Deustuko Unibertsitateko Laborategi Fonetikoan aztertuak.



[i ñ i l p í ð e a]



[i r i p á s i]



[e p ā y e]

Bibliografia orokorra

AGUD, M. eta TOVAR, A.: *Diccionario Etimológico Vasco*. San Sebastián, 1992.

AKESOLO, L.: *Diccionario Retana de Autoridades del Euskera*. Bilbao, 1977.

AZKUE, R.M.: *Morfología vasca*. Bilbao, 1966.

—, «Del acento vasco en algunos de sus dialectos». *Euskera* IV (1930).

ETXEBARRIA, J.M.: *Zeberio Haraneko Euskararen Azterketa Etno-Linguistikoa*. Ibaizabal, Zornotza, 1991.

—, *Gorbeia Inguruko Etno-lpuin eta Esaundak*. Labayru Ikastegia - BBK, Bilbao, 1995.

EUSKALTZAINDIA: *Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa. Antologia*. Euskaltzaindia, Bilbao, 1999.

GAMINDE, I.: «Bizkaiko azentu-motei buruz». *Uztaro* 7(1993), 111-140 orr.

HUALDE J.I.: *Euskararen azentuerak*. ASJU eta EHU. Donostia eta Bilbao, 1997.

LAKARRA, J.: *Refranes y Sentencias (1596). Ikerketak eta edizioa*. Euskaltzaindia, Bilbao, 1996.

MITXELENA, K.: *Fonética Histórica Vasca*. San Sebastián, 1961.

TXILLARDEGI: *Euskal Azentuaz*. Donostia, 1984.

BIZKAIERAREN LEKUA BILBOKO KIRIKIÑO IKASTOLAN

Oihane Etxebarria Elorrieta

Orri azalotara dakardan artikulu hau karrerako laugarren mailan egin neban tesinaren moldapen bat da. Ez jatzue tesina bere osotasunean aurkezten. Halan eta guztiz ere, nahikoa izango dozue lanaren barri izateko.

1. Atarikoa

Elebakartasuna gizarte egoera markatu gabea dela pentsa daitekeen arren, gure inguruneari begiradatzeko soil batek kontrakoa adieraziko digu.

Gizarte *eleaniztasuna*, hots, mugaketa politiko baten hizkuntza bat baino gehiagoren elkar bizitzea eta bere alderdi berezia, elebitasuna, oso egoera arruntak dira munduan.

Gure *Euskal Herrian* ere, eleaniztasuna da nagusi. Halaber, hau ez da egoera bakarra. Eleaniztasunaren ondoan, *aldaera aniztasuna* aipatu beharra baitauekagu.

Aniztasun honek mugak ipini eta antolatu beharra dakar. Horrela, hiztunek egoera guztietan ez dute berdin hitz egingo. Egoerak eskaintzen dituen ezaugarrien arabera (tokia, partaidea, hiztunen rola...) hizkuntza/aldaera bat edo bestea aukeratzeko dute. Honek *hizkuntza-ren funtzioak* mugatzea aldarrikatzen du.

Nire asmoa, euskararen aldaeren hizkuntza funtzio hauek mugatzea da. Euskal Herria oso eremu zabala denez, ikerketa lana Bilboko KIRIKIÑO IKASTOLARA murriztuko dut. Horrela, ikastolako ikasle-irakasleek egiten duten aldaera aukeraketa neurtu nahiko da lan honetan.

KIRIKIÑO IKASTOLA, Bilbo lako uri erdaldun batean, bizkaieraren aldeko apustua egin duen ikastetxea da.

Ikasleen gehiengoak jatorri erdaldunekoak da eta euskararekin izango duen lehenengo kontaktua ikastolan bertan gauzatuko da.

Ikastolako *hizkuntza plangintzak* dioan legez, hasierako hurbiltze hau bizkaieraren inguruan emango da. Bizkaiera «bizia», etxeko euskara eta bizkaiera batuago bat izango dira aurreneko etapetan gailenduko diren aldaerak. Eta apurka-apurka, batuaren presentzia areagotuz joango da. Azken honen agerpena goiko mailetan indartuko delarik.

Laburbilduz, *aldaera ezberdinek dute lekua* ikastola giroan. Hasieran, aldaera baten erabilerara mugatuko dira; behin hau gaindituta goragoko batera igotzeko. Lehenbiziko aldaera horrek ahozkotasunaren kutsua izango du, eta gero, aldaera zainduago batera joko dute; zubi honek komunikazioa errazten lagunduko baitu.

KIRIKIÑO IKASTOLA eredu interesgarria iruditu zait orain arte egin-dako bizkaieraren irakaskuntzaren aldeko proposamenak herri euskaldunetako ikastetxeak kontuan hartuz egin baitira. Bizkaiko herri euskaldunetako ikastetxeen egoera da aztertu izan dena. Ikastetxe hauetan bizkaieratik baturako bide hori egin beharra azpimarratzen dute.

Baina hasieran esan legez, KIRIKIÑO IKASTOLAREN egoera guztiz bestelakoa da. Ikasleak erdal giroan bizi dira eta ondorioz, aurkeztu diren aldakiek ez dute izango Bizkaiko beste herri euskaldunetan izan dezaketen leku bera. Ikasleek ez dute euren ingurunean inolako *erreferentziarik*, euskarak ez du ia tokirik ikasleen egunerokotasunean. Beraz, pentsa liteke aldaeren aukeraketa funtzionalean ere aldea egongo dela.

Beraz, KIRIKIÑO IKASTOLAN bizirik dauden aldaeren hizkuntza funtzioak, aldaera bakoitza zein egoeratan erabiltzen duten aztertuko dut lan honetan.

Horrez gain, uri erdaldun bateko ikasleengan bizkaierak eta euskarak berak izan dezakeen lekua eta prestigioa ere aztergai izango ditut.

Azterketa lana aurrera eramateko bide bi erabili ditut: *galdesorta* eta *elkarrizketa*. Egoera ezberdinak aurkeztu zaizkie irakasle-ikasleei egiten duten aldaera aukeraketa neurtu ahal izateko.

Galdesorta ikasle eta irakasleei egin zaie. Aipagarria da irakasleen erantzunetan, euren aukeraketa bidez gain, ikasleena ere bildua lotu dela. Ikasleei dagokienez, goi mailak bakarrik aukeratu ditut, hauek baitira argien dutenak euren hizkuntza jardunen inguruko erabilera.

Elkarrizketak, oster, irakasleei bakarrik egin zaizkie. Hauetan, aldaera aukeraketaz gain, ikasleen euskara mailaren inguruko datuak jaso dira.

Orokorrean, azterketa lanaren datuak galdesortetan ispilatuak leudeke; elkarrizketa kopurua, irakasleen denbora eskasia bitarteko dela, maila apalago batean burutu baita. Haatik, elkarrizketa formal baten bidez ez bada ere, euren iritziak jasotzeko aukera izan dut.

Amaitzeko, helburu hau neurtzeko, ezin ahatz dezakegu, lehenago aipatu dugun legez, ikastolak berak duen hizkuntza plangintza; hez-

kuntza maila guztietan ez baita irizpide bera erabiliko. Hau kontuan hartuz, aurkeztu diren *hipotesiak* ere, *mailakako bide* honen inguruan antolatu dira.

2. Ikerketaren kokapena

2.1. Kokapen geografikoa

Aztergai dugun ikastola Bilbo hiriko Txurdinaga auzoan kokatzen da.

Bilbo hiriak 109,41 km²ko luze-zabalera du, eta bere barrutian, lehen herri zirenak biltzen ditu: Abando (1890ean bildua), Begoña eta Deustu (1924ean). Nerbioiaren behe haraneko sakanean dago, mendiz inguratutik, hemendik datorkio ahoz aho erabiltzen den «Botxo» izena.

Koadro sinoptikoa

Biztanleak	353.195 (1996)
Azalera (km ²)	41,3
Dentsitatea (bizt/km ²)	8.927,5
Altitudea hirigunean (m)	19
Euskaldunak	%10
Ia euskaldunak	%22
Erdaldunak	%68

2.2. Euskararen egoera Bilbon¹

Bilbo, euskararen erabilerari dagokionez, 3. gune soziolinguistikoan kokatu beharko genuke. Azken urteotan euskalduntze bidean daudenen kopuruak gora egin duen arren, giro erdalduna da nagusi.

Biztanleak

1981:	384.495
1986:	374.207
1991:	364.372
1996:	353.195

¹ Atal honetan agertzen diren datuak Bilboko Udaletxean jasorikoak dira.

Euskeraz ondo hitzegiten dutenen hazkundera portzentaietan²

Auzoak	1986	1991	1996
Zazpi kaleak	17	19	24
Deustu	15	15	22
Begoña	15	16	21
Iturribide	13,3	13,5	20,6
Castaños	12,7	13	18,3
Matiko-C.Jardin	10,2	10,4	17
Solokoetxe	13,2	14,9	16,9
Txurdinaga	9,6	11,5	15,9
Abando	11,8	11,4	15,8
Indautxu	12,2	12,1	15,7
Ibarrekolanda	7,9	9,5	15,4
Zurbaran-Arabella	10	10,7	15,4
Santutxu	9,7	10,7	15,2
Atxuri	9	9,5	14,3
San Adrian	8,1	10	13,9
Urribarri	7	7,8	13,7
Abusu	5,8	8,4	13,6
Zabala	7	7,1	13,6
Ametzola	10	9,9	13,2
Basurto	7,6	8	12,9
Boluenta	6,1	6,9	12,2
San Inazio-Elorrieta	7,2	7,5	12
Iralabarri	7	7,4	11,5
Arangoiti	4,6	7,1	11,4
Zorrotza	3,8	5,1	10,5
Olabeaga	6,4	7,8	10,2
Bilbo zaharra	5,7	6,1	9,9
Larraskitu	5,5	5,2	9,6
San Frantzisko	5,8	6,3	9,2
Errekaldeberri	4,5	4,8	9,2
Masustegi - Caramelo	2,1	2,1	8,7
Altamira	3	4,7	8,4
Uretamendi	2,7	2,5	5,9
Otxarkoaga	2,3	3,4	5,4
Iturrigorri-Peñascal	1,2	1,7	4,6

² Beltzez agertzen direnak ikastola inguruan dauden auzoak dira. Bertako ikasleek osatzen dute batez ere ikastola.

Ama hizkuntza

Auzoak	Euskera	Eusk/Gazt	Berriak	Gaztelania
Abando	6,4	5,2	4,2	87,3
Altamira	1,1	0,6	6,7	90
Ametzola	5	3,2	5	90,3
Arabella	3,6	2,1	7	91,9
Arangoiti	1,7	1,1	8,6	96
Atxuri	6,2	2,6	5,5	88,1
Basurtu	3,9	2,9	6,1	91,5
Begoña	8,7	4,9	8,6	85,3
Bilbao zaharra	3,2	2,3	4,4	91,4
Boluetza	3,5	2,9	5,8	92,4
Castaños	7	4,3	7	87,8
Ciudad Jardin	4,6	5,9	4,7	87,4
Ibarrekolanda	3,4	3,1	8,9	91,9
Indautxu	6	4,4	5,3	88,8
Iralabarri	3,1	2,5	5,9	92,9
Iturribide	8,8	4,8	7	85
Iturrigoiti-Peñascal	0,9	0,8	6,9	93
Abusu	2,5	1,8	9,3	92,1
Larraskitu	2,2	1,7	5,7	92,7
Masustegi	1,5	1,6	5,6	85
Matiko	5,1	2,3	9,5	91,4
Olabeaga	5	3,9	1,3	89,1
Otxarkoaga	1,1	0,9	3,4	95,4
Errekaldeberri	2	1,5	5,7	92,1
San Adrian	2,6	2,3	9	94,2
San Frantzisko	3,9	3	2,3	88,5
San Inazio	2,7	2,4	7	93,7
Deustu	7,6	4,9	9,7	86,5
Santutxu	4,6	3,3	7,3	90,1
Zazpi Kaleak	12,9	5,8	5,3	79,7
Solokoetxe	6	4,4	6	87,7
Txurdinaga	4	3,9	8	90,4
Uretamendi	0,4	0,9	4,6	94,9
Uribarri	3,2	2,4	8,1	91,8
Zabala	3,4	3,3	6,9	91,7
Zorrotza	1,3	1,1	8,1	95,5
Zurbaran	5,1	3,1	7,7	89,5

Etxean erabilitako hizkuntza

Auzoa	Euskera	Eusk/Gazt	Gaztelania	Beste bat
Abando	1,7	5,8	92	0,4
Altamira	0	2,3	95,2	2,4
Ametzola	1,5	3,8	94,2	0,4
Arabella	1,1	3	95,3	0,6
Arangoiti	0,5	2,7	96,3	0,5
Atxuri	2,1	5,4	91,7	0,7
Basurtu	1	3,9	94,8	0,3
Begoña	3,7	7,8	87,8	0,5
Bilbao zaharra	1	3,8	94,8	0,4
Bolueda	1,1	3	95,3	0,6
Castañes	2,2	5,5	92,1	0,2
Ciudad Jardin	2,8	5,8	91,2	0,2
Ibarrekolanda	1,1	4,1	94,5	0,3
Indautxu	1,6	5	93,1	0,2
Iralabarri	1	3,2	95,3	0,5
Iturribide	3,6	2,7	87,5	0,5
Iturrigoiti-Peñascal	0,3	1,3	96,3	2,1
Abusu	0,5	2,8	95,3	1,4
Larraskitu	0,5	2,5	96,5	0,5
Masustegi	0,3	2,2	93,7	3,7
Matiko	1,6	4,4	93,7	0,3
Olabeaga	0,5	3,3	95,7	0,5
Otxarkoaga	0,1	1,6	97,8	0,5
Errekaldeberri	0,5	2,2	95,9	1,4
San Adrian	1	3,3	95,4	0,3
San Frantzisko	1,3	3,5	93,9	1,3
San Inazio	0,6	3,4	95,6	0,3
Deustu	3	7,3	89,3	0,3
Santutxu	1,9	5,3	92,2	0,6
Zazpi Kaleak	5,9	10,3	83,2	0,6
Solokoetxe	2,6	6,8	90,1	0,5
Txurdinaga	2,2	5,3	92,2	0,4
Uretamendi	0	1,2	97,3	1,5
Uribarri	1,1	3,5	94,7	0,7
Zabala	1,1	4,8	93,5	0,5
Zorrotza	0,2	1,9	97,3	0,5
Zurbaran	2,2	4,5	92,7	0,6

2.3. *Ikastolaren datu orokorrak*

Ikastola hau pribatu-kontzertatua da eta irakaskuntzarako kooperatiba izendapena du: guraso eta ikasleen elkartea da, eta Eusko Lege Biltzarrek onetsitako Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legearen abiaburu eta xedapenen menpean egongo da, bai eta legezko manuen eta estatutu haien menpe ere.

KIRIKIÑO IKASTOLA irakaskuntza kooperatiba 1977an sortu zen Bilboko Santutxu auzoan (gaur egun, hala ere, Txurdinagan dago); beraren xedea ondokoa da: ikasle guztiek hezkuntza euskaraz jasotzea, eskal kulturaren eta kristau gizatasunaren barruan.

Irakaskuntza neska-mutilei emango zaie batera, eta ikasleen adina 2 urtetik 18ra artekoa izango da. Ikastolaren jatorriaren nortasun ezagarriei eutsiaz bat, ondokoak dira ikastolak gaur egun dituen funtsezko ardatzak:

- a) Euskara giroko hizkuntza izango da bai harremanetan, bai irakas-kuntzan ere. Era berean, eleaniztasuna bultzatuko da, ikasleek hiru hizkuntza edo gehiago erabiltzeko gaitasuna izan dezaten; Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialak behar bezala jakitea bermatuko da.
- b) KIRIKIÑO IKASTOLAK ikasleak heziko ditu kristau gizatasunaren barruan. Ikastolaren iritzian, hezkuntza lanaren bitartez, bake, zuzentasun eta elkartasunaren balioak, besteak beste, suspertu eta landu behar dira, eta balio horiek gizartean parte hartuz eta lagunduz gorpuzten dira.
Gizarte demokratikoaren balioak suspertuko dira, bai eta nork bere buruari dion begirunea eta besteei zor diena; hori guztia erantzukizun, askatasun, elkartasun eta gizartea hobetu behar-rekin lotuko da.
- c) Euskal kultura suspertuko da, bai eta beste kulturetara zabaltzea ere.
- d) Esperimentazio, berrikuntza eta prestakuntza etengabea bultzatuko dira.
- e) Jarduera osagarriak bultzatuko dira.
- f) Berdintasunerako hezkuntzarantz bultzatuko da irakaskuntza.

2.4. *Ingurune sozioekonomikoa, kulturala eta familiarra*

Txurdinaga azken urteotan sortu den auzo berri bat dela esan dezakegu; orain dela hamar urte landa, ibar eta ortuz osaturiko ingurunea baitzen. Berpizte honen arrazoia etxebizitza berrien beharra da.

Ikastola inguratzen duten auzoak maila ekonomiko ezberdineta-koak dira: Otxarkoaga, Begoña, Santutxu... Bestalde, ikastola, erdi-mailako familiek osatzen dute.

Ikasleen egoera linguistikoaren inguruan, %80aren ama-hizkuntza gaztelania dela aipatu beharra dago.

2.5. *Ikastolaren hizkuntza proiektua*

KIRIKIÑO IKASTOLAK, hizkuntzari dagokionez, duen helbururik behinena ondokoa da: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitutakoan, ikasleek Euskal Autonomi Erkidegoko hizkuntza ofizial biak egoki eta antzera ezagutu behar dituzte.

Kontuan hartzen badugu, euskarak gaur pairatzen duen egoera diglosikoak erabilera konpentsaile eta orekatzailea behar duela, eta gurasoek ere irakaskuntza hala eskatzen dutela, ikastolak erabaki du euskara izan dadila alor guztietan mintzatzeko hizkuntza; gaztelania eta ingelesa ikasgaietan izan ezik. Hau da, KIRIKIÑO IKASTOLAREN irakaskuntza eredu D eredu da. Ikastolak bermatuko du ikasleek euren ikastaldi guztiak amaitutakoan hizkuntza gaitasuna izango dutela ikasketak euskaraz egiten jarraitzeko.

Euskararen erabilera bultzatuko da ikastolako eta inguru hurbilene-ko eremu eta arlo guztietan, eta horretarako eskola jarduerak sustatuko dira (Euskaraz Bizi, Euskal Kluba...), bai eta eskolaz kanpokoak ere (udalekuak, irteerak, kirolak...).

Hasierako garaietan, bizkaiera izango da nagusia, eta pixkanaka-pixkanaka euskara batua sartuko da.

3. **Hipotesiak**

Komeni da azterketa lana mugatzea. Aurkeztuko diren hipotesiak beraz, ondoko hauek dira:

H1: Orokorrean dialektobitasuna egongo da. Hala ere, hau ez da maila guztietan berdin islatuko; hots, goi mailetan ikusiko da argien dialektobitasuna.

Azter dezagun hau zehatzago:

1. Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan ez da dialektobitasunik egongo. Ikasleek etxetik aldaera ezberdinak ekarriko dituzten arren, bizkaiera izango da irakasleak bultzatuko duen aldaera bakarra.

2. DBH 1 eta 2-n bizkaiera-batua da nagusituko den aldaera. Hala ere, batua agertzen hasiko da ikasleengan.
3. DBH 3 eta 4 eta Batxilergoan, dialektobitasuna argia izango da. Ikasleek bizkaiera batu bat erabiliko dute ahozko jardunetan. Idatziz ostera, baturako bidea agertuko dute.

H2: Goi mailetan, dialektobitasuna argia dela baieztatuz, aldaera bakoitzak funtzio bat beteko du. Egoera ezberdinen aurrean, ikasleek aldagai funtzional ezberdinak erabiliko dituzte.

4. *Status quaestionis*

4.1. *Elebitasuna eta diglosia:*

Elebitasuna eta diglosia hizkuntza ukipenezko egoeretan gertatzen diren fenomenoak dira. Bai elebitasunean, bai diglosian, bi harreman maila hauek bereizi beharko lirатеke gutxienez:

- a) Hizkuntza ezberdinen artean gertatzen dena (ELEBITASUNA eta EXODIGLOSIA).
- b) Hizkuntza bereko aldakien artean gertatzen dena (DIALEKTOBITASUNA eta ENDODIGLOSIA).

Euskal Herrian, geroago ikusiko dugun legez, harreman maila biak dauzkagu. Batetik, hizkuntza biren edo gehiagoren artean ematen den hizkuntza ukipena (euskara, gaztelania, frantsesa). Eta bestetik, euskarari dagokionez, estandarra eta barietateen artekoa. Azkeneko hau izango delarik lan honen aztergaiaren muintariko bat.

Lehenengo eta behin has gaitezen autore ezberdinen usteak jarraituz, kontzeptuak apur bat argitzen.

Terminoen lehendabiziko zedarriztapen bat *Euskararen liburu zuria*-n³ aurki genezake: «Elebitasuna gizabanakoaren eta bere portaeraren mailako zerbait litzateke: egoera horretan, posible da bi hizkuntzak botere, status, prestigio eta funtzio maila berdina batetan egotea». Diglosia oster, «maila sozio kulturalera hizkuntza organizazio mota bati dagokio: hor ezinezkoa da hizkuntza biek maila berdina izatea, ez botere ez status-ez, ez prestigio, ez funtzio; horregatik, gizarte horretan eten bat sortzen da hizkuntza biren artean, nor bere eremura atxikiz, eta jendeak jokamolde desberdina agertzen duelarik hizkuntza bakoitzaz.»

³ EUSKALTZAINDIA: *Euskararen liburu zuria*, Bilbo, 1978. (620.or).

Karmele Rotaetxek⁴ holako definizioak damoz: «se entiende por bilingüismo la aptitud, facultativa o indispensable, para comunicar con interlocutores de dos mundos ... alófonos, por medio de dos idiomas que presentan entre sí una proporción de diferencia lingüística tal que pueda afectar o incluso excluir la comunicación». Eta aurrerago:

Diglosia designa una situación en la que los miembros de una comunidad son conscientes de que las variedades intralingüísticas o interlingüísticas de sus repertorios están jerarquizadas; tienen conciencia también de que ninguna de estas variedades, por sí sola, es suficiente para integrar socialmente a todos los miembros de tal comunidad.

Beraz, termino bi hauek hizkuntza ezberdinei egiten die erreferentzia. Baina gorago aipatu dugun legez, hizkuntza barietateen artean ere gerta liteke elebitasuna eta diglosia.

Elebitasunari helduz, eta Azurmendiren⁵ usteak lerrokatuz:

Tanto el bilingüismo, como el multilingüismo o el plurilingüismo, son fenómenos que hoy suelen entenderse como un resultado de una situación de «contacto de lenguas» [...] en los que se da la relación, y la alternancia en el uso, entre dos variedades lingüísticas distintas. [...] Una primera delimitación del bilingüismo podría hacerse en función de la «distancia lingüística» entre las variedades lingüísticas en contacto, distinguiendo por lo menos entre dos grados: el «bilingüismo», cuando se da entre lenguas distintas; y el «bidialectalismo», cuando se da entre variedades distintas de una misma lengua.

Eta diglosian ere, harreman maila bikoitza da:

es el resultado posible de una situación de «contacto de lenguas» en que se da una relación de dependencia distorsionada de una respecto a de la otra lengua en contacto, y que por eso se resuelve en una desigualdad sociolingüística entre ambas lenguas, que lleva a una compartimentación en el uso lingüístico de ambas, es decir, a un uso lingüístico impuesto, condicionado y dependiente [...] la diglosia entre variedades lingüísticas distintas de la clase que sean (geográficas o dialectales, sociales, funcionales, etc.) pero internas a una misma lengua [...] y a la que con Sánchez Carrión podríamos llamar «endodiglosia», y a la que se da entre dos lenguas distintas [...] y que podíamos llamar «exodiglosia».

⁴ ROTAETXE, K.: *Sociolingüística*, Síntesis, Madrid, 1988 (53-54.or).

⁵ AZURMENDI, M.J.: «Bilingüismo, Diglosia», *Euskal linguistika eta literatura*, Deustuko Unibertsitateko Argitarazioak, Bilbo, 1981 (222. or).

Ferguson-ek⁶ ere (1959), diglosiari hizkuntza baten aldaki biren erabilera bereiztuei deituko dio, hots, Sánchez Carrión-en terminologiari jarraituz, endodiglosia legez definiturikoa:

a relatively stable language situation in which in addition to the primary dialects of the language (which may include a standard or regional standards) there is a very divergent, highly codified (often grammatically more complex) superposed variety, the vehicle of a large and respected body of written literature either of an earlier period or in another speech community, which is learned largely by formal education and is used for most written and formal spoken purposes but is not used by any sector of the community for ordinary conversation.

Laburbilduz, hizkuntza baten bi barietateen artean gertatzen den diglosiari egiten dio erreferentzia. Kasu guztietan egoera antzerakoa izango delarik: batetik barietate arrunta, baxua (B) egongo da. Eta bestetik, barietate prestigioduna (A). Eta bakoitzak bere funtzioak izango ditu komunitatearen barruan.

Azurmendik, diglosia definitzen duenean Sánchez Carrión⁷ aipatzen du. «Txepetx»-ek hiru diglosia mota bereizten ditu:

1. SEMIDIGLOSLIA edo ENDODIGLOSLIA: (Ferguson-en eredua).
2. DIGLOSLIA FUNTZIONALA edo EXODIGLOSLIA.
3. ERABATEKO DIGLOSLIA: hizkuntzetatik batek bakarrik, hizkuntza funtzio guztiak betetzen dituenean.

Has gaitezen kontzeptuen nondik norakoak azaltzen:

ENDODIGLOSLIA n hierarkia linguistiko beraren bi forma ezberdin daude harremanetan komunitate bakar baten barruan. EXODIGLOSLIA n ostera, bi hierarkia linguistiko ezberdin daude, eta hasiera baten bi komunitate ezberdinen isla lirateke.

ENDODIGLOSLIA ren berezitasuna norma baten eta bestearen artean zubi lako formak sortzeko gaitasunean dago. EXODIGLOSLIA n, sistema biak kanpokoak, independenteak dira bata bestearengandik; eta sarri ez dituzte bakarrik hierarkia linguistiko ezberdinak agertzen, kultura ezberdinak agertu ditzakete. Eta sortzen den arazoa hizkuntzetariko baten baztertzea litzateke. ENDODIGLOSLIA n kontrakoa gertatzen da, normak kultura beraren aldaerak dira.

EXODIGLOSLIA n hiru talde linguistikok parte hartzen dute:

⁶ FERGUSON, C.A.: «Diglossia», *Word*, 15, 1959 (325-340. or).

⁷ SÁNCHEZ CARRIÓN, J.M.: «Bilingüismo, diglosia, contacto de lenguas», *ASJU*, VIII, 1974.

- Hizkuntza erasotzailearen talde elebakar bat (talde menperatzai-lea). Talde honek sortu edo gorde egiten du egoera diglosikoa.
- Talde elebidun diglosiko bat: erasotua izan den bere ama hizkuntza gordetzen du eta hizkuntza erasotzailea bereganatu du.
- Badago diglosia soziala jasaten duen talde bat. Talde honek jatorrizko hizkuntzaren elebakartasunean jarraitzen du. (Gizarte maila baxukoa).

ENDODIGLOSIAn lehenengo taldeak ez du agerpenik. Pertsona guztiak diglosikoak edo aldaera baxuaren elebakarrak dira. ENDODIGLOSIAn status-a horrela banandurik legoke: talde batek hizkuntza standard-era joko luke rol formal edo zaindu bat betetzeko, eta bestetik, rol hau ez ulertzeagatik baztertuta gelditzen den taldea legoke.

Laburbilduz, ENDODIGLOSIAn talde osoa legoke egoera diglosiko batean. EXODIGLOSIAn menperaturik dagoen taldea baino ez litzateke egoera diglosikoan agertuko. Ondorioz, Fergusonek zioen legez, lehenengo multzoan tentsio linguistikoak agertuko dira. Bigarrenean, aldiz, arazo linguistikoak hizkuntza menderatuaren normalkuntzarako, edo asimilazio linguistikoaren itxurapean agertzerako bidea hartuko du.

Ninyoles-en⁸ eskema jarraituz, diglosia mota biak aldi berean eman daitezke: $A < B$ ($B < B'$). Eta Azurmendik eskema honek Euskal Herriko egoera definitzen duela esango du: «Además, pueden también darse a la vez la endodiglosia y la exodiglosia en una misma comunidad, como por ej. en nuestro País Vasco, siendo entonces la endodiglosia una consecuencia y reflejo de la exodiglosia: $A < B \leftarrow (B < B')$ ».

4.2. *Hizkuntza funtzioak eta aldagai funtzionalak*⁹

Komunikazio-egintza ororen helburua, mezu baten bitartez, informazio motaren bat transmititzea da. Horretarako, igorleak komunikazio elementu guztietara jotzen du; izan ere, horietakoren bat ez egoteak komunikazioa eragotz baitezake. Mezu batean nabarmenduko den komunikazio-egintzako faktorearen arabera, funtsezko mota ezberdinetan ezaugarri daiteke komunikazio hori. Baina horrek ez du esan nahi gainerako faktoreak kontuan hartzen ez direnik.

Jakobson-ek sei funtzio bereiztu zituen:

⁸ NINYOLES, R.L.: *Idioma y poder social*, Tecnos, Madrid, 1972 (228. or).

⁹ FISHMAN, J.: *Sociología del lenguaje*, Cátedra, Madrid, 1988.

Funtzioak	Zeinua
Erreferentziala	Zerbaiti buruzkoa
Adierazkorra	Erantzun hunkitzaile bat
Fatikoa	Komunikazioaren jarraitasuna azpimarratzen du (ez du akordiorik adierazten, diskurtsoa aurrera doala baizik)
Konatiboa	Inperatibo bat transmititzen du, portaera aktiboa determinatuz
Metalinguistikoa	Beste zeinu bat izendatzen du
Poetikoa	Zeinuak eurak erabiltzeko moduari buruzko arreta sortarazten du

Ba al dute zerikusirik funtzioek aukeraketa linguistiko eta elebitasunarekin (dialektobitasunarekin)? Hizkuntza edo aldaki ezberdinek funtzio ezberdinak bete ditzakete hiztun elebidunen egunerokotasunean.

Laburbilduz, gizarte arauak nolabaiteko banaketa funtzionala eskatzen dute eta gizabanakoek kode ezberdinak erabiliko dituzte funtzio ezberdinen aurrean. Aldagaiak besteengandik bereizita agertuko dira, bakoitzak funtzio jakina edukiko duelarik.

Baina Jakobson-en zehaztapen hau ez da nahikoa. Solaskideen arteko harreman, gai, formaltasun maila eta testuinguruko hainbat faktorek ere, funtzio konkretuetarako aldaera jakinen aukeraketan eragina izango baitute.

Zehaztapen hauek aztertzen hasiz, batetik, rol harremanak aipatu beharko genituzke. Hiztun bakoitzak rol bat betetzen du besteekiko harremanean. Horregatik, rolak onartzen dituztenek komunikazioaren alderdi pragmatiko eta soziolinguistikoa ezagutu behar dute.

Rolen arteko erlazioa harreman transakzional baten inguruan eman liteke. Rol bakoitzak bere papera beteko du eta erabilitako aldagaiak bien arteko aldea adieraziko du. Adibidez, irakasle ikasle harremana aldagai berezi baten bidez agertuko da. Baina ikastetxean irakasle eta ikasleen arteko harremana ez da bakarrik transakzionala izango. Ikasgelatik kanpo, edo ikasgelan bertan ere, harreman pertsonalago bat eman liteke. Ondorioz, aldagai linguistikoak barietate informalago bat eskainiko du.

Hiztunek egoera konkretuetan sortzen diren rol harremanak bereizi behar dituzte.

Harreman profesional batetik pertsonalago baterako jausia momentu eta leku jakin batean gertatuko da. Horrela rol harremanek, momentu eta leku jakinek egoera soziala osatuko lukete. Egoera jakinak aldaera

bereziekin lotuta agertuko dira. Aldaera aldaketak egoera edo gaia aldatzerakoan emango dira. Hau da, aldaketak gertatuko dira hitzunik pentsatzen duelako gai bati hobeto dagokiola aldagai konkretu bat edo zerbait pertsonala adierazi gura duelako harreman transakzional batean. Horrela, irakasle batek orokorrean erabiltzen duen erregistrotik kanpoko elementuak erabil ditzake helburu ezberdinekin: irakasle-ikasle harremana gorde, bizipen bat adierazi, ikaslearengan eragin ...

Hau horrela izanik, egoerekin harremanetan dauden aldaerei aldagai funtzionalak deituko diegu.

Aldaera funtzionalarekin batera eremu edo barrutiak zehaztu behar-ko genituzke. Eremu ezberdinak egongo dira: eskola, familia, salerosketak... eta bakoitza aldaera batekin lotuta agertuko da. Linguistikoki, eremu jakin bat aldagai jakin batekin agertuko da, eta aldagai funtzional bat sozialki agertuko da nagusiki agertzen den eremuarekin lotuta. Beraz, eremua eta aldagai funtzionala erlazionatuta agertuko dira.

4.3. *Bizkaiera irakaskuntzan*

4.3.1. SARRERA

Bizkaiko eskola eta ikastetxeetan joera ezberdinak ageri dira. Ikastetxe batzuek irakaskuntza osoa bizkaieraz egiteko apustua egin dute, besteek ostera, batuz.

Bizkaiera aukeratu duten ikastetxeetan aldaeren erabilera ez da euskara ikasgaira murrizten; hezkuntza osora hedatzen den tresna bilakatzen da: irakasgaiak bere osotasunean hartzen ditu, harremanak, espresio arloa...

Azken hauek, azkeneko mailetan baturantz bideratzen dituzte euren asmoak. Eta orokorrean bertako ikasleek ez dute inolako arazorik izaten geroaldi hurbil baten ikasketak batuz jarraitu edo amaitzeko.

Euskara eredu gisa batua aukeratu duten ikastetxeetan ordea, ez da bizkaiera ukitzen, ez ikasgai moduan, ezta tresna moduan ere.

4.3.2. HIZKUNTZA ETA ESKOLA¹⁰

Haurrak familiarteko harreman zuzenen bitartez eskuratzen eta hedatzen du hizkuntza. Harreman zuzen hauek banakakoak eta afektibitate lotura estukoak dira.

¹⁰ AGIRRE, J.M.: *Euskarazko irakaskuntza Bizkaian: arazoak eta zenbait proposamen*, Desclée de Brower, Bilbo, 1985.

Geroago, hiru urterekin gutxi gora behera, eskola eta jolaseko ki-deen eragina igarri daiteke. Hizkuntzaren jabekuntzan ezin ahanztz daiteke eskola berri- hauetan irakasle-ikasleen arteko harreman indibidual eta zuzenak duen eragina.

Ikerlarien ustetan, harreman zuzen hau da hizkuntzaren jabekuntzan garrantzia duen faktorea, lehenengo urteetan behintzat. Beste era bateko eragina izango lukete haurraren hizkuntza jabekuntzan komunikabideek, helduen inguruko giroak, edo eurak bizi direneko inguru-neak.

Haurrarekin zuzeneko harremanik ez duen ingurune honek prestigio / arruntasun balioak emango lizkieke eurretan agertzen diren hizkuntzei (bai erdara, batua, zein bizkaiera). Soziolinguistikaren alorrean eta helduen iritzitan behintzat, ingurune-ko hizkuntza edo aldaki honek garrantzi handia izango du.

Orain arte adierazitakoak hizkuntza bakar baten edo hizkuntza biren edo gehiagoren jabekuntzarako balio du. Haurrarekin harreman zuzenetan dagoen giroa aberatsa bada hizkuntzari dagokionez, ez da arazorik egongo ingurunearekin bat datorren beste hizkuntza edo aldaki baten ikaskuntzarako. Adibidez, etxean euskara, kalean erdara eta eskolan ingelesa. Etxeko hizkuntza eskolakoarekin bat badator, ez da eragozpenik egongo eskolan beste bat ikasteko; herri euskaldunetan adibidez: etxean euskaraz eta eskolan erdaraz. Eskolako hizkuntza plangintza ondo eginda badago eta horrez gain, etxeko oniritzia baldin badu, emaitzak ezin hobeak izango dira.

Bestetik, hizkuntza minoritarioen inguruneetan (herri erdaldunetako euskaldunak) ez da hizkuntza edo aldaki bien arteko eskuratze eta hedatze orekatua lortu. Etxeko hizkuntza (1H) inguruko hizkuntzarekin (2H) bat ez badator, eta azkeneko hau eta eskolako bera badira, sarri bi hizkuntzetarik bat edo biak erdizkako jabekuntza izateko edo erdielebitasuna sortzeko arriskua dago. Holako egoeratan, etxeko hizkuntzari laguntza eskaini behar zaiola dirudi. Batetik, 1Hren jabekuntza sendoago bat lortzeko; eta bestetik, 2H ere hobeto ikasteko oinarriak lortzeko. Laburbilduz, eskolako hizkuntzak etxekoaren osagarri izan beharko du elebitasunak ondorioz izan ez dezan.

Hizkuntzaren jabekuntzaren ingurukoak adierazi ondoren hel diezaigun hizkuntzak eskolan duen egoerari.

Ikastetxeak edozein hizkuntza oinarri duela ere, ez du hizkuntza horren adakia edo erregistroa erakusten edo ikasketa plangintzan barneratzen.

Ikastetxeetan, ohituraz, ez dira hizkuntza mailak landu izan. Orokorrean hizkuntza eredu *zaindua* edo *formala* erakusten da; eta haurrak etxetik edo kaletik dakarren *hizkuntza arruntak* ez du leku handirik.

Bestetik oster, hizkuntzaren irakaskuntzaz arduraturik dauden erakundeek hizkuntza mintzatuari garrantzi handiagoa ematen dioten arren, eskola orduetan, proportzioz, hizkuntzen nondik norakoak ikasteko, hizkuntza idatzia da gehien landu izan dena eta lantzen dena. Ahozko espresibitatea irakaslearen eremura murrizten da. Hau horrela izanik, ikasleari ez zaio hizkuntza horretan mintzatzeko beharra sentiarazten.

Diskurtso erari dagokionez, ikastetxean usuen lantzen dena *narrazioa* da. *Testu teorikoak* oster, irakaslearen ahotan eta bereziki testu liburuetan agertzen dira. Beraz, hizkuntza erabilera hauetarako gaitasuna oso gutxi trebatu eta lantzen da ikaslearen bilakaeran. *Bat-bateko hizkuntza*, egoeraren araberakoa dena, ez da eskolak kontuan izan duen erabilera. Gaur egun, eskolak beharrezko diren trebetasunak bultzatuz elkarrizketa, eztabaida eta bat-bateko hizkuntza landu nahi ditu ikasgeletan.

Hizkuntzen irakaskuntzarako metodologia aldatu beharra frakaso eskolarraren aurrean irtenbide bat bilatzean legoke. Oinarritzko maila lortu ez izana hizkuntzaren jakite ezegokiari leporatzen zaio: ikasleak ez dira testuak irakurri eta ikaskideen aurrean azaltzeko gai. Zertan legoke arazoa? Zein da arrazoa? Hizkuntza, alegia?

Ikastetxeetan erabiltzen den hizkuntza *zaindua* eta *normatiboa* da eta batez ere kode idatziaz lantzen dena. Hizkuntza erabileretan *narrazioa*, *kontakizuna* eta *testu teorikoak* bultzatzen dira batez ere. Eta hirurak maila kultural apalenetan erabiltzen den hizkuntza eta kodetik oso urrun daude.

Eskolaren betebeharra da hizkuntza normatiboa eta kode idatzia irakastea. Gaur, testu teorikoaren hizkuntzak ere garrantzi handia du edozein gertakizunen inguruan idatzi ahal izateko. Baina honek ez du esan nahi hizkuntza maila arruntak ahaztu behar ditugunik. Ikasleak etxetik eta kaletik dakarren hizkuntza (erabilera eta maila) eskolan baztertuz gero, ikasleei (eta gurasoei) lotsa sentiarazteko arriskua dago. Ondorioz, norberak bere buruarekiko duen ustea eta konfidantza zapuztu egiten da eta honek frakaso eskolarrera hurbiltzen gaitu.

Badakigunetik abiaraztea, ezagutzen dugun hizkuntza horretan oinarritzea, printzipio psikopedagogiko ezaguna da.

Hizkuntzari dagokionez, bigarren hizkuntza eta hizkuntza beraren aldaki edo erregistro ezberdinak ikasteko, bidezkoa dirudi haurrak etxetik dakarren horretan oinarritzea. Guztiz pedagogikoa da eskolan etxetik dakarren hizkuntza eta honen aldaki edo erregistroak bai ikasleek, bai irakasleek erabiltzea. Aldi berean, egoera bakoitzean zein erabili behar-ko litzatekeen aztertu eta zehaztu beharko genuke.

Bestetik, hizkuntza eta aldaki edo erregistro horietaz ohartzea konfidantza sentiaraziko dio ikasleari eta honek hizkuntzak dituen aukerak hobeto ezagutzeko bidea erraztu egingo du.

Hizkuntzalaritzaren alorrean, etxetik ekarritako hizkuntza baztertu barik, hizkuntzak eskaintzan dituen tasun eta aberastasunak ikastea izango litzateke eskolaren helburu nagusia.

Hurbilketa bat eginez, Bizkaiko giro euskaldunetako sendiek bizkaieraz bizi dute egunerokotasuna. Euskaldun hauek, edozein hizkuntza edo aldakiren hitzun lege, gutxieneko hizkuntza maila bi ezagutzen dute. Batetik *bizkaiera arrunta* legoke, eguneroko bat-bateko jardunetan eta familia giroan darabilguna. Eta bestetik, *bizkaiera landua*, bizkaiera zaindua, egoera berezietan darabilguna; hots, hezkuntza, politika, erlijioa... hizpide duten gaien inguruan jarduteko aproposa dena. Jarduna idatziz agertu gurako balu, edozein hitzunek erregistro hau erabiliko lukeela ez dago zalantzarik.

Horrez gain, gaur egun, ez dago batuarekin gutxieneko harremana izan ez duenik. Euskaldun arruntaren begietan ez dago argi zein den hizkuntza batu honen betekizuna edo lekua. Idatziz erabili behar dugun hizkuntza ote da? Eskola edo ikastetxeetan irakasten dena? Edo ETB-k darabilena? Maila soziokulturala baxuagoa den heinean, batuarekiko miresmena handiagoa izango da. Euren hizkera modua eremu mugatuetara murriztuko dute: lagun artera, herrira, heldu eskolagabeekin dituzten jardunetara...

Konturatu gaitezen, euskaldun gipuzkoar batentzat erregistro zainduaren eta gipuzkeraren arteko aldea txikia den arren, bizkaitar baten zat erregistro zainduen (*batua eta bizkaiera batua*) arteko jausia ikaragarria dela. Hitzunak ezagutzen duen erregistro zaindu horren osagarri izan beharrean, batuak ordezkapena dakar eta hitzun hau ezjakin bihurtzeko arriskua dago.

4.3.3. BIZKAIERAREN IRAKASKUNTZAREN ALDEKO PROPOSAMENAK¹¹

Egoera hau izanda, asko dira bizkaiera oinarri duen hezkuntza baten aldeko apustua egin dutenak. Usna ditzagun bizkaieraren irakaskuntzaren aldeko PROPOSAMENAK:

Edozein herriako eskolak bai hizkuntza mintzatua eta baita hizkuntza idatzia ere, landu beharko lituzke. Proposamenak hiru hizkuntza mailen inguruan datoz. Irakaskuntzan, etxeko euskarak, bizkaiera literarioak eta euskara batuak agertu behar dute.

¹¹ URUBURU, Laura: «Bizkaieraren egoera O.H.O. eta B.B.B. irakaskuntzan» *Bizkaieraren lekua gaur*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1992 eta GOIKOETXEA, J.M.: «Hamalau erantzun bizkaieraren irakaskuntzari», *Mendebaldeko Kultur Elkartea xx. mende goi-ean*, Mendebalde Kultur Elkartea, 1997.

1. ETXEXO EUSKARA: hau bat-bateko egoeratan agertzen dena da, erregistro arrunta:
 - a) Ikaslea hizketaldian gustura eta motibatuta sentitu dadin.
 - b) Irakasleak ere aldakia badaki, ondoen dakien horretan jarduteko aukera izan dezan.
 - c) Etxeko euskara prestigiatu eta zuzendu dadin eta ondorioz ikasleak bere hizkerarenganako harrotasuna senti dezan.
 - d) Komunikazioan etenik sor ez dadin. Horretarako euskarak herrian integratuta egon behar du.
 - e) Euskara biziaren eta eskolako euskararen artean inolako egoera diglosikorik sor ez dadin.
 - f) Euskararen egoera aztertuta, eredu arruntak aberatsenak izan litezke. Eskolak aintzat hartu behar ditu bizitasun iturriak iraun dezan.
 - g) Azkenik euskararen etorkizuna komunikazio bizian dagoelako.
2. BIZKAIERA LITERARIOA: bizkaiera finkatua, zaindua:
 - a) Etxeko hizkera eskolatik pasatuz gero, estandartze prozesua jasaten duelako.
 - b) Bertako euskara jantzia ezagutzeko eta harekiko lotura sortzeko.
 - c) Etxeko hizkuntzaren sistema (gramatika) erraztasun handiagoz ezagutzeko eta bide batez, hizkuntza idatzia hobeto ezagutzeko aukera ematen duelako.
 - d) Herri jakin bateko euskara eta euskara batuaren arteko zubia leunagoa eta egokiagoa izan dadin.
 - e) Jatorriz euskaldunak ez diren hurrek herriko hizkuntza arrunt horrekin harremana izaterakoan, bizkaiera literarioak bidea erraztu eta erabilbidean jartzeko aukerak eman ditza-keelako.
 - f) Eskolatzekoan, herri ezberdinetako hurrek hobeto elkar ulertzeko aukera dutelako.
3. EUSKARA BATUA: Euskal Herri osoko euskara normatiboa:
 - a) Euskal Herri osoko kultur hizkuntza delako.
 - b) Euskara batuak sistema osoa eta osatuaren ikuspegia eman behar duelako.
 - c) Azken urteotako zabalkundearen ondorioz, idatziz agertu diren lanik gehienak batuaz idatzi direlako.
 - d) Beste euskalkietako jendearekin eta euskaldun berriekin ondo elkar ulertzeko.

4.3.4. ONDORIOAK

Hasierako urteetan, hezkuntza bizkaieraren inguruan bideratu beharko litzateke. Gero, apurka-apurka, gaiak eta irakasleak aldatuz doazen heinean, baturanzko bidea hartu beharko litzateke.

1. *Zein kalte ekar liezaioke haur edo gazteari bizkaieraz ez ikasteak?*
 - a) Haurra/gaztea ez da fenomeno isolatua. Ingurune zehatz batekin harremanak ditu eta gerta liteke ingurune honek bizkaieraz bizitzea egunerokotasuna.
 - b) Euskara artifiziala, monotonoa sortzeko arriskua dago.
 - c) Kalterik larrienak erdal jatorriko haurrek jasaten dituzte. Euren ahozko hizkuntza euskal eskola kideen jardunetan entzundakoan oinarritzen da, komunikazioan ikasi dute. Baina haur hauek ez dute hizkera etxean lantzeko aukerarik. Beraz, erdal jatorriko haurrek, haur euskaldunen hizkuntza-egoeraren ondorioak jasaten dituzte.
 - d) Eredu batetik bestera igarotzeko erraztasuna badu, zein kalte le-karkio?
2. *Mesedegarri izan liezaioke bizkaiera ikasleari?*
 - a) Bizkaierarekin batera, batua ere badaki. Hau ez da gertatzen batua bakarrik ikasten dutenengan.
 - b) Bizkaieraren (etxeko hizkeraren) inguruan erreflexioak egiteko aukera du.
 - c) Bizkaiera literarioak zubi funtzioa egiten du batuaren irakaskuntzan.

5. Metodologia

5.1. Aurkezpena

Oso garrantzitsua da metodologia zuzen bat erabiltzea. Edozein azterketatan datuek garrantzi handia dute, txarto eginiko lan batek teoria onartezinak eskainiko baititu.

Datuen bilketa lana zuzena izan da eta bide bi erabili ditut: elkarriketa eta galdesorta.

Elkarriketa eta galdesortaren arteko ezberdintasun nagusi biak hauek dira: batetik, galdesortak informante guztiei aurrez finkaturiko galdera multzo berdina eskaini behar die; elkarriketan ez da derrigo-

rrzeko premisa. Eta bestetik, galdesortak ez du informantearekin zuzeneko harremana eskatzen.

Elkarrizketari helduz, zuzeneko bidea erabili dut. Honek galdesortarekin erlazioa du. Informanteei (irakasleak) aurrez finkaturiko galderak igorri dizkiet. Galderak bi motatakoak izan dira. Batzuk zuzenean erantzutekoak eta besteek galderaren amaiera irekia uzten dute irakasleak gaiaren inguruan bere iritzia eman dezan.

Nire asmoa, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoko hamar bat irakasleri elkarrizketa egitea zen. Hala ere, irakasleen denbora falta dela eta, DBH-ko 3. eta 4. mailetan eta Batxilergoan baino ezin izan ditut egin.

Egia da, elkarrizketako eta galdesortako galderak oso antzekoak izan direla. Hala ere, galdesorta ni aurrean nengoela egin dute eta bide batez, elkarrizketa formala egiteko aukera izan ez badut ere, elkarrizketan jaso nahi nituen iritzien inguruan hitz egiteko aukera izan dut.

Galdesortari dagokionez oster, irakasle eta ikasleek egin dituzte. Maila guztietako irakasleek izan dute galdesorta egiteko aukera. Hemen ere, denbora edo gogo falta bitarteko dela, ezin izan dut irakasle guztien iritzia jaso. Hala ere, gehienak laguntzeko prest agertu dira.

Galdesortan beraz, irakasleekin zuzeneko harremana izan dut. Honek galdesortan arazoren bat argitzeko aukera eman dit. Ikasleekin ordea, ez dut zuzeneko harremanik izan. Hala ere, aldeztatik irakasleekin hitz egin nuen interpretazio arazorik sor ez zedin.

5.2. *Laginketaren azterketa*

Azter dezagun lehendabizi galdesorta, honek izan baitu pisurik gehien eta. Guztira *ehun eta laurogeita hamazortzi* inkesta egin ditut.

Irakasleei zuzenduriko galdesortak mailaka banandu ditut. Ez dut irizpide bera erabili maila guztietan. Hau horrela izanik, lau atal bereiztu ditut:

1. Haur Hezkuntza.
2. Lehen Hezkuntza.
3. DBH 1 eta 2.
4. DBH 3 eta 4 eta Batxilergoa.

Bereizketa hau egin dut ez baita bidezkoa maila guztietan galdera mota berdinak egitea, maila bakoitzean hizkuntzak funtzio ezberdinak baititu. Eta aldakien presentzia ere ez da maila guztietan berdina.

Galdesorten kopuruari dagokionez, *hogeita hamahiru* irakaslek egin dute inkesta. Baina zehaztuz:

1. Haur Hezkuntzan zortzi inkesta egin dira.
2. Lehen Hezkuntzan ere zortzi izan dira eginikoak.
3. DBH 1 eta 2an zazpi inkesta.
4. DBH 3 eta 4 eta Batxilergoan hamar.

Ikasleen artean ordea, ehun eta hirurogeita bostek egin dute inkesta. Ikasle hauek DBH-ko 4. mailakoak eta Batxilergokoak izan dira. Galdesorta goi maila hauetan baino ez dut burutu. Berez, goi maila hauetan hartzen baitute ikasleek aldaera ezberdinen kontzientzia. Hala ere, gainontzeko mailetakako ikasleen hizkuntza funtzioak irakasleen iritzietan jasoak geratu dira.

Azkenik, elkarrizketa formala hiru irakasleri egin diet. Irakasle hauek DBH 3, 4 eta Batxilergokoak izan dira.

5.3. Galdesortaren ezaugarriak

Gorago aipatu dudan legez, ez dut irizpide bera erabili galdesorta egiterakoan. Eta horrez gain, bai irakasleek eta bai ikasleek egin dute. Beraz, hurrengo sailkapena argigarria izango da galdesortaren ezaugarriak aztertzeko.

1. IKASLEAK: galdesorta hemeretzi galderez osotua dago eta gaien banaketa hau izango litzateke.
 1. *Adina.*
 2. *Euskara eta aldaeren erabilera eta aukeraketa harreman sarean: 1-10 galderak.*
 3. *Hizkuntzak eskolan bete ditzakeen funtzioen aurrean aukeraturiko aldaera: 11-15 galderak.*
 4. *Bizkaiera eta batuaren arteko ezberdintasunaren aurrean agertzen duten kontzientzia: 16. galdera.*
 5. *Batua ikasi eta gero, zein aldaki hobesten duten: 17-18 galderak.*
 6. *Ikastolatik kanpo nagusitzen den aldaera: 19. galdera.*
2. IRAKASLEAK: hemen hiru atal bananduko ditugu.
 - 2.1. *Haur Hezkuntza:* hamahiru galdera dira guztira.
 1. *Irakaslearen ama hizkuntza eta orokorrean darabilen aldaera: 1-2 galderak.*
 2. *Haurren hizkerak ikasgelan duen tokia: 3-5 galderak.*
 3. *Haurrari hizentzerakoan irakasleak darabilen aldaera: 6. galdera.*

4. *Haurrak etxetik dakarren aldaeraren aurrean irakasleak agertzen duen irizpidea: 7-13 galderak.*
- 2.2. *Lehen Hezkuntza eta DBH 1 eta 2: hamalau galdera dira guztira.*
 1. *Irakaslearen ama hizkuntza eta orokorrean darabilen aldaera: 1-2 galderak*
 2. *Irakasleak ikasgelan eta kanpoan egiten duen aldaera aukeraketa: 3-9 galderak.*
 3. *Irakasleak ikasleak erabiltzen duen aldaeraren arabera susmoa edo ustea: 10-14 galderak.*
- 2.3. *DBH 3 eta 4 eta Batxilergoa: guztira hemeretzi galdera.*
 1. *Irakaslearen ama hizkuntza eta orokorrean darabilen aldaera: 1-2 galderak.*
 2. *Irakasleak ikasgelan eta kanpoan egiten duen aldaera aukeraketa: 3-9 galderak.*
 3. *Irakasleak ikasleak erabiltzen duen aldaeraren arabera susmoa edo ustea: 10-19 galderak.*

6. Materialaren azterketa

6.1. Terminologia zedarriztapena

Lanaren helburuetariko bat dialektobitasuna edo aldaera aniztasuna dagoen neurtzea izan da.

Ikastolan hiru hizkuntza maila nagusitzen dira: batetik *bizkaiera arrunta* dago, erregistro arrunta eta orokorrean bat-bateko egoeretan agertzen dena. Aldi berean, bizkaiera landuago bat bereiztu beharko genuke; hizkera honi *bizkaiera-batua* deituko diogu. Eta azkenik, aldagai estandarra, normalizatua, *euskara batua* legoke.

Urrunago joan aurretik, aldaera legez deitu ditudan hiru hauek definitzea komeni da.

Orokorrean, *bizkaiera* diodanean zera adierazi nahi dut: Bizkaiko euskaldungo nagusiak jatorriz jakin eta erabiltzen duen euskalkia. Euskara osatzen duten euskalki bizietariko bat eta bere baitan aldaera ezberdinak dituen.

Beste edozein hizkuntza legez, erabilera erregistro ezberdinetan agertzen da.

Edozein hiztun arruntek, bere hizkuntza konpetentziaren arabera, *bi hizkuntza maila* bereiz ditzake gutxienez, Bizkaiko euskaldun batek

bizkaiera jantzia, prestigiozkoa batetik (lanean bizkaiera-batua legez definitu duguna) eta herriko hizkera, bizkaiera arrunta bestetik.

Hizkuntza arrunta, etxeko, kaleko, bat-bateko esparruekin lotuta dago, egoera arrunt guztietan erabiltzen den euskara. Batez ere, ahozko erabilerari atxikirik dagoena. Hala ere, idatzi mailan ere erabil daitekeena.

Bizkaiera jantzia, bestalde, egoera berezietara mugaturiko hizkuntza da. Etxekoa eta egunerokoa ez den egoera eta giza maila prestigio-tsuetarako egokitzen jotzen dena.

Hizkera arrunta *bizkaiera* izenpean agertuko da. Bizkaiera zaindua, ostera, esan dudana legez, *bizkaiera-batua* legez definitu dut.

Bestetik, hizkuntza jantzia eta formala ez da erabat normatiboa. Normatiboa azken baten, Akademia edo beste erakunde batek hartutako erabakietan oinarritzen da, baina ez ditu norma diren erabilera guztiak jasotzen. Hizkuntza normatibo legez *euskara batua* definituko dut.

Laburbilduz, nik lanean aurkeztu ditudan hiru aldaerak bizkaiera, bizkaiera-batua eta batua dira.

Hala ere, galdesortan eta elkarrizketetan datu gehiago jaso ditut. Eta bai ikasle, bai irakasleek interferentziadun jardunak agertu dituzte. Interferentzia hauek hiru aldaeren artekoak izango dira eta galdesortan eta azterketa lanean, zenbaki erromatarren bidez adierazita agertuko dira. Hots:

I: *Batua* eta *bizkaieraren* arteko interferentziak.

II: *Batua* eta *bizkaiera-batuaren* arteko interferentziak.

III: *Bizkaiera* eta *bizkaiera-batuaren* arteko interferentziak.

6.2. Galdesortaren material azterketa

Galdesorta irakasle eta ikasleei egin zaiela kontuan hartuz, azterketa ere bi parametro hauen bereizketarekin hasiko dut:

6.2.1. IRAKASLEAK

Aipatu dugun legez, kontuan izanik, hezkuntza prozesu osoan ez dela irizpide bera erabiltzen, lau atal bereizi ditugu:

1. Haur hezkuntza.
2. Lehen hezkuntza
3. DBH 1 eta 2.
4. DBH 3, 4 eta Batxilergoa.

6.2.1.1. Haur Hezkuntza

1. *Irakaslearen ama hizkuntza eta orokorrean darabilen aldaera*

Irakasleen %67k euskara du ama hizkuntzatzat. Eta %33ren ama hizkuntza gaztelania den arren, guztiek erabiltzen dute orokorrean bizkaiera eguneroko komunikazioan. Ikus 1. Taula.

1. Taula

	Euskera	Gaztel	Beste		Batua	Biz	Gip	Beste
1. Zein da zure ama hizkuntza?	%67	%33	—	2. Zein aldaeratan egiten dozu orokorrean berba?	—	%100	—	—

2. *Haurraren hizkerak ikasgelan duen tokia*

Haurrak etxetik dakarren hizkerak ikasgelan tokirik duen galdetu zaienean iritzi ezberdinak agertu dituzte. %43k baietz esan du eta %57k ostera, ezetz.

Ezetz erantzun dutenen artean, agertu duten arrazoia beti bizkaieraz egiten dutela da. Ikus 2. Taula.

2. Taula

3. Haurrak etxetik dakarren hizkuntzak badau tokirik ikasgelan?	Bai	Ez
	%43	%57

	Batua	Biz	B-B	Beste
4. Zein?			X	
5. Zergaitik?	(Bizkaieraz egiten dogulako beti)			

3. *Haurrari zuzentzerakoan irakasleak darabilen aldaera*

Haurrari berba egiterakoan zein aldaera erabiltzen duten galdetu zaienean, bizkaiera da agertu duten aldaera. Hala ere, %62k etxeko bizkaiera edo bizkaiera biziago bat aukeratu duen arren, %38k bizkaiera-batua erabiltzen du haurrekin harremanak izateko. Ikus 3. Taula.

3. Taula

	Batua	Biz	B-B	Beste
6. Zein da haurrari berba egiten deutozunean erabiltzen dozun aldaera?	—	%62	%38	—

4. *Haurrak etxetik dakarren aldaeraren aurrean irakasleak agertzen duen irizpidea*

Haurrak etxetik dakarren aldaeraren aurrean %71k ez du jokabide bera erabiltzen.

Haurrak etxetik ekar ditzakeen aldaeren artean hiru dira aukeratu direnak: bizkaiera, batua eta gaztelania. Aldaerak aldaera, %57k beti bizkaieraz egingo du haurrarekin, %43k ostera, bizkaiera batuaz.

%43k ez du aldaeraz aldatzen ikasgelan egin ditzakeen ekintzen araberak. Eta honi ematen dion arrazoia da beti bizkaieraz egiten dutela.

%57k ostera, aldaera ezberdinetara jotzen du ekintzaren arabera. Kontuan eduki beharrekoa da aurreko datuetan agertu duten legez, bizkaiera eta bizkaiera-batua direla posible diren aldaki bakarrek. Hauek, jolas garaian bizkaiera biziago bat erabiliko dute; eta haurrekin landu beharreko ariketetan bizkaiera-batua. Ikus 4. Taula.

4. Taula

	Bai	Ez
7. Jokabide edo hizkuntza aldaera bera darabilzu haurrak etxetik dakarren aldaeraren aurrean?	%29	%71

	Batua	Biz	B-B	Beste
8. Bizkaiera etxetik ekarritz gero, zuk zeuk zein erabiltzen dozu?	—	%57	%43	—
9. Eta batua badakar?	—	%57	%43	—
10. Eta gaztelania?	—	%57	%43	—

11. Aldaeraz aldatzen al dozu ikasgelan egiten zabiltzan ekintzaren arabera?	Bai	Ez
	%43	%57
12. Zergaitik?	(Bizkaieraz egiten dogulako beti)	
13. Zein ekintzetan?	(Jolasetan)	

6.2.1.2. Lehen Hezkuntza

1. *Irakaslearen ama hizkuntza eta orokorrean darabilen aldaera*

Irakasleen %50ren ama hizkuntza euskara da. Eta orokorrean guztiek erabiliko dute bizkaiera. Ikus 5. Taula.

5. Taula

1. Zein da zure ama hizkuntza?	Euskera	Gaztel	Beste	2. Zein aldaeratan egiten dozu orokorrean berba?	Batua	Biz	Gip	Beste
	%50	%50	—		—	%100	—	—

2. *Irakasleak ikasgelan eta kanpoan egiten duen aldaera aukeraketa*

Ahazkotasunari dagozkion egoerak aztertuz, bat-bateko hizkuntza sortzen denean, irakasleek irizpide ezberdinak erabiltzen dituzte: %80ak bizkaiera darabil eta %20ak bizkaiera-batua. Bizkaiera erabiltzearen aldeko agertzen dira. Horrela, irakasle batek bosgarren galderari horrela erantzuten dio: «*Bizkaieraren aldekoa naz, uste dodalako gure ama hizkuntza indartu behar dogula*».

Ikasgelan gaia azaltzen daudenean bizkaiera da nagusitzen den aldaera. Eta horrez gain, bizkaiera-batua agertuko da maila baxuago baten.

Klasetik kanpoko harremanetan, irakasle guztiek bizkaieraz egiten diote ikasleari eta euren artean (irakasleen artean) ere bizkaiera da agertuko den aldaera bakarra.

Idatziz guztiek erabiliko dute irizpide bera; hots, ariketak prestatzerakoan, arbelean idazterakoan eta abar, guztiek bizkaiera-batua erabiliko dute. Ikus 6. Taula.

6. Taula

3. Bat-bateko hizkuntzak badau tokirik zure ikasgelan?	Bai		Ez	
	%100		—	

	Batua	Bizkaiera	B-B	
4. Gertatzen danean, zein da zuk erabiltzen dozun aldaera?	—	%80	%20	
5. Nahi izanez gero, arrazoiak emon.	(Bizkaieraren aldekoa naz, uste dodalako gure ama hizkuntza indartu behar dogula)			

6. Ikasgelan gaia azaltzen dozunean, zein da erabiltzen dozun aldaera?	Batua	Bizkaiera	B-B	Gipuzkera
	—	%80	%20	—
	Batua	Bizkaiera	B-B	Gipuzkera
7. Klasetik kanpo, zein da ikasleari zuzentzerakoan darabilzun aldaera?	—	%100	—	—
	Batua	Bizkaiera	B-B	Gipuzkera
8. Eta zure lankideekaz?	—	%100	—	—
	Batua	Bizkaiera	B-B	Gipuzkera
9. Ariketak prestatzen dozuzanean, zein da idatziz agertzen dozun aldaera?	—	%100	—	—

3. *Irakasleak ikasleak erabiltzen duen aldaeraren arabera susmoa edo ustea*

Irakasleen ustetan, bai ahozko, zein idatzizko jardunetan ikaslearengan nagusitzen den aldaera bizkaiera-batua da.

Zehatzago azalduz, *ikasleak irakasleari zerbait galdetu* gura diotenean, irakasleek erantzun dute ikasleen %13k bizkaiera aukeratzen duela; %74k bizkaiera-batua eta %43k interferentziak agertzen dituztela. Nahasketa hauek batua eta bizkaieraren artekoak (%14) eta bizkaiera eta bizkaiera-batuaren artekoak (%29) dira.

Ikasleak *bat-bateko elkarriketa* sortzen duenean, bizkaiera (%29) eta bizkaiera-batua (%29) erabiliko du batez ere. Hemen ere, interfe-

rentziak agertuko dira: %14k batua eta bizkaieraren arteko nahasketa bat egingo du eta %28k bizkaiera eta bizkaiera-batuaren artekoa.

Gaiaren inguruan zerbait galdetu edo gehitu nahi duenean ere, aukeraketa antzerakoa da: %29k bizkaiera aukeratuko du eta %29k ere, bizkaiera-batua. Interferentziei dagokienez, batua eta bizkaiera %28k nahastuko du eta bizkaiera eta bizkaiera-batua %14k.

Ikasleak *ahozko aurkezpen* bat egin behar duenean, %28k bizkaiera-batua erabiliko du eta %14k bizkaiera. Hemen ere interferentzien agerpena emango da:

- I: Batua eta bizkaiera (%29).
- II: Batua eta Bizkaiera-batua (%29).

Eta azkenik, *idatzizko eredu*etan, bizkaiera-batua da nabarmenduko dena (%71). Hala eta guztiz ere, batua eta bizkaiera-batuaren arteko nahasketa emango da (%29). Ikus 7. Taula.

7. Taula

	Batua	Bizkaiera	B-B	Gipuz	I	III
10. Ikasleak zerbait galdetu gura deutsunean, zein da orokorrean erabiltzen dauan aldaera?	—	%13	%74	—	%13	—
11. Eta ikasleak bat-bateko elkarrizketa sortzen dauanean?	—	%13	%74	—	%13	—
12. Eta gaiaren inguruan berbetan dagoanean, zein aldaera darabil?	—	%13	%49	—	%25	%13
13. Ikasleak ahozko aurkezpenak egiten dauazanean, zein da darabilen aldaera?	—	%13	%49	—	%25	%13
14. Eta idazlanetan, edo idatzizko ariketa edo azterketatan?	—	—	%74	—	%11	%11

6.2.1.3. DBH 1 eta 2

1. *Irakaslearen ama hizkuntza eta orokorrean darabilen aldaera*

Irakasleen %71ren ama-hizkuntza euskara da eta %29rena gaztelania. Bereizketa hau ere, aldaera aukeraketan igarri daiteke. Horrela, euskara ama-hizkuntza dutenek bizkaiera aldaera aukeratuko dute eguneroko jardunetarako. Gaztelania ama-hizkuntza dutenek ostera, batua. Ikus 8. Taula.

8. Taula

	Euskera	Gaztel	Beste		Batua	Biz	Gip	Beste
1. Zein da zure ama hizkuntza?	%71	%29	—	2. Zein aldaeratan egiten dozu orokorrean berba?	%29	%71	—	—

2. *Irakasleak ikasgelan eta kanpoan egiten duen aldaera aukeraketa*

Ikasgelan sortu daitekeen *bat-bateko hizkuntzaren* aurrean ere, aurreko atalean ikusi dugun banaketa bera islatuko da. Horrela izanik, %71k bizkaiera bultzatuko du eta %29k hobeto moldatzen diren horretan egingo dute: batuaz.

Ikasgelan *gaia azaltzerako* orduan, irizpideak hedatu egiten dira. %49k bizkaiera erabiliko du, %38k bizkaiera-baturako bidea hobetsiko du eta azkenik, %13k batua erabiliko du.

Ikasgelatik kanpo, ikasleei %57k bizkaieraz zuzenduko dio berbaldia; %29k bizkaiera-batuaz eta %14k batuaz. Lankideekin orde, bizkaiera da nagusituko dena. Eta portzentajeak bat datoz orokorrean egiten duten aldaera aukeraketarekin.

Idatziz ere, ahoz erabiltzen duten irizpide bera jarraituko dute: %71k bizkaiera-batu bat erabiliko du eta %29k batua. Ikus 9. Taula.

9. Taula

	Bai	Ez
3. Bat-bateko hizkuntzak badau tokirik zure ikasgelan?	%100	—

4. Gertatzen danean, zein da zuk erabiltzen dozun aldaera?	Batua	Bizkaiera	B-B	III
	%29	%71	—	—
5. Nahi izanez gero, arrazoiak emon.				
6. Ikasgelan gaia azaltzen dozunean, zein da erabiltzen dozun aldaera?	Batua	Bizkaiera	B-B	Gipuzkera
	%13	%49	%38	—
7. Klasetik kanpo, zein da ikasleari zuzentzerakoan darabilzun aldaera?	Batua	Bizkaiera	B-B	Gipuzkera
	%14	%57	%29	—
8. Eta zure lankideekaz?	Batua	Bizkaiera	B-B	Gipuzkera
	%29	%71	—	—
9. Ariketak prestatzen dozuzanean, zein da idatziz agertzen dozun aldaera?	Batua	Bizkaiera	B-B	Gipuzkera
	%29	—	%71	—

3. *Irakasleak ikasleak erabiltzen duen aldaeraren arabera susmoa edo ustea*

Irakasleen aburuz, ikasleengan gehien nabarmentzen den aldaera bizkaiera-batua da, idatziz, zein ahoz. Hala ere, beste aldaerekiko aldea nahiko txikia da. Puntu honetan, interferentzien agerpena da zehaztu beharrekoa.

Ikasleak irakasleari *zerbait galdetzerakoan*, beti ere irakasleen us-teak jarraituz, %43k bizkaiera-batua darabil, %14k bizkaiera, %14k batua eta bizkaieraren arteko nahasketa eta %29k bizkaiera eta bizkaiera-batuaren artekoa.

Ikasleak *bat-bateko elkarrizketetan* parte hartzen duenean, %29k bizkaiera erabiliko du eta parean bizkaiera-batua agertuko da (%29). Interferentzien artean:

- I: Batua eta Bizkaiera (%14).
- II: Bizkaiera eta Bizkaiera-batua (%28).

Gaiaren inguruan berbetan dagoenean ere bizkaiera eta bizkaiera-batua parekaturik egongo dira. Eta interferentziei dagokienez: %28k batua eta bizkaiera nahastuko ditu eta %14k bizkaiera eta bizkaiera-batua.

Ikasgelan *lanen bat aurkeztu* behar dutenean, %28k bizkaiera-batua erabiliko du eta %14k bizkaiera. %29k batua eta bizkaiera nahastuko ditu eta batua eta bizkaiera-batuaren arteko nahasketa ere agertuko da (%29).

Azkenik, *idatziz* nagusituko den aldaera bizkaiera-batua izango da (%71) eta maila baxuago baten batua eta bizkaiera-batuaren arteko nahasketa agertuko da ikasleen idatz ereduetan. Ikus 10. Taula.

10. Taula

	Batua	Bizkaiera	B-B	Gipuz	I	III
10. Ikasleak zerbait galdetu gura deutsunean, zein da orokorrean erabiltzen dauan aldaera?	—	%14	%43	—	%14	%29
	Batua	Bizkaiera	B-B	Gipuz	I	III
11. Eta ikasleak bat-bateko elkarrizketa sortzen dauanean?	—	%29	%29	—	%14	%28
	Batua	Bizkaiera	B-B	Gipuz	I	III
12. Eta gaiaren inguruan berbetan dagoanean, zein aldaera darabil?	—	%29	%29	—	%28	%14
	Batua	Bizkaiera	B-B	Gipuz	I	II
13. Ikasleak ahozko aurkezpenak egiten dauazanean, zein da darabilen aldaera?	—	%14	%28	—	%29	%29
	Batua	Bizkaiera	B-B	Gipuz	I	II
14. Eta idazlanetan, edo idatzizko ariketa edo azterketatan?	—	—	%71	—	—	%29

6.2.1.4. DBH 3 eta 4 eta Batxillergoa

1. *Irakaslearen ama hizkuntza eta orokorrean darabilen aldaera*

Irakasleen %90ren ama hizkuntza euskara da eta euretatik %70ak bizkaiera erabiliko du orokorrean. Ikus 11. Taula.

11. Taula

	Euskera	Gaztel	Beste		Batua	Biz	Gip	Beste
1. Zein da zure ama hizkuntza?	%90	%10	—	2. Zein aldaeratan egiten dozu orokorrean berba?	%30	%70	—	—

2. Irakasleak ikasgelan eta kanpoan egiten duen aldaera aukeraketa

Bat-bateko hizkuntza sortzen denean %50ek bizkaiera erabiltzen du. Hala ere, batuarekiko aldea ez da hain handia, %40koa baita portzentajea. Ikasgelan *gaia azaltzen* daudenean batua da nagusitzen den aldaera (%75). %25ek bizkaiera-batua erabiliko du azalpenak bideratzeko. *Lankideekin* ostera, bizkaiera da nagusitzen dena. *Idatzizko* ereduetan ostera, batua da nagusitzen dena. %90ek batua erabiliko du; %10ek bizkaiera-batua. Ikus 12. Taula.

12. Taula

3. Bat-bateko hizkuntzak badau tokirik zure ikasgelan?	Bai		Ez	
	%90		%10	

4. Gertatzen danean, zein da zuk erabiltzen dozun aldaera?	Batua	Bizkaiera	B-B	Gipuzkera
	%40	%50	%10	—

5. Nahi izanez gero, arrazoiak emon.	(Ikasleekin ikastolan dauden bitartean batuaz egiten dut)			
--------------------------------------	---	--	--	--

6. Ikasgelan gaia azaltzen dozunean, zein da erabiltzen dozun aldaera?	Batua	Bizkaiera	B-B	Gipuzkera
	%75	—	%25	—

7. Klasetik kanpo, zein da ikasleari zuzentzerakoan darabilzun aldaera?	Batua	Bizkaiera	B-B	Gipuzkera
	%30	%70	—	—

8. Eta zure lankideekaz?	Batua	Bizkaiera	B-B	Gipuzkera
	%30	%70	—	—
9. Ariketak prestatzen dozunean, zein da idatziz agertzen dozun aldaera?	Batua	Bizkaiera	B-B	Gipuzkera
	%90	—	%10	—

3. *Irakasleak ikasleak erabiltzen duen aldaeraren arabera susmoa edo ustea*

Sail honetan irakasleek ikasleen jardunaren inguruan dituzten usteak jaso ditugu.

Ikasleak irakasleari *zerbait galdetu* nahi dionean, %45ek batua erabiliko duela dio, %22k bizkaiera batua, %11k bizkaiera eta beste %11 batek batua eta bizkaiera nahasten ditu. Galdera honetan, datu interesgarri bat agertu zaigu. Irakasleek euskañola aipatuko dute lehenengoz ikasleen jardunean (%11).

Ikasleek *bat-bateko elkarrizketa* sortzen dutenean, %40k bizkaiera-batua aukeratuko du irakasleek aipatu dutenez. Batua (%20) eta bizkaiera (%20) parekatu agertuko dira. %10ek batua eta bizkaiera nahastuko ditu eta hemen ere, euskañola agertuko da (%10).

Gaiaren inguruko jardunean, %40k batua erabiliko du, %30ek batua eta bizkaiera nahastuko ditu, %20k bizkaiera-batua erabiliko du eta azkenik maila baxuago baten bizkaiera agertuko da (%10).

Ahozko aurkezpenak egiterakoan ere, batua da nagusituko dena (%50). %20k batua eta bizkaiera-batua nahastuko ditu. Eta horrez gain, bizkaiera (%10), batua eta bizkaieraren arteko nahasketa (%10) eta bizkaiera eta bizkaiera-batua (%10) agertuko dira.

Idatzizko ereduetan batua da gailenduko dena (%49). %26k bizkaiera-batuz idatziko du eta %25ek interferentziadun idazketa erabiliko du, hots, batua eta bizkaiera-batua nahastuko ditu.

Behin batua ikasi edo ikasten daudela, batua izango da sarrien erabiliko duten aldaera. Hau batez ere, egoera formalekin lotuta agertuko da.

Idazketa tresna komunikazio legeaz erabiltzen dutenean:

- %60k batua.
- %10ek bizkaiera-batua.
- %30ek batua eta bizkaiera-batuaren arteko nahasketa.

Eta *ahoz lanak* aurkeztu behar dituztenean:

- %40k batua.
- %30ek batua eta bizkaieraren arteko nahasketa.
- %10ek bizkaiera.
- %10ek bizkaiera-batua.
- %10ek bizkaiera eta bizkaiera-batua.

Egoera informalagoetan ostera, bizkaiera-batua da nagusituko dena. Horrela, *bat-bateko elkarrizketa* sortzen denean, bizkaiera-batua nagusituko da (%40). Gero bizkaiera (%20) eta batua (%20) agertuko dira.

Eta *euren arteko harremanak* gauzatzerako orduan, gaztelania da nabarmenduko dena. Argi dago gazteek gaztelaniaz bizi dutela egunerokotasuna. Horrez gain, bizkaiera-batua (%30), bizkaiera (%10) eta batua (%10) agertuko dira. Ikus 13. Taula.

13. Taula

	Batua	Bizk	B-B	G	I	Euskañol	III
10. Ikasleak zerbait galdetu gura deutsunean, zein da orokorrean erabiltzen dauan aldaera?	%45	%11	%22	—	%11	%11	—
11. Eta ikasleak bat-bateko elkarrizketa sortzen dauanean?	Batua	Bizk	B-B	G	I	Euskañol	III
	%20	%20	%40	—	%10	%10	—
12. Eta gaiaren inguruan berbetan dagoanean, zein aldaera darabil?	Batua	Bizk	B-B	G	I	II	III
	%40	%10	%20	—	%30	—	—
13. Ikasleak ahozko aurkezpenak egiten dauazanean, zein da darabilen aldaera?	Batua	Bizk	B-B	G	I	II	III
	%50	—	%10	—	%10	%20	%10
14. Eta idazlanetan, edo idatzizko ariketa edo azterketatan?	Batua	Bizk	B-B	G	I	II	III
	%49	—	%26	—	—	%25	—

Batua ikasi eta gero, edo ikasten ari direla

15. Zein da ikasleek sarrien erabiltzen dabean aldaera?	Batua	Bizk	B—B	G	I	II	III
	%40	%10	%20	—	%20	—	%10
16. Idazketa komunikazio tresna legez darabilenean, zein aldaera erabiltzen dau ikasleak?	Batua	Bizk	B—B	G	I	II	III
	%60	—	%10	—	—	%30	—
17. Eta bat-bateko elkarriketan?	Batua	Bizk	B—B	G	I	II	III
	%20	%20	%40	—	%10	—	%10
18. Eta ahoz lanak aurkezterakoan?	Batua	Bizk	B—B	G	I	II	III
	%40	%10	%10	—	%30	—	%10

19. Eta euren artean?	Batua	Bizkaiera	B-B	Gaztelania
	%10	%10	%30	%50

6.2.2. IKASLEAK

1. *Adina*

Galdesorta DBHko 4.mailako eta Batxilergoko ikasleen artean burutu da. Bataz besteko adina 15 eta 19 bitartean dago.

2. *Euskara eta aldaeren erabilera eta aukeraketa harreman sarean*

Atal honetan, gazteen harreman sarean, hizkuntza eta aldakien erabilera eta aukeraketa neurtu nahi izan da. Harreman sare honetan, gurasoak, aitite-amamak eta lagunak hartu dira kontuan.

Bi galdera mota zuzendu zaizkie atal honi dagozkionak aztertzeko. Batetik, gazteei euren ama hizkuntzaren inguruan galdetu zaie. Hau kontuan izanik, harreman sare horretako partaideekin zein hizkuntzatan bizi duten egunerokotasuna neurtu nahi izan da. Bestetik, aukeraturiko erantzuna euskara izan bada, zein aldaeratan mintzo diren galdetu zaie. Aukerak batua, bizkaiera, gipuzkera eta besteren bat izan direlarik.

Emaitzak aztertuz, hel diezaiogun lehendabizi harreman sare horretan egiten duten hizkuntza aukeraketari. Gehienek gaztelania dute ama hizkuntza; beraz, gaztelania erabiltzen dute komunikazio hizkuntza legez. Euskara eta gaztelaniaren arteko portzentajeak nahiko altuak dira. Ikus 14. Taula.

Bestetik, euskara hizkuntza aukeratu dutenen artean bizkaiera da nagusitu den aldakia.

Ama hizkuntza euskara duten gazteen %40ak orokorrean bizkaieraz egiten duela aitortzen du. Hala ere, batuarekiko aldea ez da hain nabarmena, %38. Horrez gain, beste aldaera bi agertzen zaizkigu: gipuzkera eta nafarrera. Eta datu berezi legez %1ak berbaldian, batua eta bizkaiera nahasten duela dio.

Laburbilduz, familia eta lagun arteko harremanetan nagusituko den aldaera bizkaiera izango da.

14. Taula

	Euskera	Gaztel	Beste		Ba ¹²	Bi ¹³	Gi ¹⁴	Be ¹⁵	I ¹⁶
1. Zein da zure ama hizkuntza?	%28	%72	—	2. Zein aldaeratan egiten dozu orokorrean berba?	%38	%40	%3	%18	%1
3. Aitagaz zelan egiten dozu berba?	%21	%72	—	4. Zein aldaeratan egiten dozue berba?	Ba	Bi	Gi	Be ¹⁷	I
					%32	%59	—	%3	%6
5. Amagaz zelan egiten dozu berba?	%18	%82	—	6. Zein aldaeratan egiten dozue berba?	Ba	Bi	Gi	Be	I
					%30	%63	%7	—	—

¹² Batua.

¹³ Bizkaiera.

¹⁴ Gipuzkera.

¹⁵ Besteren bat

¹⁶ Nahasia I: Batua eta Bizkaieraren arteko nahasketa.

¹⁷ Nafarrera.

	Euskera	Gaztel	Beste		Ba	Bi	Gi	Be ¹⁸	I
7. Aitite- amamekaz zelan egiten dozu berba?	%30	%70	—	8. Zein aldaeratan egiten dozue berba?	%15	%75	%6	%2	%2
	Euskera	Gaztel	Beste		Ba	Bi	Gi	Be	I
9. Lagunekaz zelan egiten dozu berba?	%18	%82	—	10. Zein aldaeratan egiten dozue berba?	%23	%60	%7	—	%10

3. Hizkuntzak eskolan bete ditzakeen funtzioen aurrean aukeraturiko aldaera

Funtzioak ahozko eta idatzizko eremuetara mugatu dira.

Ahozkoak hartuz, egoera ezberdinak aztertu dira. Gazteek aldaera bi edo gehiago darabiltzatenean, argi dago ez dituztela egoera bertsuetan erabiltzen. Egoera edo hizketaldiko hartzailearen arabera aldaera bat edo bestea aukeratu dute.

Ahozkoan aurkeztu diren egoerak hauek dira:

1. Irakasleari zuzentzerakoan.
2. Bat-bateko elkarrizketan.
3. Ikasgaiaren inguruan zerbait esan edo galdetu nahi duenean.
4. Ariketa legeaz ikasgelan gairen bat azaldu behar duenean.

Eta azkenik idazterakoan zein aldaerataraz jotzen duten galdetu zaie.

Emaitzetara joz, orokorrean, bai ahozko zein idatzizko ereduetan batua da nagusituko den aldaera. Hala ere, bat-bateko elkarrizketa sortzen denean, egoera informalago batekin lotu daitekeena, bizkaiera-batua nagusituko da. Ikus 15. Taula.

Aipagarria da aldi berean, ikasleek aurkezten dituzten aukera ezberdinak. Ikasle batzuk jakitun agertzen dira aldaeren erabileraren arteko nahasketan. Aldakien arteko interferentziak beraz, nabariak dira. Nahasketak hiru aldaki hauen artean ematen dira:

- I. Batuaren eta bizkaieraren artean.
- II. Batuaren eta bizkaiera-batuaren artean.
- III. Bizkaiera eta bizkaiera-batuaren artean.

¹⁸ Nafarrera.

15. Taula

11. Irakasleari zerbait galdetu gura deutozunean, zein da orokorrean erabiltzen dozun aldaera?	Batua	Bizk	B-B ¹⁹	Gip	Beste	I ²⁰	II ²¹	III ²²
	%39	%23	%29	—	—	%7	%2	—
12. Zein da bat-bateko elkarriketan darabilzun aldaera?	Batua	Bizk	B-B	Gip	Beste	I	II	III
	%24	%24	%35	—	%9	%7	%1	—
13. Ikasgaiaren inguruan berbetan zagozanean, zein da darabilzun aldaera?	Batua	Bizk	B-B	Gip	Beste	I	II	III
	%55	%10	%27	—	—	%6	%2	—
14. Eta idazlanetan, azterketetan?	Batua	Bizk	B-B	Gip	Beste	I	II	III
	%55	—	%27	—	—	%9	%9	—
15. Ikaskideen aurrean ahoz lanen bat aurkeztu behar dozunean, zein da erabiltzen dozun aldaera?	Batua	Bizk	B-B	Gip	Beste	I	II	III
	%46	%11	%35	—	%1	%5	%1	%1

4. Bizkaiera eta batuaren arteko ezberdintasunaren aurrean agertzen duten kontzientzia

Ikasleen %66k batua eta bizkaiera ezberdintzen dakiela aitortzen du, ezetza agertzen duen %34aren aurrean. Ikus 16. Taula.

16. Taula

16. Badakizu bizkaiera eta batua ondo bereizten?	Bai	Ez
	%66	%34

¹⁹ Bizkaiera-Batua.
²⁰ Nahasia I: Batuaren eta Bizkaieraren arteko nahasketa.
²¹ Nahasia II: Batuaren eta Bizkaiera-Batuaren arteko nahasketa.
²² Nahasia III: Bizkaieraren eta Bizkaiera-Batuaren arteko nahasketa.

5. *Batua ikasi eta gero, zein aldaki hobesten duten*

Bi dira sail honetan bideratu zaizkien galderak.

Batetik, jakinda batua eta bizkaiera neurri batean behintzat badakitelatela edo ikasi dutela, komunikazio tresna legez zein hobesten duten galdetu zaie. %50ak batua aukeratu du. %30ek bizkaiera hobetsiko du jarduna bideratzeko eta %17k bizkaiera-batua. %3k ostera, interferentziadun hizketaldia agertzen du. Ikus 17. Taula.

17. Taula

	Batua	Bizk	B-B	Gip	Beste	I	II	III
17. Batua ikasi eta gero, zein aldaeratarata jotzen dozu sarrien?	%50	%30	%17	—	—	%2	%1	—
	Batua	Bizk	B-B	Gip	Beste	I	II	III
18. Egoera formal baten aurrean, zein aldaeratan egingo zeunke berba?	%66	%16	%13	—	%1	%2	%1	%1

6. *Ikastolatik kanpo nagusitzen den aldaera*

Ikastolatik kanpoko jardunetan zein aldaera erabiliko luketen galdetu zaienean, %82k gaztelania aukeratu du. Euskarak leku gutxi du gazteen eguneroko bizitza edo jardunetan. Eta maila apalago baten bizkaiera agertuko da (%7). Hau bat dator gorago ikusi dugun gazteen harreman sarean aztertutako emaitzekin. Ikus 18. Taula.

18. Taula

	Batua	Bizk	B-B	Gip	Gazte	Beste	I
19. Ikastolatik kanpo, zein da erabiltzen dozun aldaera?	%6	%7	%3	%1	%82	—	%1

6.3. *Elkarrizketetan jasoriko ideia nagusiak*

Elkarrizketetan eta irakasleekin solasaldian egon naizen bitartean bilduriko ideiarik nagusienak eta errepikatuenak hauek dira:

- a) Orokorrean ikasleen *hizkera oso pobrea* da, oso *erdalduna*.
- b) Lehen Hezkuntzan eta DBH 1 eta 2an batez ere, *kanpo fakto-reek* (telebista, irakur liburuak...) eragina izango dute euren hizkeretan. Horrela, batua bizkaierako jardunarekin nahastuko da.
- c) Euskal jatorriko haur baten hizkera erdal jatorriko batengan igarri daiteke. Baina salbuespentsuak dira.
- d) Nagusiek (DBH 3 eta 4 eta Batxilergoa) *idazterakoan baturako* bidea hartuko dute. Ahoz ostera, *erreferentzia* topatuz gero, *bizkaiera biziago* bat erabiliko dute. Ostantzean, *nahaste-borras-tea* islatuko da euren hizkeretan.
- e) *Batua ikasteak* ez dakar nahasketarik apurka-apurka joanez gero edo etxean euskara erreferentzia edukiz gero. Bestela, ikasleak bi urtez galdu samar egoten dira. Badakite batua eta bizkaiera daudela. Baina ez dakizkitez ondo bereizten.
- f) *Batxilergoan* hasiko dira batez ere, bizkaiera eta batua behar bezala bereizten.

7. Ondorioak

7.1. Hipotesien egiaztatzea

Fishman-ek eredu edo barrutiak²³ finkatu zituen: eskola, familia, salerosketa... Eta eremu bakoitza aldaera batekin lotuta agertuko zela baieztatu zuen. Horrela Eskola edo Hezkuntza lako eremuan aldagai funtzional jakina hitz egitea esperoko da. Euskal Herriaren kasuan, Eskola batua aldaerarekin lotuta agertuko dela pentsa genezake.

Aztergai dugun ikastolan, ordea, ez da premisa hau betetzen. Eremu jakinean, aldaera bat baino gehiago bizi baitira batera. Eta ezinezko izango da ikastola aldaera bakarrarekin identifikatzea; bakoitzak bere funtzioa beteko baitu.

Hasierako zehaztapen honen ondoren, atal honetan, aurkezturiko hipotesiak egiaztatzen diren ikusiko dugu. Kontuan hartuz hipotesien formulazioa mailaka eman dela, egoera ez baita maila guztietan berdina, hipotesiak egiaztatzeko ere bide mailakatu hau erabiliko dut.

²³ Ikus gorago 4.2. *Hizkuntza funtzioak eta aldagai funtzionalak* atala.

7.1.1. HAUR HEZKUNTZA

Haur Hezkuntzan esperientzia esparru ezberdinetan erabiliko den hizkuntza bakarra euskara izango da; abiapuntutzat, *familiako aldagaia*, bizkaiera hartuko delarik.

Jakina da haurrak hizkuntza harreman zuzenen bitartez eskuratzen duela. Lehenengo etxean, eta hiru urterekin eskolaren eragina nabaritzen hasiko da. Irakasle - ikasle arteko harreman zuzenak hizkuntzaren jabekuntzan eragin handia izango du. Kontuan hartuz haurren %80a erdal jatorrikoa dela, euskararekin izango duen kontaktu bakarra irakaslearekin edo euskal jatorriko ikastola lagunekin izango da. Beraz, haurrengan, aldamenean entzuten duten hori islatuko da.

Haurrak etxetik dakarren hizkuntzak tokirik al du ikasgelan?

Irakasleen %57k ez du kontuan izango eta galdera honi ematen dioten arrazoiak beti bizkaieraz egiten dutela da.

Hala ere, %43k haurrari etxetik dakarren ama-hizkuntzan hitz egi-ten utziko dio komunikazioan etendurarik egon ez dadin.

Irakasleek hurrekin dituzten harreman guztiak bizkaieraz zuzenduko dituzte. Eta aipatu dugun legez, haurrari, ikasi bitartean behintzat, etxetik dakarren aldaeran hitz egiten utziko zaion arren, irakasleak beti bizkaiera sustatuko du.

Baina irakasle guztiek ez dute jokabide bera erabiliko. %57k etxeko euskara, bizkaiera erabiliko du. %43k ostera, bizkaiera-batuago, zainduago bat erabiliko du. Haatik, azken hauek etxeko euskarara joko dute ekingiza informalak burutzerakoan; hurrekin olgetan dutenean adibidez.

Lerrokatutako *hipotesia* gogoratuz, planteamendua Haur Hezkuntzan ez dela dialektobitasunik egongo izan da; ikasleek etxetik aldaera ezberdinak ekarriko dituzten arren, *bizkaiera* izango da irakasleak bul-tzatuko duen aldaera bakarra.

Hipotesi hau frogatzeko irakasleen hizkuntza da kontuan hartuko duguna, esan dugun legez, haurren %80a erdalduena denez, ikaste prozesuan daude eta hizkuntzaren jabekuntza ez da bete-betean eman eta horrez gain, hau da datuetan bildu duguna.

Irakasleei dagokienez, %43rengan dialektobitasuna nabari daiteke (bizkaiera eta bizkaiera-batua). Agertuko diren *aldaki biek funtzio ezberdinak* izango dituzte *egoeraren* arabera. Horrela, esan dugun legez, haurrek *ikasgelan* ikasi beharrekoak (hizkuntza, zenbakiak...) irakaste-ko *bizkaiera-batua* erabiliko dute eta *egoera zuzen* eta guztiz *informaletan* (jolasterakoan, komunera joaterakoan...) *etxeko euskarara* joko dute.

Gainontzeko %57arengan ostera, ez da dialektobitasunik emango eta agertuko den aldaki bakarra bizkaiera izango da.

Laburbilduz, *hipotesia ez da guztiz egiaztatu*; irakasleengan irizpide ezberdinak nabari dira eta.


7.1.2. LEHEN HEZKUNTZA

Lehen Hezkuntzan *dialektobitasun eza* izan da aurkezturiko *hipotesia*. Maila honetan ere, hipotesia ez da bete-betea baieztatu.

Irakasle eta ikasleen egoera banaka aztertzea komeni zaigu.

Horrela *ikasleei* dagokienez, argitu beharra dago, ez dudala eurekin zuzeneko harremanik izan. Ikasleen aldaera aukeraketa irakasleen us-teen bidez jaso izan da.

Ikasleen artean ez da *dialektobitasunik* egongo, ikasgelan gerta li-tezkeen egoeretan behintzat. Adierazi diren egoera guztietan gailendu den aldaera *bizkaiera-batua* izan da.



1. Ikasleak irakaslearengana jotzen duenean edo alderantziz.
2. Ikasleek ikasgelan bat-bateko elkarriketa sortzen dutenean.
3. Ikasleak ikasgaiaren inguruan zerbait galdetu gura duenean.
4. Ikasleak ikaskideen aurrean gairen bat aurkeztu behar duenean.
5. Idatziz.

1. Grafikoa

Ikasleen aldaera aukeraketa ikasgelan

Ikus daitekeenez, bizkaiera-batua da nagusitzen dena. Hala ere, beste aldaki batzuk ere agertuko dira.


Batetik, *bizkaiera* agertuko da. Maila apal baten agertzen den arren, ahozko jardunetan batez ere, *etxeko euskara bizkaiera* duten horien gan islatu eta agertuko da.

Batuak ez du tokirik Lehen Hezkuntzan. Hala ere, *interferentziak* agertzen hasiko dira. Hau bide batez normala da, ikasleak ez baitira isolaturik bizi eta batuaren erreferentzia telebistan, irakur liburuetan, katelean... aurki baitezakete. Hala ere, irakasleek ez diote ikasgelan lekurik egingo aldaera honi. Haurrak batuko ereduren bat erabiltzen duenean, irakasleak ez du gaitzetsiko; baina, *haurrari berbeta zuzendu* egingo zaio *bizkaierako eredia* (bai etxekoa, bai arautua) *sustatuz*.

Eta *irakasleei* dagokienez, orokorrean bai ikasle - irakasleekin dituzten harremanetan, bai ikasgelan gaia azaltzerakoan eta ikasgelan sortzen diren bat-bateko elkarriketetan *bizkaiera bizia* agertuko dute.

Hala ere, *idatzizko ereduetan bizkaiera-batua* hobetsiko dute.

Nolabait beraz, *dialektobitasuna (endodiglosia) dagoela* esan daiteke. Ahozko *ereduetarako bizkaiera* aldagai funtzionala erabiliko dute eta *idazterako orduan bizkaiera-batua* aldaia.



1. Ikasleari zuzentzerakoan.
2. Lankideekin.
3. Ikasgelan bat-bateko elkarriketa sortzen denean.
4. Ikasgelan gaia azaltzerakoan.
5. Idatziz.

2. Grafikoa

Irakasleen aldaera aukeraketa

7.1.3. DBH 1 ETA 2


Maila honetarako aurkezturiko *hipotesiak* dio: «DBH 1 eta 2an bizkaiera-batua da nagusituko den aldaera. Eta ikasleengan batua agertzen hasiko da».

DBH 1 eta 2ko egoera ez da oso argia izango. *Igarobideko epea* dela esan daiteke. Apurka-apurka *batua ikasgelan agertuz* joango da. Liburuak eta materialak ere ez dira bete-betean bizkaiera-batua eredu-koak izango. Batua idatzizko eta ahozko ereduetan sartuz joango da.

Lehen Hezkuntzan izan dugun egoeraren antzekoa izango dugu hemen ere. Indartuko dena, *batuaren presentzia* izango da. Oraingo honetan, batuaren agerpena ez da kanpo faktoreei lotuta egongo; *ikasgelako ekintzetara hedatuko* da.

Ikasleei helduz, DBH 1 eta 2an ere ikasleen berbaldiri buruz esan nezakeena irakasleen usteetan oinarrituta dago.

Ikasgelan sor daitezkeen egoera ezberdinen aurrean nagusituko den aldaera *bizkaiera-batua* izango da. Alabaina, beste aldaerekiko aldea ez




1. Ikasleak irakaslearengana jotzen duenean edo alderantziz.
2. Ikasleek ikasgelan bat-bateko elkarriketa sortzen dutenean.
3. Ikasleak ikasgaiaren inguruan zerbait galdetu gura duenean.
4. Ikasleak ikaskideen aurrean gairen bat aurkeztu behar duenean.
5. Idatziz.

3. Grafikoa

Ikaslearen aldaera aukeraketa ikasgelan

da Lehen Hezkuntzan gertatu den bezain argia. Bizkaiera eta bizkaiera-batua nahiko parekaturik agertuko dira ahozko jardunetan; idatziz os-tera, bizkaierak ez du tokirik izango. Eta batua eta bizkaieraren arteko *interferentzien agerpena* ere indarra hartuz joango da.

Irakasleei dagokienez, lehenengoz eta egoera guztietan *batua* ager-tuko da. Batua batez ere, ama-hizkuntza gaztelania dutenengan agertu-ko da. Hala ere, *ahozko jardunetarako bizkaiera* izango da gehien ager-tuko dena eta *idatziz*, ordea, *bizkaiera-batua*.



1. Ikasleari zuzentzerakoan.
2. Lankideekin.
3. Ikasgelan bat-bateko elkarriketa sortzen denean.
4. Ikasgelan gaia azaltzerakoan.
5. Idatziz.

4. Grafikoa

Irakasleen aldaera aukeraketa

Lehen Hezkuntzan gertatu izan den legez, *ahozko ereduatarako bizkaiera* da nagusituko dena. *Idatziz*, ordea, *bizkaiera-batua*. Zuzeneko harremanetan nagusituko da batez ere bizkaiera, lankideen arteko ha-rremanean.

Hipotesiari dagokionez beraz, *ezin dezakegu esan bete-betean egiaztatzen denik*. Egia da, ikasleengan bizkaiera-batua nagusitzen dena eta batua ere agertuz joango dela. Hala ere, irakasleek ez dute

irizpide bera erabiliko, ahozko jardunetan bizkaiera nagusituko da eta idatziz oster, bizkaiera-batua; Lehen Hezkuntzan gertatzen zen legez. Baina, irakasleengan ere batua agertzen hasiko da. Hau ez da hipotesian aipatzen izan. Batua batez ere, esan dugun legez, jatorri erdaldu-neko irakasleengan nagusituko da.

7.1.4. DBH 3 ETA 4 ETA BATXILLERGOA

DBH 3tik aurrera *batuaren erabilera indartu* egingo da.

«Euskal Hizkuntza» ikasgaian batua lantzen hasiko dira; beti ere, bizkaiera konparabide delarik. Baina batua ikastea eta bere erabilera ez da gai honetara murriztuko, ia ikasgai guztietara hedatuko da. Hau horrela izanik, liburu eta material guztiak batuz agertuko dira.

Goi maila hauetan *ikas ereduak baturako bidea* hartzen duen arren, argitu beharra dago ez dela *batuaren erabilera inposatuko*. Asmoa, Euskal Herri osoko kultur hizkuntza, batua, bermatzea izango da. Hala ere, ikasleari aukera emango zaio batua eta bizkaieraren artean aukera egin dezan.

DBH 3 eta 4 eta Batxilergoan *ukipenezko egoeran* agertuko diren aldaerak hauek izango dira:

1. Batua
2. Bizkaiera
3. Bizkaiera-Batua

Hauek izan dira nik proposatu nituen aukera bakarrak. Halan eta guztiz ere, bai irakasle eta ikasleek *interferentziadun jardunen* erabilera aurkeztu dute.

Aldaera aniztasuna beraz, hizkuntza egoera argia da. Haatik, aldaerak *egoera endodiglosikoan* daudela esan daiteke, ez baitute maila bera ez prestigioz, ez funtzioz.

Solaskideen arteko harremana, gaia, formaltasun maila eta egoerak zerikusia handia izango dute aldaeren aukeraketan.

Has gaitezen koordinada hauek aztertzen. *Solaskideen arteko harremanari* helduz, hiru norabide hauetan eman liteke:

1. Irakasle - irakasle
2. Irakasle - ikasle
3. Ikasle - ikasle

Hiru sail hauetan harremana *profesionala* edo *pertsonala* izan daiteke. Eta gaia eta egoera ere oso lotuta egongo dira harreman mota hauekin.

Aurkeztu ditzagun lehenbizi egon daitezkeen egoerak:

1. AHOZKO JARDUNA:

1. Irakasle - irakasleek eta ikasle - ikasleek eduki ditzaketen harremanak.
2. Ikasleek ikasgelan bat-bateko elkarrizketa sortzen dutenean.
3. Ikasleak irakaslearengana jotzen duenean edo alderantziz.
4. Ikasleak ikasgaiaren inguruan zerbait galdetu gura duenean.
5. Ikasleak ikaskideen aurrean gairen bat aurkeztu behar duenean.

2. IDATZIZKO JARDUNA:

Irakasleek batetik, eta ikasleek bestetik, euren lankide edo ikaskideekin izan ditzaketen harremanak orokorrean pertsonalak izango dira. Gainerako egoeretan, ordea, irakasle - ikasle harremana profesionala izango da. Hauek dira Fishman-ek «*egoera egokiak*» legez definitu zituenak.

Dena dela, egoera profesional batetik pertsonalago baterako jauzia gerta liteke eta alderantziz.

Usna ditzagun egoera hauen aurrean ikasle eta irakasleek erabiltzen dituzten aldaera funtzionalak goian erabilitako parametroen arabera. Ikasleei dagokienez, aipatu beharra dago, euren aldaera aukeraketan bai ikasleen euren eta bai irakasleen usteak jaso ditugula.

7.1.4.1. Ahozko Jarduna


1. *Irakasle - irakasleek eta ikasle - ikasleek eduki ditzaketen harremanak*

Irakasleen %70ak bizkaiera erabiliko du orokorrean. %30ak, ordea, batua. Azken hauen artean ama-hizkuntza gaztelania edo gipuzkera dutenak leudeke.

Irakasleek euren lankideekin harreman zuzena dutenean ere, orokorrean *bizkaiera* erabiliko dute. Irakasle gehienek bizkaiera hobetsiko dute eguneroko harreman pertsonaletan.

Ikasgelatik kanpo ikasleekin hitz egiten dutenean, irakasle gehienek *bizkaiera* erabiliko dute. Ikasgelatik kanpoko harreman hau ere, pertsonal legez defini genezake.

Ikasleek orokorrean euren ikaskideekin zuzeneko harremanak izateko *komunikazio tresna* legez *gaztelania* erabiliko duten arren, euskarara jotzen dutenean, bizkaiera izango da nagusituko den aldaera. Hauek ere, *lagunartean* erabiltzeko tresna legez, *bizkaiera* hobetsiko dute.



5. Grafikoa

Zuzeneko harremana

2. *Ikasleek ikasgelan bat-bateko elkarrizketa sortzen dutenean*


Egoera honetan, ikasleen eta irakasleen usteak jaso ditugu. Uste biak bat datoz ikasgelan *bat-bateko elkarrizketa* sortzen denean ikasle gehienek *bizkaiera-batua* erabiltzen dutela aitortzerakoan.

Bat-bateko elkarrizketa sortu arren, ikasleek ikasgela formaltasun maila batekin lotzen dute. Harreman profesional batean pertsonalago bat bilatu nahian dabiltza. Eta kontuan hartuz, ikasleek harreman pertsonaletan bizkaiera hobesten dutela, egoerak eskatzen duen formaltasunaren aurrean (ikasgela, irakaslea jarduna entzuten dago...) bizkaiera zaindu bat, bizkaiera-batua aukeratuko dute ikasle gehienek.

Beste aldaerek ere lekua izango dute. Baina bizkaiera-batua da nagusituko dena.


3. *Ikasleak irakaslearengana jotzen duenean edo alderantziz*

Ikaslea irakasleari zuzentzen zaionean *batua* erabiliko du orokorrean. Hots, ikasleek eurek elkarrizketa bideratzen dutenean, eurek lehen pausua ematen dutenean, batua erabiliko dute. Ikasleentzat hau harreman profesionala izango da.



6. Grafikoa

Bapateko elkarriketa



7. Grafikoa

Irakasleari zuzentzerakoan


Hala ere, irakasleek diote, ikasleari *erreferentzia eskaini* egiten zaionean, batua beharrean *bizkaiera* erabiliko dutela. Hots, irakasleak ikasleari bizkaieraz egiten badio, orduan ikasleak bere jarduna aldatuko du. Hau batez ere, euskal jatorria duten ikasleengan gertatuko da. *Hierarkia harreman* bat dago eta goreneko mailan dagoenak egiten duen aldaera aukeraketa da elkarriketan gailenduko dena.

Irakasleen artean joera bi daude. Ama-hizkuntza gaztelania eta gipuzkera dutenek ikasleari batuaz egingo diote egoera guztietan. Gai-nontzekoek ostera, harreman zuzen honetan bizkaiera indartuko dute.

4. *Ikasleak ikasgaiaren inguruan zerbait galdetu gura duenean*

Eskola garaian, ikaslea *ikasgaiaren inguruan berbetan* dagoela, bai ikasle, bai irakaslearekin, *batua* erabiliko du. Kontuan eduki behar da irakasleen %75ak eskola batuaz ematen duela. Ondorioz, ikasleek euren ere eskola gaia batua aldaerarekin identifikatuko dutela argi dago.

Bizkaiera-batua ere nahiko erabiliko dute holako egoera batean. Argi dago, bizkaiera-batua ikasleek artean izan duten aldaera normati-boa izan dela, eta egoera formalekin lotzen dutena dela kontuan har-tuz, bere agerpena ez da batere ilogikoa.




8. Grafikoa

Gaiaren inguruan berba egiterakoan

5. *Ikasleak ikaskideen aurrean gairen bat aurkeztu behar duenean*

Ikasleak *lanen bat edo gaia bera ikaskideen aurrean aurkeztu* behar duenean, *batua* hobetsiko du. Ikasleen eta irakasleen usteak bat datoz baieztapen honetan ere.

Egoera hau ere, *egoera profesional* eta *formal* legeztatu ikusten da. Eta holako egoeretan ikasleek hobesten duten aldaera batua izango da. Kontuan eduki dezagun, ikasleek duten materiala eta liburuak batua agertzen direla; eta ikasleek gaia ikaskideen aurrean aurkezteko prestatzerako orduan, eredu izango dutena dela.



9. Grafikoa


Gaia aurkezterakoan

7.1.4.2. Idatzizko Jarduna

Idatziz ager litezkeen egoera guztietan (azterketak, idazlanak, lanak...) *batua* da nagusituko den aldaera. Hala ere, *bizkaiera-batua* ere maila apalago batean agertuko da.

Argi dago ikasleek egoera hau *egoera guztiz formal* betekin lotzen dutela. Eta honen erakusgarri da, bizkaieraren agerpen eza.

Datuok aztertu ondoren, aurkezturiko *hipotesia baieztatu* dela ikusenezake. Hipotesian, goi maila hauetan dialektobitasuna edo aldaera



10. Grafikoa

Idatziz

aniztasuna baieztatuz, egoera ezberdinen aurrean aldagai funtzional ezberdinak erabiliko zituztela esaten zen.

Eta ikusi dugunez, ikasleek egoera eta formaltasun mailaren arabera aldaera bat edo bestea aukeratzen dute. Laburbilduz:


Lagunarteko harremana	Bizkaiera
Bat-bateko elkarrikketa	Bizkaiera-batua
Irakasleari zuzentzerakoan	Batua, eta erreferentzia bilatzen badu bizkaiera
Gaiaren inguruan berbaz	Batua
Gaia aurkezterakoan	Batua
Idatziz	Batua

Beraz, egoera informaletan eta harreman pertsonala gailentzen den egoeretan, bizkaiera da nagusituko dena. Hau batez ere lagunarteko giroarekin lotu egingo da.

Irakasle - ikasle harreman hierarkikoan, ikasleak baturako bidea hartuko duen arren, erreferentzia bilatzen duen guztietan etxeko euskara-ra, bizkaierara joko du.

Ikasgela egoera formalarekin, profesionalarekin lotu egingo da. Eta bertan nagusituko den aldaera eredu zaindua jarraitzen duena izango da. Horrela, *bat-bateko elkarrizketa* sortzen denean, *bizkaiera-batua* erabiliko dute. Eta *gainontzeko egoeretan*, ikasgaiarekin zerikusia dute-netan eta *idazterako* orduan, *batua* erabiliko dute.

Azkenik, *prestigioari* dagokionez, *lagunarteko* solasaldietan *bizkaiera* hobetsiko dute eta *egoera formal* baten aurrean *batua* aukeratuko lukete berbaldian.



11. Grafikoa

Aldaeren prestigioa

7.1.5. HIPOTESIEI BURUZKO ONDORIOEN LABURPENEA

Laburbildu ditzagun hipotesietatik ateratako ondorioak. Horretarako, lehenengo eta behin gogora ditzagun hipotesiak:

H1: Orokorrean dialektobitasuna egingo da. Hala ere, hau ez da maila guztietan berdin islatuko; hots, goi mailetan ikusiko da argien dialektobitasuna.

Azter dezagun hau zehatzago:

1. Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan ez da dialektobitasunik egingo. Ikasleek etxetik aldaera ezberdinak ekarriko dituzten arren, bizkaiera izango da irakasleak bultzatuko duen aldaera bakarra.

2. DBH 1 eta 2-n bizkaiera-batua da nagusituko den aldaera. Hala ere, batua agertzen hasiko da ikasleengan.
3. DBH 3 eta 4 eta Batxilergoan, dialektobitasuna argia izango da. Ikasleek bizkaiera batu bat erabiliko dute ahozko jardunetan. Idatziz oster, baturako bidea agertuko dute.

H2: Goi mailetan, dialektobitasuna argia dela baieztatuz, aldaera bakoitzak funtzio bat beteko du. Egoera ezberdinen aurrean, ikasleek aldagai funtzional ezberdinak erabiliko dituzte.

1. HAUR HEZKUNTZAn irakasleen irizpideak jaso dira; ikasleen hizkuntzaren jabekuntza prozesu bidean baitago. Irakasleei dagokienez, hipotesia ez da bete-betean egiaztatu. Hipotesian dialektobitasun eza aipatzen genuen eta irakasle guztiengan ez da egoera hau emango. Batetik, irakasle multzo batengan ez da dialektobitasunik egongo, eta komunikazio tresna legez, bizkaiera da erabiliko duten aldaki bakarra. Bestetik, irakasle guztiek ez dute irizpide hau jarraituko. Horrela, %43k bizkaiera eta bizkaiera-batua bereiziko dituzte ikasgelan burutzen dauden ekintzaren arabera. Hauengan beraz, nolabaiteko dialektobitasuna eta funtzio bereizketa nabari liteke.
2. LEHEN HEZKUNTZAn ere, hipotesia ez da guztiz baieztatzen. Dialektobitasun eza hipotesiaren aurrean, ikasleengan betetzen dela baieztatu beharko genuke. Ikasleek egoera guztietan bizkaiera-batua erabiliko dute. Irakasleengan ordea, nolabaiteko dialektobitasuna nabari liteke. Ahozko jardunetarako bizkaiera erabiliko dute, eta idazketak eskatzen duen egoera formalaren aurrean, aldaera zainduago bat erabiliko dute, hots, bizkaiera-batua.
3. DBH 1 eta 2: hipotesia gogoratuz, «DBH 1 eta 2an bizkaiera-batua da nagusituko den aldaera. Eta ikasleengan batua agertzen hasiko da». Ikasleei dagokienez, hipotesia baieztatuko da. Ikasleek egoera guztietan bizkaiera-batua erabiliko dute. Hala ere, euren jardunetan batua agertzen hasiko da. Irakasleengan ordea, ez da hipotesia guztiz beteko. Bizkaiera-batua idatziz baino ez da nagusituko, ahoz bizkaierara joko baitute gehiengoek. Bestetik, hauek ere batua erabiltzen hasiko dira, hipotesian aipatzen ez zen datua. Batua ikasgelan sartuz joango den arren, hau batez ere erdal jatorriko irakasleengan nagusituko den aldaera da.
4. DBH 3 eta 4 ETA BATXILERGOA: goi maila hauetan hipotesia egiaztatuta geratu da. Aldaera aniztasuna da azkeneko etapa honetan nagusitzen dena. Horrez gain, egoera ezberdinen aurrean, aldaera bakoitzak funtzio bat beteko du. Lagunarteko harremanetan bizkaiera nagusituko da. Eta ikasgelan bat-bateko elkarriketa

sortzen denean, bizkaiera-batua erabiliko dute. Gainontzeko egoeretan batua da nagusituko dena. Egoera guztiak daude formaltasun maila batekin lotuta eta ikasleek formaltasun honek batua erabilera aldarrikatzen duela uste dute. Hala ere, irakasle autoritatearekin hitz egiterakoan, batua erabiliko duten arren, erreferentziarik topatuz gero, bizkaierarako bidea hartuko dute. Prestigioari dagokionez, lagunarteko mintzaldietarako bizkaiera hobetsiko dute. Eta egoera formaletarako, ordea, batua da nahiagoko dutena, prestigidun aldaera legez definituko dute.

7.2. Metodologia ondorioak

Orokorrean erabili dudan metodoa aproposa izan dela esan nezake. *Galdesorta* da batez ere erabili dudan bidea. Honek aukera eman dit irakasle eta hainbat ikasleren usteak jasotzeko. Hala ere, galdesortan nik bideraturiko datuak baino ezin izan ditut jaso.

Elkarriketetan ostera, hainbat datu berri agertu dira irakasleen jardunetan. Pena dut elkarriketa gehiago egiteko aukera eduki ez izana. Hau metodorik egokiena baita, ikasleen euskara egoeraren eta interferentzien berri izateko.

7.3. Ondorio orokorrak:

Ikastolak irizpide jakin bat jarraitzen du. Hasierako garaietan, bizkaiera izango da nagusituko den aldaera eta apurka-apurka euskara batua agertuz joango da.

«Bizkaiera irakaskuntza» kapituluak ikusi dugun legez, *jakitunen proposamenak* bizkaiera, bizkaiera-batua eta batua presentzia aldarrikatzen du irakaskuntzan.

Giro euskaldun baten, bakoitzak bere lekua izango du eta hiztunak argi izango du egoera bakoitzean zein erabili beharko duen.

Baina hau ez da guri dagokigun egoera. Kontuan eduki behar dugu, *Bilbo hirugarren gune soziolinguistikoa*n kokatu beharko genukeela eta horrez gain, ikasleen %80aren *ama-hizkuntza gaztelania* dela.

Ondorioz, hasierako mailetan batez ere, hots, batua ikasten duten arte, *hizkuntza mailen betebeharrak trukatu* egingo dira. Hasiera baten, haurren komunikazio giroa bizkaieraren inguruan biraka egongo da. Beraz, *bizkaiera-batuak* batez ere (bizkaiera ama-hizkuntza duten apurrengan bete-betean emango ez delarik), *hizkera arrunt* eta *normatiboaren* betebeharrak beteko ditu aldi berean. Apurka-apurka eta *ba-*

tuaren presentzia areagotuko den heinean, aldagai bakoitzak bere lekua finkatuko duelarik.

Esan dugu, batua ikasi arte, *bizkaiera-batua* izango dela ikasleen hizkera bizi eta zainduago baten isla.

Honek *arazoak* ekarriko ditu batua ikasterako orduan; batez ere, etxean erreferentziarik ez dutenengan. Horrela, DBH 3. eta 4. mailetan, ikaslea galdu samar egongo da. Jakin badaki aldaera ezberdinak daukela, baina ez da gai izango euren arteko bereizketa egiteko. Eta hemen legoke *interferentzien agerpenaren zergatia*. Nahaste-borrastea da nagusituko dena: «daudez», «dakizkidaz» lakoak barra-barra agertuko direlarik.

Batxilergoan hasiko dira aldaerak bereizten eta aldaera bakoitzak bere papera hartuko du maila baten behintzat. *Bizkaiera* bizia erreferentzia puntua aurkitzen dutenean bakarrik agertuko da. Aldaera honetan, etxeko jatorriaren edo udako oporrak igarotzen duten lekuan-lekuko bustidurak agertuko dira.

Lehen Hezkuntza eta maila apalago baten DBH 1 eta 2an *interferentzien* agerpena kanpo faktoreei lotuta agertuko da, lehenago ere aipatu dugun legez. Ikasleak norma bakarra ezagutuko du: bizkaiera. Hala ere, ikastolatik kanpo batuaz entzun eta irakur ditzakeenak eragina izango du bere berbaldian.

Ikasleen hizkera definitzerako orduan, irakasle guztiak ados daude hizkera *erdalduna* dela baieztatzerakoan. Ikasleek eguneroko estrukturak: harreman sarea, lagunartea, inauteriak, jaiak, asteburuak... gaztelaniaz bizi dituzte.

Lehen Hezkuntza eta DBH 1 eta 2ko ikasleek, behar bada, euskara gehiago bultzatzen dute «*Euskaraz bizi*» proiektuan barneratuta baitaude. Eta honek ikasleak euskaraz hitz egitera animatzen ditu.

Baina orokorrean, *gaztelania da euren giroaren ardatza*; erreferentzia falta honek euskararen erabilera murriztu egiten du. Honek berarekin, euskararen pobretasuna dakarrelarik.

Bibliografia

- AGIRRE, J.M.: *Euskarazko irakaskuntza Bizkaian: arazoak eta zenbait proposamen*, Desclée de Brouwer, Bilbo, 1985.
- APPEL, R. eta MUYSKEN, P.: *Bilingüismo y contacto de lenguas*, Ariel, Barcelona, 1996.
- ARTAMENDI, J.A.: *Hezkuntzaren eraginkortasuna eta irakaskuntza elebiduna Euskal Herrian*, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, Oñati, 1994.
- ASKOREN ARTEAN: *Euskal Herria multimedia entziklopedia*, Elhuyar, 1997.

- ASKOREN ARTEAN: *Euskal Herria, II: Errealitate eta egitasmoa*, Lan Kide Aurrezkia, Arrasate-Mondragon, 1985, 387-426. orr.
- AZURMENDI, M.J.: «Bilingüismo, Diglosia», *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1981.
- , *Elaboración de un modelo para la descripción sociolingüística del bilingüismo y su aplicación parcial en la comarca de San Sebastián*, Departamento de Filología Italiana, Universidad Complutense, Madrid, 1984.
- COOPER, R.L.: *La planificación lingüística y el cambio social*, Cambridge University Press, Cambridge, 1997.
- DUVERGER, M.: *Métodos de las ciencias sociales*, Ariel, Barcelona, 1972.
- ERRIONDO, Lore: *Hizkuntza, hezkuntza eta elebitasuna: hizkuntzen arteko ukipen egoeraren teoria eta metodologia aplikatua*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo, 1993.
- EUSKALTZAINDIA: *Euskeraren liburu zuria*, Bilbo, 1978.
- , «Euskera batua eta euskalkiak irakaskuntzan», *Euskera*, XXIV, 1979.
- FERGUSON, C.A.: «Diglossia», *Word*, 15, 1959.
- FERNÁNDEZ, F.M.: *Principios de sociolingüística y sociología del language*, Ariel Lingüística, S.A., Barcelona, 1998.
- FISHMAN, J.: *Sociología del lenguaje*, Cátedra, Madrid, 1988.
- , *Language in sociocultural change*, Stanford Univesity Press, Stanford, California, 1972.
- , *Advances in the sociology of language*, Mouton, The Hauge, 1971-1972.
- , «Bilingualism with and without Diglossia; Diglossia with and without Bilingualism», *The Journal of Social Issues*, XXIII-2, 1967.
- , «Who speaks what language to whom and when», *Linguistics II*, 1965.
- GIMENO MENÉNDEZ, F.: *Dialectología y sociolingüística españolas*, Universidad, Ali-cante, 1990.
- GOIKOETXEA, J.L.: «Hamalau erantzun bizkaieraren irakaskuntzari», Mendebaldeko Euskara Kultur Taldea, *Mendebaldeko euskara xx. mende goiengean*, Mendebalde Kultur Elkartea, Bilbo, 1997.
- GREGORY, M. eta CARROLL, S.: *Lenguaje y situación. Variedad del lenguaje y sus contextos sociales*, Fondo de Cultura Económica, México, 1986.
- GUMPERZ, J. eta BENNETT, A.: *Lenguaje y cultura*, Anagrama, Barcelona, 1981.
- HAUGEN, E.I.: *Bilingualism, Language Contact, and Immigrant Languages in the United States: a research report*, [s. n.], [s. l.], 1973.
- IDIAZABAL, I.: «Euskara eta eskola», Ruiz de Olabuenaga, J. I. eta Ozamiz, J. A., *Hizkuntza minorizatuen soziologia*, Ttartalo, Donostia, 1986.
- I Jardunaldiak Soziolingüistikaz*, Kultura eta Turismo Saila, Bilboko Udala, Bilbo, 1992.
- LABOV, W.: *Sociolinguistic Patterns*, University of Pennsylvania Press, Philadelphia, 1975.
- LÓPEZ MORALES, H.: *Métodos de investigación lingüística*, Colegio de España, Salamanca, 1994.
- MENDIGUREN, X.: «Euskera batua eta irakaskuntza», *Euskera*, XXIII, 1978.
- NINYOLÉS, R.L.: *Idioma y poder social*, Tecnos, Madrid, 1972.

- OLABUENAGA, J.I.: *Metodología de la investigación cualitativa*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1999.
- ROTAETXE, K.: *Sociolingüística*, Síntesis, Madrid, 1988.
- , «Komunikazio gaitasunaz», *Hizkuntza minorizatuen soziologia*, Ttarttalo, Donostia, 1986.
- SÁNCHEZ CARRIÓN, J.M.: «Fundamentos para una teoría de la territorialidad lingüística», *Hizkuntza minorizatuen soziologia*, Ttarttalo, Donostia, 1986.
- , *Espacio bilingüe: aspectos etnolingüísticos del bilingüismo y teoría lingüística de los espacios*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1981.
- , «Bilingüismo, Diglosia, Contacto de lenguas», *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio Urkijo»*, VIII, 1974.
- SIADECO: *Hizkuntza borroka Euskal Herrian*, Ediciones Vascas, Donostia, 1979.
- SOLÉ I CAMARDONS, J.: *Soziolingüistika gazteentzat*, U.E.U.ko Soziolingüistika Saila, Bilbo, 1991.
- URUBURU, Laura: «Bizkaieraren egoera O.H.O eta B.B.B. irakaskuntzan», *Bizkaieraren lekua gaur*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1992.
- U.Z.E.I.: *Hizkuntzalaritza: Hiztegia*, 1, Elkar, Donostia, 1982.
- VILA, Ignasi: «Reflexiones sobre la lengua materna como vehículo de enseñanza», *Hizkuntza minorizatuen soziologia*, Ttarttalo, Donostia, 1986.
- WEINREICH, U.: *Lenguas en contacto: descubrimientos y problemas*, Biblioteca, Universidad Central de Venezuela, Caracas, 1974.
- ZARATE, M.: «Euskera batua eta euskalkiak», *Euskera*, XXIII, 1978.
- ZUAZO ZELAIETA, K.: *Materiales para una descripción sociolingüística de la comunidad vasca*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1983.

BARIETATEA ETA ESTANDARRA: BATUAREN ERAGINA UME BIZKAITAR BIREN HIZKERAN

Sonia González

0. Sarrera

Ikerketa hau tesina moduan aurkeztu zen 1999ko ekainean. Bere luzera dela eta, ezinezkoa izango lizateke bere osotasunean artikululu batean biltzea, beraz ikuspegi orokor bat ematen saiatuko gara, datuen eta erreferentzia bibliografikoen ugaritasuna albait hobekien murriztuz eta birmoldatuz.

Bizi garen momentu honetan behatzaile arretatsuari bereziki nabarmen azaltzen zaizkio euskalkien baitan suertatzen hasiak diren aldakuntzak. Izan ere, betidanik euskaldunok geurok konturatu izan gara zelan aldatzen den gure hizkuntza belaunaldi batetik bestera eta, horrenbestez, tradizioak agindu duen legez, baina soziologiaren ikuspegitik oso zuzena ez den aburuz, adineko jendearengana jo izan da euskara «hobeago» eta «garbiagoa» jasotzeko asmoz. Baina, lehen esan bezala, azken urteotan fenomeno berri baten aurrean kokatzen gara: euskara batuaren sorrera eta erabilerarekin bat datorkiguna, euskara batu honen eraginak gure euskalkietan, hain zuzen ere.

Estandarraren sarbidea euskal familietan gero eta zabalagoa da, eta normala den legez, gehien jasotzen dutenak haurrak izaten dira. Oraindik hizkuntzaren jabekuntza prozesuan daudela, hizkera arras finkatu barik daukatela, euren kontaktua batuarekiko erabat arrunta da: komunikabideak, liburuak eta ikastola.

Hiztunek euskalkiak eta estandarra banandu behar dituzte hizkuntz erabileraren esparru ezberdinetan; era berean, hiztun horiengan bai bata, bai bestea, elkarrekin bizi diren heinean, egia ote da bien artean borroka gauzatzen dela? Eragiten ote du benetan batak bestean? Eta,

horrela bada, zein neurritan? Euskalkien «kalterako» edo, hobeto esanda, galererako ote?

Gai hau interesgarria da oso, eta aztertu beharrekoa, bere osotasunean, hizkuntza maila guztietan erreparatuz baina, era berean, soziolinguistikoki ere bai. Eta azterketarako ez dugu itxaron behar, zeren eta gaur da eguna aplikatu berri diren hizkuntza-plangintzen emaitzaren nondik norakoak ikusten hasten garen. Hemendik aurrera alde onak finkatu eta okerrak, egonez gero, konpondu behar dira.

Nire nahia, ikerketa honetan murgiltzean, adibide edo oinarri bat ezartzea izan da, bidea zabaltzea ondoren etor litezkeen azterketei, gaia sakontasun handiagoz aztertzeak merezi du eta.

Honenbestez, ikerketa mugatzeko asmoz, landuko den hizkuntza maila lexikoa izango da, joserara, fonetika eta semantikarekin erkatuz, eragin gehien jasotzen duena izaten bait da orokorki; edozertara, aurrera bideratzen ahaleginduko gara, beti ere egokiak izan daitezkeen bestelako aipamenei uko egin gabe eta soziolinguistikari dagokiona ez ahazten saiatuz, hizkuntza eta gizartea ezin bait ditzakegu banandu gure ikerketatik ondorio praktiko eta aplikagarriak atera gura baditugu.

Azterketan zehar «batua» eta «bizkaiera» hitzak kontrajarriko dira hainbat biderrez, terminologia honek eskeintzen duen erreztasuna dela bide, batez ere. Edozelan ere, erreferentzia ez da inoiz «bizkaiera» euskalki moduan hartuta izango; honek irudikatzen duena herri bakar bateko hizkera modua delako edo, are gehiago, familia bateko hizkera eta, zehatzagoak izanik, gure ume bien hizkerari dagokionez, idiolekto huts bi baino ez direlako.

Bestalde, beharbada ez daukagu oraindik oso argi zer den euskara batua eta, are gehiago zeintzu lexiko aukera ematen dizkigun eta zeintzu murriztu. Hau da, euskara monotono, pobre eta artifizial bilaka dezakena, zeren eta badirudi hitz bakan batzu baino ez direla zilegi euskara batuaz idazterakoan edo berba egiterakoan.

Euskalkiz euskalki adierazleetako ezberdintasunak aldaki fonetikoak baino ez badira, argi dago euskara batuak dauden guztietarik baten bat aukeratu behar duela, baina lexema ezberdinei dagokienez, uste dena baino «askatasun» gehiago dago, hala ere badirudi esistitzen ez diren debekuak ipintzen saiatzen direla asko. Honekin esan nahi dudana da, azken batez, lan honetan zehar «euskara batu»-tzat jotzen dudanak, horri baino «euskara batu» moduan ulertzen denari egiten diola erreferentzia, alegia, zabalkunde medioetatik bultzatzen den lexikoa.

1. Ikerketaren kokapena

1.1. *Kokapen geografikoa*

Ikerketa Busturian burutu da.

Herri honek 1994ko errolda datuen arabera¹, 1.729 biztanle ditu, 88,2 lagun batzen direlarik Km²-ko, 19,6 Km²-ko azaleran banaturik.

Bi urtetik gorako biztanleria euskara mailaren arabera

Euskaldunak	1.215	%70
Euskalduntze bidean	214	%12,5
Erdaldunak	286	%16,7
Guztira	1729	%100

Beraz, Busturia, orokorrean, herri euskalduna dugula esan dezakegu.

1.2. *Euskalkia*

Hizkerak sailkatzea ez da lan erreza eta euskal dialektologiaren historian hainbat saiakera egin izan arren, Bonaparterena izan da exhaustiboena eta erabiliena, Mitxelenak berak esaten digun moduan². Bonaparteren sailkapenean oinarrituz, beraz, Busturiko hizkera, Bizkaiera euskalkiaren barruan, Mendebaldeko multzoari eta, zehazkiago, Bermeoko aldakiari dagokio. Bestalde ezaguna da bizkaieraren ageriko berezitasuna beste euskalkiekin erkatuz, lexiko arloan ere bai. Eta, honen eraginez, gipuzkeraren alboan, esate baterako, bizkaiera askozaz urrugo dago batueratik, honek hiztunari dakarkion erregistro biak bereizi erabiltzeko zailtasunarekin.

¹ *Euskadiko K.A.ko 1994ko biztanleen udal-errolda*, EUSTAT, Gasteiz.

² «La dialectología vasca fue fundada por Luis Luciano Bonaparte y, en lo esencial, a pesar de la valiosa obra de Azkue y otros, no ha sufrido modificación importante desde entonces. En la clasificación de los dialectos y variedades menores de la lengua, el Príncipe realizó un trabajo largo y meticuloso que conserva su valor, a pesar de que los criterios en que lo basó son en buena parte muy distintos de los que han servido para señalar límites lingüísticos en otros campos». MITXELENA, K.: *Fonética Histórica Vasca*, ASJU-ren Gehigarriak, IV, Gipuzkoako Foru Aldundia, 1990. (41. or.).

1.3. *Lekukoen berezitasunak*

Umeekin harremanetan gehienetan egoten diren etxeko ahaideen hizkera hartu da aintzat. Alde batetik, aztertu beharreko barietatean murgiltzearren eta menperatzearren eta, bestetik, umeen hizkuntzan ardaztuz, hauen eta aurreko belaunaldien arteko ezberdintasunez albait egokien jabetzeko.

Etxeko giroa guztiz euskalduna da. Busturiko familia osoa lau etxetan banatzen da: San Bartolome auzoan Kamiñugane, Etxebarriatze eta Etxebarri, hirurak bata bestearen alboan. Kamiñuganen umeak eta aita-amak bizi dira (Rosa eta Doro), Etxebarriatzen aitite-amumak (Elisa eta Anton), izeko Laura eta osaba Julen (Elisaren neba-arrebak) eta osaba Alberto (Lauraren senarra). Nagore, Dororen arreba, oraintsu arte ere Etxebarriatzen bizi izan da. Etxebarrin Arantxa, Dororen lehengusina, bizi da. Bestalde, Axpen Dororen neba, Julen, bizi da, baina askotan joaten da Kamiñuganera edo Etxebarriatzera.

Umeek harreman handia daukate Busturin bizi den familia osoarekin, zer esanik ez gehiengoa Busturiko bizkaieraz aritzen dela (Alberto Sopelakoa izan arren, 12 urtez bizi izan da Busturin eta orain 41 urte ezkondu zen Laurarekin), baina batez ere aitite-amumekin.

Rosa, umeen ama, Leonen jaio arren, euskalduna da 17 urtetik hona. Bere euskalduntze prozesua, jakina, batueraz hasi zen, baina oso goiz joan zen Busturira bizitzen eta Busturiko euskaraz amaitu zuen ikasten. Bai Rosa, bai Doro irakasleak dira eta euskara batua erabiltzen dute lanean (Rosak filosofia eta Dorok euskara irakasten dute), beraz, begibistakoa da bere gurasoen euskara bizkaiera izan arren, jadanik batueraren eragina daukala. Belaunaldi biren artean egoten diren hizkuntz ezberdintasun arruntez gain (hizkuntza beti dago aldaketetan eta edozein hizkuntzatan ezberdintasunak somatzen dira belaunaldi baten eta hurrengoaren artean, horregatik soziolinguistikarentzat adina da aldagai garrantzitsua), nik esango nuke aldaketak sakonagoak direla umeen eta gurasoen artean, gurasoen eta aitite-amumen artean baino; hala ere, honek azterketa sakona merezi du eta ezin da aldeztu aurretik honelako egiaztapenik egin.

Dena den, metodologiaren aldetik, honelakoak ekiditeko, galdetutako hitzak familia osoak erabiltzen dituenak dira: bai aita-amek bai aitite-amumek etxean bizkaieraz erabiltzen dituztenak. Bestela, posible izango litzateke, aitite-amumek erabiltzen duten hitz bat jadanik ama-aitek batuaz erabiltzea normalean, beraz hitz hau umeentzat etxeko lexiko moduan bereganatuta egongo litzateke, hitza berez batukoa izan arren.

2. Metodologia

Labov-ek esaten zuen ikertzailearen metodologia behaketa sistematikoa izan behar zela. Hala ere honek ikertzailearen paradojara garamatza, eta hau ere konpondu beharrekoa da³.

Izan ere, ikerketa hau ezin izan zatekeen gauzatu egun bi besterik ez pasatzen inguru honetan eta galdetegi batzuk besterik ez egiten. Eguneroko behaketa beharrezkoa da hainbat egoeratan suertatzen dena ikusteko eta hainbat gertaera ezberdinen aurrean geure burua kokatzeko. Honetan saiatu gara ahal bezain beste. Hala ere, frogatzen eta galdetegi zehatz batzuk ere beharrezkoak dira nolabait somatu dugunari oinarri sendoagoa ematearren. Honetarako, grabaketa askeak prestatu dira eta lexiko galdetegiak.

Grabaketak umeei ezezik, beste senideei ere egin zaizkie, lehen esan den legez. Umeen hizkuntza baino ez balitz ikertu, azterketa ezinezko suertatuko zatekeen, beharrezkoa bait da herriko edo etxeko hizkera menperatzea aldaketarik dagoen jabetzeko.

Grabaketa batzuk guztiz askeak izan dira, gurasoen eta aitite-amumen kasuan, baina umeekin erabat zuzenduak ez izan arren, egia da askozaz gehiago arteztu behar izan direla; alde batetik, jaso nahi dugun lexiko datu zehatzak errezago batuko baditugu eta, bestalde, umeak urduriago eta hitz jario murriztagoz paratzen direlako grabagai-luaren aurrean. Izan ere, ez da erreza ume batentzat ordu laurden batean edo ordu erdi batean hitz egitea horrelako egoeretan.

Beste alde batetik, azterketa lexikologiko honetan soziolinguistikaren oinarriak ere kontuan hartuko ditugu. Emaizak aintzat behar dira

³ «We can isolate five methodological axioms supported by the findings of the field research projects cited which lead to a methodological paradox; the solution to this paradox is the central methodological problem.

1. Style Shifting. [...]
2. Attention. [...]
3. The Vernacular. [...]
4. Formality. [...]

5. Good data. No matter what other methods may be used to obtain samples of speech (group sessions, anonymous observation), the only way to obtain sufficient good data on the speech of any one person is through an individual, tape-recorded interview: that is through the most obvious kind of systematic observation.

We are then left with the Observer's paradox: The aim of linguistic research in the community must be to find out how people talk when they are not being systematically observed; yet we can only obtain these data by systematic observation. The problem is of course not insoluble: we must either find ways of supplementing the formal interviews with other data, or change the structure of the interview situation by one means or another». LABOV, William: *Sociolinguistic Patterns*, Philadelphia, University of Pennsylvania Press, 1972. (208-209 or.).

hartu beti ere bere testuinguruan kokatuta. Hau da, ohartu behar gara frogen komunikazio egoera ez dela arrunta izan, baizik eta hiztunaren kontzientzia graduak ere parte hartu duela: ez dugu berdin egiten eguneroko berbaldi batean eta grabatuak izango garela dakigunean, eta are gehiago hitz zehatz bat zelan esaten dugun eskatzen digutenean.

Umeen kasuan, ikertzailea ezaguna izateak eta, ahal bezain beste, bere hizkera etxeko hizkerara egokitzeak lagundu zuen. Egokiagoa izan da era honetan familiako norbaitek egitea baino, zeren eta umeek egonezina erakusten zuten hizkuntz frogak senideren baten aurrean egiteko momentuan, batez ere gurasoen aurrean. «Esan aitteri es sartzeko, ostantzien gero esango doste txarto ein dotela» esan zidan Malenek behin. Izan ere, eguneroko bizitzan gurasoak saiatzen dira, alde batetik, umeak euskaraz egin dezaten eta, bestalde, ondo egin dezaten (egiturak ondo erabili, gaztelerazko hitzak neurri gabe ez sartu, eta abar).

Hitz galdetegiak era honetan prestatu dira: lehenbiziz, batez ere amumari eta gurasoei galdetzen zitzaien zelan esaten zioten honi edo besteari, «Etxeko hizkera» etiketa pean sailkatu diren hitzak, hain zuzen. Hauen ondoan gaztelerazko forma, umei galdetzen zitzaiena; eta umeen emaitzak bereizi dira Malenek eta Anderek esandakoaren arabera. Beraz, euskaraz beste hizkuntza bat erabili da galdetegia burutzeko, hau da, galdekizunaren metodoa zuzena-zeharkakoa izan da —edoze-lan ere, ahal denean metodo zuzena-zuzena ere erabili da, deixiaren birtartez hitza jasoz, alegia—.

Galdekizun hauetako datu batzuk arlo semantikotan antolatu dira, hala nola: etxea, eguraldia, abereak, aroak, gorputz atalak. Normalean honelako hitzak, egunerokoak izanik, eta kutsu «teknikorik» ez daukatenez, hobekien gordetzen direnak izaten dira. Hauetaz gain, beste galdetegi batean orotariko hitzak batu dira, batez ere esanguratsuak izan daitezkeenak: bai batuko eta bizkaierako formak guztiz ezberdinak direlako, bai nolabaiteko antzekotasuna erakusten dutelako, bai zailtasun morfologikoren bat egon daitekeelako... Hala ere, datuak ematerakoan ez dira era honetan luzatuko, arlo semantikoak ez bait dira esanguratsuen suertatu fenomeno bat edo beste azaltzeko momentuan.⁴

Lexikoa aztertu beharreko maila izan arren, askotan maila morfosintaktikoari lotuta egongo da, adibidez, hitzak mugatzailez nahi izan

⁴ Oso arlo semantiko zehatz eta espezifikoa ez badira, hala nola ikastolarekin zerkusia dutenak.

ditugu batu, mugatzailez eta honek berarekin dakarren armonia bokalikoz ere bai. Oro har 235 hitz izan dira galdetuak.

Grabaketak eta galdetegiak konplementagarriak dira: galdetegian zuzen-zuzenean bilatzen ditugun berbak batzea lortzen dugu, hala ere, egoera hiztunarentzat kontrol handiagokoa da, grabaketa askean gertatzen ez dena. Batzutan galdetutako hitz bera grabaketetan agertzen zaigu beste era batez erabilia; kasu bakoitzean saiaturako gara azaltzen zein den arrazoia.

3. Lexikoan suertatzen diren fenomeno zehatzak

Datuak behin jasota, azterketari aurre egiteko, saiaturako gara gure emaitzak nolabait sailkatzen. Estrainekoz, galdetegian emandako erantzunak ikusteak komenigarria dirudi, ondoren erabileran gertatzen denarekin erkatzearren. Erabilera honi dagokionez, grabaketak ez ezik, eguneroko jardunean umeei entzundako eta jasotako formak hartuko dira kontuan. Izan ere, batzuetan galdetegiko emaitzak ahozko erabileran suertatzen denarekin bat ez datozela ikusi ahal izango dugu eta, azken honetan bertan, zenbaitetan era ezberdinez azaltzen direla ere bai.

Galdetegietako erantzunak honela bereiziko ditugu, etxeko hizkerako hitzen itxurari erreparatuz: hitzok eta dagozkien batukoak ezberdintzen dituen puntu bakarra armonia bokalikoa bada⁵ (berbak mugatuta

⁵ Berbaren azken silabaren eramoldea aurreko edo atzeko bokal itxiak (/i/, /u/) gehi kontsonantea denean: «El morfema de determinante general (D.G.) será considerado como °a, con representación directa con temas en consonante, si no interviene ninguna regla especial como la que parece entreverse en /txakurre/. [...] La elección de °a de preferencia a °e (txakurre) se basa en el hecho de que sólo los temas se sílaba final con vocal (+alta), i, u seguidos de consonante (i, u C) presentan el morfo /e/: /lagúné/, /úrre/, /barbárríé/, /orkátíllé/, etc...»

Eta, bestalde, berbaren amaiera tematikoa /i/ bokal aurreko eta itxia denean: «[...] algunos de los temas intercalan entre la final temática -i y el determinante -a seguido de °Ø (Sing.) o de °k (Pl.) una consonante epentética de solución intersilábica que hemos transcrito gráficamente por x siguiendo la ortografía normal vasca y que es realizada oralmente como prepalatal fricativa sorda». Eta aurreraxeago: «Dentro de los terminados en -i, esta solución tiene dos representaciones:

- Por un lado, la prepalatal fricativa sorda /ʃ/ graf. X, solución normal de todos los temas en -i (mendi → mendixe, como maixe... etc).
- Por otro, la variante fricativa de la palatal sonora /dʲ/, es decir (y), en formas como /oyé/ que merecen consideraciones especiales.»

Datuok Ondarruko hizkerari buruzko ikerketa bati egoki arren, ikusiko dugunez, Busuriko hizkeraz ere betetzen dira. ROTAETXE, Karmele: *Estudio estructural del euskara de Ondárroa*, Durango, Leopoldo Zugaza (ed.), 1978. (241-246 or.)

eskatu bait ziren); bizkaierakoen eta batukoen artean armonia bokalkoaz gain, bestelako ezberdintasunik badago; etxeko hitzek gaztelarren antza daukatenean, hau da, gazteleratiko maileguak direnean; eta, azkenik, familian erabilitako berbak eta batukoak erro ezberdinetakoak direnean —edo, erro ezberdinetakoak ez izanda ere, ezberdintasun gradu handiago bat dagoenean—.

Saillkapen modu hau, hitzak talde batean edo bestean sartzeari dagokionez, ez da beharbada oso zehatza izango hizkuntzalaritzari dagokionez; honen arrazoia ondokoa da. Daukagun adibide guztien artean, askotan etxeko euskarari dagokion hitza batuko forma bera dela ikus dezakegu, aldaki fonetikoak dira, alegia. Baina saiatuko gara ez filologo baten ikuspegitik aztertzen zein den aldaki fonetikoa eta zein ez, baizik eta ume batek igertzen duen moduan: gure umeentzat oso garrantzitsua da mugatzailedun formetan hitz amaieran *-a* soila edo *-ie*, *-ixe* dagoen eta, era berean, «*barri*» eta «*berri*» modukoak oso antzerakotzat jotzen badituzte ere —biak nahasteraino—, ez dut uste «*eraman*» eta «*eruen*» bezalako hitzak forma beraren aldakitzat, hau da, jatorri berekotzat, somatzen dituztenik, esate baterako.

Bai Malenen, bai Andereren erantzunak emango dira aldi berean, kasu askotan batak eta besteak erantzun ezberdinak eman arren —adibidez, ume batek bizkaierako forma eta besteak batukoa eman arren, alegia—, beraz, biak ezberdintzeko, letra etzana erabiliko dugu etxeko hizkerako formari eusten dioten erantzunak eta letra arrunta, ordea, etxeko usadio honetatik aldentzen diren emaitzak irudikatzeko.

Galdetegia apur bat luzetxoago izan arren, datu gutxi batzuk baztertu dira, adierazgarriak ez ziren eta.

Batuko hitzak beren grafia arautuaz irudikatuko dira, estandarra, —gizarte mailan behintzat—, puntu gutxi batzuetan izan ezik, lotuta ez bait dago ahoskera finkatu batekin⁶. Aitzitik, etxeko hizkerari dagokionez, saiatuko gara ahoskerari egokitzen, transkribaketa fonetikorik egingo ez bada ere.

⁶ «[...] Ahoskera Batuaren Batzorde bat eratu zen orain dela hiru urte, Euskaltzaindiaren babespean. Gidaritza ofiziala Patxi Altuna euskaltzainaren eskuetan jarri zen. Eta Lourdes Oñederra irakaslearen kudeaketa pean, hamar laguneko lantalde bat hasi zen biltzen 1993-1994 urteetan barrena.

Batzordean egindako lanen emaitzaz, gutxienerako puntuak biltzen dituen Txosten bat aurkeztu zen Leioa-ko XIII. Biltzar Nagusian.

[...] Arauketa lana berririo gelditu da; eta erabakien («proposamenen» esan liteke ego-kiago) gizarterakuntza zertan den ez da orpoz-orpo jarraitzen. Esatariek, lokutoreek, irakasleek, ez dituzte askotan ezagutzen ere proposamen horiek». ÁLVAREZ ENPARANTZA, J.L., (TXILLARDEGI): *Lingua navarrorum*, Orain, 1996.

3.1. *Barietatea eta estandarra armonia bokalikoak bereizten dituenean*

Armonia bokalikoa, dirudienez, umeen pertzepzioan euren hizkeraren ezaugarri bereizgarri nagusienetakoa da, aditzekin batera; beraz, nahikoa begibistakoa eman arren, ez dago soberan ziurtatzea zein fenomeno suertatzen den lexiko honi dagokionez:

Batuaz	Etxeko hizkeraz	Malen	Andere
Astoa	Astue	<i>Astue</i>	<i>Astue</i>
Azeria	Aserixe, lukixe	<i>Aserixe</i>	<i>Aserixe</i>
Behia	Beixe	<i>Beixe</i>	<i>Beixe</i>
Bekokia	Bekokixe	<i>Bekokixe</i>	<i>Bekokixe</i>
Belauna	Belaune	<i>Belaune</i>	<i>Belaune</i>
Eguzkia	Eguskixe	<i>Eguskixe</i>	<i>Eguskixe</i>
Erlea	Erлие	<i>Erлие</i>	<i>Erлие</i>
Euria	Eurixe	<i>Eurixe</i>	<i>Eurixe</i>
Horma	Ormie	<i>Ormie</i>	<i>Ormie</i>
Idia	Idixe	<i>Idixe</i>	—
Komuna	Komune	<i>Komune</i>	<i>Komune</i>
Korta	Kortie	<i>Kortie</i>	<i>Kortie</i>
Lainoa	Lañue	<i>Lañue</i>	—
Mahaia	Maixe	<i>Maixe</i>	<i>Maixe</i>
Oiloa	Ollue	<i>Ollue</i>	<i>Ollue</i>
Orkatila	Orkatille	<i>Orkatille</i>	—
Orpoa	Orpue	<i>Orpue</i>	—
Sorbaldia	Sorbaldie	<i>Sorbaldie</i>	—
Zaldia	Saldixe	<i>Saldixe</i>	<i>Saldixe</i>
Zapaburua	Sapaburue	<i>Sapaburue</i>	<i>Sapaburue</i>

Berba zerrenda honetan etxeko hizkerari eta batuerari dagozkien artean dagoen ezberdintasun bakarra armonia bokalikoa da. Kasuotan ez dago arazorik, bai Malenek bai Anderek erantzun bera ematen dute (Anderek ezagutzen ez zituen edo momentu horretan gogoratzen ez zituen erantzun batzuk gorabehera). Batuaz eta bizkaieraz forma bera bada, arruntena izaten da forma horri eustea; izan ere, ez dago beste irtenbiderik, gaztelerara jotea ez bada. Azken kasu honen adibide bat daukagu: *Harria* (batuaz), *Arrixe* (etxeko hizkeraz), *Fregaderie* (Malen eta Andere). Aurrerago aipatuko dugu adibide hau ez dela bazterrekoa eta etxeko hizkeraz oso finkatuta ez dauden hitzak gazteleraren sarbidea izan daitezkeela.

3.2. *Barietateari dagokion lexikoak estandarraren antza daukanean*

Arazotan hasten gara mugatzaileak sortutako armonia bokalikoa ere du bien arteko ezberdintasun bakarra ez denean. Alegia, berba biak oso antzekoak izan arren, bertan beste aldaketa txikiren bat dagoenean (asimilazio kasuak, kontsonante epentetikoak, itxidurak, disimilazioak, eta abar):

Batuaz	Etxeko hizkeraz	Malen	Andere
Ahizpa	Aistie	<i>Aistie</i>	<i>Aistie</i>
Ahoa	Ague	<i>Ague</i>	<i>Ague</i>
Azkenean	Askanien	Askenien	Askenien
Behatzak	Bietzak	<i>Bietzak</i>	Atzamarrak
Belarra	Bedarra	Belarra	<i>Bedarra</i>
Beltza	Baltza	<i>Baltza</i>	<i>Baltza</i>
Berria	Barrixe	<i>Barrixe</i>	Berrixe
Betileak	Betuliek	<i>Betulie</i>	Betileak, betilie...
Bularra	Bulerra	Bularra	Bularra
Dantzatu	Jantza ein	Dantza ein	Dantzeu
Denbora	Denporie	<i>Denporie</i>	<i>Denporie</i>
Eskumuturra	Eskutue, eskuturre	Eskumuturre	Eskumuturra
Etzan	Etzun	<i>Etzun</i>	Etzan
Ezpainak	Espanak	Espaiñek	Espaiñek
Gerria	Garrixe	Gerrixe	Gerrixe
Gutxi	Gitxi	<i>Gitxi</i>	<i>Gitxi</i>
Haserretuta	Asarratute	<i>Asarratute</i>	Aserratute
Hodeiak	Edoixek	<i>Edoixek</i>	Odoixek
Ikasi	Ikesi	<i>Ikesi</i>	Ikasi
Ilargia	Iretargixe	Ilargixe	Ilargixe
Ilarrak	Iderrak	<i>Iderrak</i>	Ilerrak
Indabak	Indixabak	<i>Indixabak</i>	<i>Indixabak</i>
Ipurdia	Eperdixe	<i>Eperdixe</i>	Ipurdie
Irina	Urune	<i>Urune</i>	<i>Urune</i>
Izara	Iserie	Isarie	Isara
Izarrak	Iserrak	Isarrak	Isarrak
Kokotsa	Okotxa	<i>Okotxa</i>	Kokotxa
Larrua	Narrue	Asala, larrue	Asala, larrue
Masaila	Matraille	Papue / masaille	Papue / masaille
Oilategia	Ollotokixe	Ollategia, ollotokixe	Ollotegixe
Sudurra	Surré	Sudurre	Sudurre

Batuaz	Etxeko hizkeraz	Malen	Andere
Sugandila	Surangillie	Sugandille	Sugandille
Sugea	Sugoie	Sugie	Sugie
Trumoia	Trugoie	Trumoie	Trumoie
Txerria	Txarrixie	<i>Txarrixie</i>	<i>Txarrixie</i>
Ukitu	Ikutu	<i>Ikutu</i>	<i>Ikutu</i>
Ukondoa	Ukundue	<i>Ukundue</i>	<i>Ukundue</i>
Utzi	Itxi	<i>Itxi</i>	<i>Itxi</i>

Datuek, honela emanda, nahaste-borraste itxura hartzen dute. Izan ere, kasu gehienetan ume biek berdin jokatzten dute —bai etxeko berbari eutsiz, bai batuaren eragina agerian utziz—, hau da, biek erantzun bera (edo ia-ia bera, zeren eta, esate baterako, *dantza ein* edo *dantzeu* antzekotzat jo bait ditzakegu, bietako batek ere ez etxeko hizkerari dagokion hasierako YOD-a isladatzen ez duenez gero).

Badaude, hala ere, zenbait hitz ume baten erantzunetik bestearenera aldatzen direnak; hauetako batzuk zehazten saiatuko gara:

—Malenen erantzuna «*belarra*» izan arren, erabilera arruntan «*bedarra*» izaten da erabilitako forma. Anderek, ordea, Malenek baino gehiagotan nahasten ditu biak, eta hau orokorra izango da berba mota guztiekin. «*Odeixek, aserratute, illerrak*» moduko nahasketak geroago zehaztasun handiagoz azalduko dugun fenomeno da; umeak nolabait bizkaierako «mozorro» baten atzean izkututzen du batuko hitza, gehienetan armonia bokalikoa izaten dena.

—«*Betuliek*» hitzari dagokionez, Andere zalantza handiz azaldu zen: ederto zekien zelan esaten zen batuaz, baina ez zegoen ziur zein zen etxeko berba, zeren eta aurretik erantzuna zuen, argi eta garbi gainera, «*ulie*», beharbada askoz erabiliagoa dena.

—Anderek «*ikasi*» ihardetsi arren, hauxe da grabaketetan aurki dezakeguna:

Andere: *ikesitte ikastolatik*

Andere: *estakitt ondo edo txarto, lelengo urtie ixengo da eta... ikesteke denpora apur bat inglesa*

Andere: *Bamba, Uso suria, Txoriak txori, joten nago oin, ikesten...*

Andere: *euskera ikasten etorri senean*

Andere: *Sonia ere etorri sen euskera ikasten gure etzera eta euskerara ikasten etortzen dies.*

Lehenbiziko hiru perpausetan ikusten dugu Anderek «*ikesi*» erabiltzen duela bizkaieraz jarduten duenean, eta ezberdintzen du, batzutan

nahaste batzuk gorabehera, batuko «*ikasi*», azkenengo perpaus bietan ikus daitekeenez.

Malen: Ikastolan ikesten dogusen dantzak ba Irrintzi Alaien ikesi dotes ya, orduen ya ikesitte iruten dotes

Malen: ikestengu selan saindu bidun gure ingurunie

—Aipatzekoa da ondoko adibidea:

Andere: Ta suk, e... senbat gausa jotensus

Doro: Nik jo, danak

Andere: Ikutu?

Doro: Ikutu bapes, jo bakarrik

Argi eta garbi, Anderek bere aitari egiten dion broma bat da. Ziu-rrenez, honelako elkarrizketetan arruntak izaten dira: gurasoek zuzentzen diete umeei horrelako erabilerak, *instrumentoak ikutzea*, gazte-lareren eraginez sortzen direnak. Eta kasu honetan alderantziz izan da, Anderek hartu du zuzentzailearen erola.

—*Askanien* formarik ezarekin bat esan dezakegu *askanengo* ere ez dela azaltzen korpusean, *askenengo* baino.

Malen: eta askanien ba danak kaleta, jentie dana or bustitte

Malen: askenengo egunien monta giñen bertako saldixen

—Baina hasieran esandakoari lotuz, galdera bat egin behar dugu: zergatik kasu batzutan etxeko hitzari eutsi eta bestetan ez? Zein irizpideren arabera suertatzen da batuaren eragina eta interferentzia zenbait hitzetan, besteak ondo gordetzen badira? Ez dut uste galdera hauek soilik linguistikoki azalpen betegarririk daukatenik. Abiapuntua, oster, erabilera maiztasunean topa dezakegu, behintzat aintzat hartzeko azalpen posible moduan. Honela, honek azalduko luke zergatik esaten duen Malenek «*barrixe*» baina «*gerrixe*» («*gerrixe ta lepoa mindute eukin ban*»). Beharbada azken hau ez da hain erabilia etxean, baina bai klasean. Ikus dezagun, adibide moduan, zelan erabiltzen dituzten Anderek eta Malenek *barri/berri*, *barriro/berriro* pareak grabaketan:

Malen: eta orduen gero barriro eitten dogus taldiek

Malen: se ya gero badaki berak es garela bueltako barriro

Malen: eta gero barriro etorten san, afaltzen ban ta ogera sartzen san

Andere: jan da gero lagun eiñe joan nas; etorri nas berriro...

Andere: se lo egon san berriro

Andere: gero urten gara berriro, eta urten garenien

Andere: joku batera jolastugunien asi gara berriro

Andere: etze barrixetan

Malenek beti darabil «*barriro*» forma —eta, era berean, «*barri*»—; hala ere, Andereren kasuan beti da -e-dun forma agertzen dena, «*etze barrixetan*» esapidean izan ezik. Honek azalpen erraza dauka, forma lexikalizatua bait da⁷ eta, honen antzera «*Etzebarriatze*», eta «*Etzebarri*», baserrien izenak, hain zuzen.

3.3. *Barietateko hitzak gazteleratik hartutako maileguak direnean*

Bestalde, irauten duten etxeko hitz askok batuko antza daukatela esan badugu lehen, ez dira gutxiago gazteleratik hartutako maileguak direnak:

Batuaz	Etxeko hizkeraz	Malen	Andere
Apoa	Sapue	<i>Sapue</i>	<i>Sapue</i>
Aulkiak	Sillek	<i>Aulkixek</i>	<i>Aulkixek</i>
Azkaria	Merixendie, meriendie	<i>Meriendie</i>	<i>Meriendie</i>
Baratza	Ortue	<i>Ortue</i>	<i>Ortue</i>
Burukoa	Almoadie	<i>Almoadie</i>	<i>Almoadie</i>
Egongela	Salie	<i>Salie</i>	<i>Salie</i>
Erratza	Eskobie	<i>Eskobie</i>	<i>Eskobie</i>
Errua	Kulpie	<i>Kulpie</i>	<i>Kulpie</i>
Ganibeta	Kutxillue	<i>Kutxillue</i>	<i>Kutxillue</i>
Garestia	Karue	<i>Karue</i>	<i>Garestia</i>
Gogoratu	Akordeu	<i>Akordeu</i>	<i>Gogoratu</i>
Gosaria	Armusue	<i>Armusue</i>	<i>Armusue</i>
Hegazkina	Abioie	<i>Abioie</i>	<i>Egaskiñe</i>
Hondartza	Plaixe	<i>Ondartzie</i>	<i>Ondartza</i>
Itsasontzi	Barkue	<i>Barkue</i>	<i>Barkue</i>
Itxi	Sarratu	<i>Itxi</i>	<i>Sarratu</i>
Leioa	Bentanie	<i>Bentanie</i>	<i>Bentanie</i>
Logela	Kuartue	<i>Kuartue</i>	<i>Kuartue</i>
Sabaia	Tetxue	<i>Tellatue, tetxue</i>	<i>Tetxue</i>
Sardeska	Tenedora	<i>Tenedora</i>	<i>Tenedora</i>
Untxia	Konejue	<i>Konejue</i>	<i>Untxixe</i>
Urdina	Asule	<i>Urdiñe</i>	<i>Asule</i>
Zuhaitza	Arbolie	<i>Arbolie</i>	<i>Arbolie</i>

⁷ «Etxe barriak» lexikalizaturik erabiltzen dute herrian dagoen etxe multzo zehatz bat adierazteko.

Barietateko forma gazteleratik hartua izateak, eta gazteleraren antza gordetzeak, barietateko forma indartu egiten du umeen lexikoan. Honela, kasu honetan, nekez ordezkatzeko dute batukoaz. Aitatu behar da umeei emandako beste erantzunetatik oso gutxi irauten dutela erabileran, hau da, grabaketetara joz gero, honen kontrako adibideak aurkituko ditugu. Ez dugu ahaztu behar galdetegiak eskatzen duen hizkuntza-kontzientzia maila nahiko altua dela:

—Ikusten dugunez, Anderek galdetegian «*gogoratu*» erantzun bazuen ere, hau ez da erabiltzen duen berba.

Andere: «Enais akordaten. Oin dala asko»

Andere: Gero etorri sen bigarrena, enais akordaten baña... eta Sonia ere etorri sen

—Inoiz «*aulkixek*» entzun ahal izan arren, euren ahotatik irteten den formarik arruntena «*sillek*» izaten da, eta grabaketan...

Andere: eta Iratxe ta ni hor sillaren ganera igoten

—Anderek ez du «*egaskiñe*» esaten ez bizkaieraz ari delarik (lehenengo perpausa), ezta batuaz mintzatzen dela ere (bigarrena eta hirugarrena).

Andere: bueno gu lelengo jua giñen Torrevejara abioian bakarrik

Andere: klaro, abioian jua giñenean eldu giñen ta nire aita es san etorri gurekin

Andere: Abioian karameloak emon genesienien, gero koka-kola bat edo olako gausa bat.

—Malenek, berbaldia bizkaieraz izanik ere, «*itxi*» erabiltzen du. Hauxe izango litzateke benetan kontrako adibidea. Hala ere, egunero ko komunikazioan «*itxi*» agertu arren, «*sarratu*»-ekin ere txandakatzen da. Arraroa da, bestalde, «*itxi*» batuko «*utzi*» bait da, eta honela, Malenen idiolektoan, homofonia kasua suertatzen da.

Malen: eta orduen gela baten itxi bien

—Harrigarria da nola grabaketetan hainbat aldiz esaten duten Anderek eta Malenek «*ondartza*», ez dute bein ere «*plaxe*» erabiltzen. Edozelan ere ni behin baino gehiagotan joan naiz eurekin «*pasitan plaxeraño*» eta behin ere ez «*pasitan ondartzaraño*».

Malen: edo juaten gara San Antoniora, ondartzara, ba jolasten

Malen: eguraldi ona eitten deuenien ba ondartzara joaten gara

Andere: gero saldian montatu, animalieri emon janaria, eskulanak, ondartzara joan, siñera eta olako gausak.

Andere: Torrevejian egon nais ondartzan

—Egoera hau gazteleraren sarbide bilaka daiteke, zeren eta, etxeko hitza zein ote den zalantzan egonez gero umeak seguruenez gaztelera-tik mailegu bat hartzera joko bait du, batez ere bizkaieraz, non behar-bada gaztelera-tik hartutako berba gehiago dauden beste euskalki batzuetan baino. Umeak etxeko hizkerako somatzen du gaztelera-zko hitza eta haxe erabiltzen du bere eguneroko komunikaziorako.

Oraintsu aipatu dugunaren adibidetzat ere har dezakegu lehengo «*fregaderie*»: «harria» goi-erregistroa bada, hau da, umeak batukotzat somatzen badu⁸, «*fregaderie*» etxeko berba dela pentsa dezake. Honen adierazgarriak izan litezkeen beste adibide batzuk ekar ditzakegu korpusetik:

Malen: Leonardo di Caprio-gaz enamoratu zan

Andere: agarratu olan, eskuek solteu

Andere: nik erderas asi ein bierko nas se lie itteste

—Ondoren, galdetegian jasotako beste zenbait erantzun berma ditzaketen erabilerazko adibideak emango ditugu:

Andere: goixetik altza nas, armusu artun dot, armusue

Malen: urrengo egunien ba armusue artzengu

Malen: gero selan ortuen selan ibil bidan eta selako materixelak erabili bixen ba ortuen ibiltzeko

Malen: eta orduen ya barkua iseberragas eta kontra ein banien

Malen: Nire ama ganera bentanan ondoan nire ama

Andere: Enas akordaten, oin dala asko

—*Kuartue* eta *gela*. Biak erabiltzen dituzte, hala ere jardunean gehienbat *gela*. Berba honen gorabeherak kurioak dira: Busturiko hizkeraz, aitite-amumak erabiltzen duten moduan, *kuartuek* goiko logelak dira eta *gelak*, ordea, behekoak. Erdiko belaunaldiak berdindin erabiltzen ditu goikoak zein behekoak izendatzeko, eta txandaketaz, umeek egiten duten bezalaxe; hala ere, umeek askozaz maiztasun handiagoz erabiltzen dute *gela kuartue* baino, euskara batuak indarturiko berba da eta⁹:

Malen: topaten Leo ya gela baten

Malen: Leonardo di Caprio egon san urean, uren... gela... gela baten

Malen: joaten san gora beran gelan sartzen san ta irakurtzen ban edo olan

⁸ Ikus beherago 4.1. *Estilo eta erregistroak*.

⁹ Hurrengo kapituloan euskara batuak indar ditzakeen hitzez arituko gara zehazkiago.

3.4. *Barietateko eta estandarreko hitzak erro ezberdinetakoak direnean*

Etzeko hizkerako eta batuko hitzak erro guztiz ezberdinetakoak direnean (edo, behintzat, umeez ezberdin iger ditzaketanak) direnean, badirudi, nahasteak irauten duela. Hala ere, hemen batua eta bizkaieraren arteko nahaste gutxiago suertatuko dira, forma guztiz edo ia guztiz ezberdinak bait dira. Hala ere, aukeraketa bat egiten da eredu bien artean eta aipatzekoa da normalean ume biek berba bera aukeratzen dutela, salbuespenak salbuespen:

Batuaz	Etzeko hizkeraz	Malen	Andere
Anka, zangoa	Bernie	Ankie	Anka
Apaiza	Abadie	<i>Abadie</i>	<i>Abadie, apaisa</i>
Arkakusoa	Ardixe	<i>Ardixe</i>	Arkakusue
Ataria	Etartie	Portala	Portala
Aurkitu	Topeu	<i>Aurkitu</i>	<i>Topeu</i>
Azkarra	Ariñe	<i>Ariñe</i>	<i>Ariñe</i>
Barazkiak	Ortuarixek	Baraskixek	Baraskixek
Belea	Erroixe	<i>Erroixe</i>	Belea
Beroegi	Lar bero	<i>Lar bero</i>	<i>Lar bero</i>
Bestela	Ostantzien	<i>Ostantzien</i>	<i>Ostantzien</i>
Bilatu	Topeu	<i>Topeu</i>	<i>Topau</i>
Bukatu	Amaittu	<i>Amaittu</i>	<i>Amaittu</i>
Bultzatu	Sakatu	<i>Sakatu</i>	<i>Sakatu</i>
Eraman	Eruen	<i>Eruen</i>	<i>Eruen</i>
Eskuina	Eskuma	<i>Eskumie</i>	<i>Eskuma</i>
Esnatu	Akordeu	<i>Esnatu, akordeu</i>	Altza
Gaixorik	Makalik	Gaixorik	Gaixorik
Hitz egin	Berba ein	<i>Berba ein</i>	<i>Berba ein</i>
Hitza	Berba	Hitza	Hitza
Hortzak	Agiñek	<i>Agiñek</i>	<i>Agiñek</i>
Hostoak	Orrixek	Ostoak	Ostoak
Hurbil	Urrien	Urbil	Urbil
Ibaia	Errekie	<i>Errekie</i>	<i>Errekie</i>
Igela	Ugasixue	Igela	Igela
Ihintza	Garue	Intza	—
Ireki, zabaldu	Idi	Sabaldu, ireki	Sabaldu
Itsusia	Motza	<i>Motza</i>	<i>Motza</i>
Izotz, izotzaldi	Leixe	Isostute	Isotza

Batuaz	Etxeko hizkeraz	Malen	Andere
Jarri	Para, planta	Jarri	Ipini
Jende gehiegi	Jente larrei	<i>Jente larrei</i>	<i>Jente larrei / geiegi</i>
Kazkabarra, txingorra	lñetasixe	Txingorra	Txingorra
Kilkirra	Grillue, txirri-txirrixe	<i>Txirri-txirrixe</i>	<i>Txirri-txirrixe</i>
Korapiloa	Marapillue	<i>Marapillue</i>	<i>Marapillue</i>
Korrika	Arrapaladan, ariñeketan	Korrika	Korrika
Langile	Beargin	Langille	Langille
Laprast egin, irristatu	Laban ein	<i>Laban ein</i>	<i>Laban ein</i>
Lapurtu	Ostu	Lapurtu	<i>Ostu</i>
Lohi	Basie	<i>Basie</i>	<i>Basie</i>
Lokatza	Basatza	<i>Basatza</i>	<i>Basatza</i>
Mihia	Miñé	<i>Miñé</i>	<i>Miñé</i>
Mila aldiz	Mille biderres	<i>Mille biderres</i>	<i>Mille biderres</i>
Mingotsa	Garratza	<i>Garratza</i>	<i>Garratza</i>
Moztu	Ebai	<i>Ebai</i>	<i>Ebai</i>
Oinutsik	Ortosik	Oiñutzik	<i>Ortosik</i>
Oraindik	Ondiño	<i>Ondiño</i>	Oraindik
Saskia	Otzarie	<i>Otzarie</i>	<i>Otzarie</i>
Sendatu	Osatu	<i>Osatu</i>	<i>Osatu</i>
Sukaldea	Eskatza	<i>Eskatza</i>	<i>Eskatza</i>
Tximista	lñestue	Tximistie	—
Urtxintxa	Katagorrix	Urtxintxa	Urtxintxa
Zaila	Gatxa	<i>Gatxa</i>	<i>Gatxa</i>
Zaindu	Jabon	<i>Jabon</i>	Saindu
Zezena	Idixe	<i>Sesena</i>	<i>Sesena</i>
Zilborra	Tripeko sillé	<i>Tripeko sillé</i>	<i>Tripeko sillé, tirriñe</i>
Zorua, lurra	Bein ganie	Lurré	Lurrie
Zu bezala	Sure les	<i>Sure les</i>	<i>Sure les</i>
Zutik	Sutunik	<i>Sutunik</i>	<i>Sutunik</i>

Nahiz eta bata edo bestea aukeratzeko orduan eragin duenaren gainean edota aukeraketa egiteko irizpidearen gaineko ondorio orokorrik atera ezin dezakegun, hitz zehatz batzuei buruz zenbait oharpen egitea merezi du:

—*Ardixe* eta *ardixe* batuaz *ardia* eta *arkakusoa* dira. Hizkuntzak homofonia desagitera jotzen du, eta badirudi hauxe bera gertatu dela Andereren hizkeran behintzat.

—*Berba ein* baina *hitza* erantzuten dute biek. Hau nahiko arrunta da. Eguneroko hizkeran askozaz sarriago agertzen da *berba ein* esapi-dea, *hitza* baino; azken honen eremu naturalagotzat jo dezakegu gure umeen «euskera koaderno», esate baterako, non hasieratik amaierara arte metahizkuntza erabiltzen den eta honelako terminoak sarriago agertzen diren.

Izugarri harritu ninduen hurrengo gertakariak: umeek *jarri* edo *ipini* erabiltzea etxean *para* edo *planta* esaten dena adierazteko. Izan ere, ni etxe hartan egon naizen guztietan parra-parra entzun dizkiet aita-amei eta aitite-amumei hitz horiek, eta batez ere umei zuzentzeko, leku batean geldiaraztea benetan zaila bait da. Grabaketen korpusean ere honen adibide bat dugu:

Malen: eta gero bebai, ba, e..., selan da? ipintzen san ba, teillatu ganera igoten san

—Atal honetan aipaturiko hitz batzu (galdetegian jasotakoak) erabileran benetan horrela agertzen diren ziurtatzeko, grabaketetan agertzen diren hainbat adibide emango ditugu:

Andere: Geur joan ga... altza nas goixetik, goixetik altza nas

Andere: Pillo gausetara dakit ta estot eskolara kontako se ostantzien hamarretara, estakit senbat ordurarte egongo nasen amen

Andere: Se ostantzien esta, estu ataaten soñurik

Malen: Eta orregaittik ein bien pelikulie, ostantzien es san egongo pelikulie

Malen: ikestengu [...] selan saindu bidun gure ingurunie

Malen: gero bebai jabon bidogule esaten dosku

Malenek *saindu* erabiltzen du, galdetegiko erantzuna *jabon* izan arren. Erabileraren eremuan, *berba* bakoitza zein ereduri dagokion jakin arren, ezinezkoa da nahasterik ez suertatzea. Beharbada hauxe izango litzateke *berba* berrien *jabekuntza* egokia: etxeko *berbak* ahaztu gabe besteak sinonimo moduan bereganatzea, baina ez bata ordezkatzeko bestea.

Malen: esbadan basatzara jausi garelako, bueno baña beti beti joaten gara etzera bustitte eta sikindute

Malen: errekan eta olan egoteko

Malen: gero atie sabaltzensunien ukitzensun tuellak eskeitzeko

Malen: sabalduban eta esban topa esebes

Malen: ta bentanien erdi sabalik

Malen: selan ein bien eta senbat biderrez ba... senbat biderres ebai bien

Malen: nire amak ta nire aittek lurrien ein bien lo

Malen: Iratxe... txikitxue da, argala, bueno, argala, bai, errubixe, ule laburdune, anka txikitxuek

Andere: ipini ankak barra batzun

Andere: eta lapur batzuk ostu egiten diote

Andere: «ori da mutilla ladrondu nuenari, lapurtu nuenari»

Anderek bai *ostu* bai *lapurtu* erabiltzen du, hala ere, *ladrondu* bezalako interferentziak ez dakit zein punturaino diren arruntak bere hizkeran —eguneroko hizkeran eta batez ere lagunekin edo aritzen deanean—, ezta zein punturaino etxeko hizkera finkatuta ez eukitzearen ondorioa den ere.

Andere: Erderas erres bebai eitten yast baña gatxague, pasadan urtien gatxague eitten yasten, gatx, -gatx-gatxa

Andere: Gaixorik nagoela!

—Badaude hitz bikote batzuk euskara batuan sinonimo moduan nahiko aske erabiltzen direnak. Jadanik ikusi ditugu batzuk atal honetan, zeintzuen bat ere ez den etxeko hizkeraz erabiltzen den forma:

Batuaz	Etxeko hizkeraz	Malen	Andere
Anka, zangoa	Bernie	Ankie	Anka
Ireki, zabaldu	Idi	Sabaldu, ireki	Sabaldu
Kazkabarra, txingorra	lñetasixe	Txingorra	Txingorra
Laprast egin, irristatu	Laban ein	<i>Laban ein</i>	<i>Laban ein</i>
Zorua, lurra	Bein ganie	Lurré	Lurrie

Hauetan ume bietan jokabide bera daukagu. Esanguratsua da galde-tutako bostetatik kasu bakar batean eusten diotela etxeko hizkerari. Beste lau kasuetan estandarrean erabiltzen direnetako baten bat aukeratzten dute batez ere, eta sinonimorik ez dute ematen kasu bakar batean baino, hots, Malenek «*sabaldu, ireki*» esatean baino¹⁰.

¹⁰ Izan ere, galdetegietako kasu guztietan ikusi ahal izan dugunez, umeek sinoni-moak ematen dituzten kasuak bakanak dira, bai barietateko erantzuna, bai estandarre-koa ere ematen dutenean.

Ikus dezagun, bada, oraintsu emandako galdetegian agertzen ez diren bestelako sinonimoen kasuak¹¹:

Batuaz	Etxeko hizkeraz	Malen	Andere
Adiskidea, laguna	Lagune	<i>Lagune</i>	<i>Lagune</i>
Erori, jausi	Jausi / Jeusi	<i>Jausi</i>	<i>Jausi</i>
Eserita, jezarrita	Jesarritte	<i>Jesarritte</i>	<i>Jesarritte</i>
Gaizki, txarto	Txarto	<i>Txarto</i>	<i>Txarto</i>
Haurra, umea	Umie	<i>Umie</i>	<i>Umie</i>
Hautsi, apurtu	Apurtu	<i>Apurtu</i>	<i>Apurtu</i>
Ipini, ezarri	Ipiñi	<i>Ipiñi</i>	<i>Ipini</i>
Iritsi, heldu	Heldu	<i>Heldu</i>	<i>Heldu</i>
Madaria, udarea	Madarixe	<i>Madarixe</i>	<i>Madarixe</i>
Motza, laburra	Laburre	<i>Laburre</i>	<i>Laburre</i>
Ongi, ondo	Ondo	<i>Ondo</i>	<i>Ondo</i>
Pixka bat, apur bat	Apur bet	<i>Apur bet</i>	<i>Apur bet</i>
Tokia, lekua	Lekue	<i>Lekue</i>	<i>Lekue</i>

Sinonimo hauetako bat etxeko hizkeran erabiltzen dena da. Eta, nabaria denez, egoera guztiz aldatu da: korpuseko hamairu kasuetan jokamolde bera daukate ume biek, hau da, etxeko hizkeraren formari eustea. Uste dut emaitzak nahiko adierazgarriak direla: eskolako lexikoan lekua eduki du etxeko lexikoak eta honek bariatateko hitzen iraupena indartu egin du, ez da galerarik suertatu eta ziurrenez beste sinonimoak ere —etxeko hizkeran erabiltzen ez direnak: *adiskidea*, *erori*, *eserita*, *gaizki*, *haurra*, *hautsi*, *ezarri*, *iritzi*, *udarea*, *motza*, *ongi*, *pixka bat*, *tokia*— ez dira arrotzak umeentzat. Esan nahi dena hauxe da, ikastolan, zein komunikabideetan, zein liburuetan, sinonimo biak agertzen badira umeak badaukala indargarri bat bere etxeko euskarako, eta, aldi berean, bestelako lexikoa ere ikas dezakeela.

Ohar bat egin behar da *ipiñi* hitzari dagokionez: *ipiñi* etxeko berbatzat jo arren, Busturiko berezko forma *imiñi* da eta horrelaxe erabiltzen dute gehienbat gurasoez landako beste senideek. Hala ere, gure bigarren belaunaldian jadanik suertatu da aldaketa bat *imiñi* > *ipiñi* beste zenbait hitzetan gertatu den legeaz, batuko eredura asimilatuz. Bestalde, Andereren kasuan kurioa da berba honetan ahoskera /ipini/ dela

¹¹ Gogoratu behar dugu galdetegiak erderazko berba emanda gauzatu zirela.

—behintzat galdetegian eta noizean behin grabaketetan—, hain zuzen, bustidura egin gabe.

—Beste fenomeno berezi bat da arlo semantikoak ados ez datoze-nean. Alegia, estandarrez eta barietateaz, hizkuntza bera diren heinean, arlo semantikoak nahiko bat etortzen dira¹². Hala ere, hainbat arazo topatu izan ditugu, non aldaketa semantikoa posiblea den¹³.

Ikus dezagun jasotako adibide batzuetan zer gertatzen den:

Etxeko hizkeraz	Batuaz
Idixe	Idia Zezena
Agiñek	Haginak Hortzak
Topeu ¹⁴	Aurkitu Bilatu
Orrixek	Hostoak Orriak

Ikusten dugunez, gertakari bera da hiru kasuetan: batuaz zeinu linguistiko ezberdin biren bitartez bereizten denak, Busturiko hizkeraz forma bakarra dauka adierazteko. Zer gertatu izan da kasuotan umeen hizkeran? Alonso Cortes-ek azaltzen duenaren arabera, zabaltzerik gertatu al da arlo semantikoetan edo berdin eusten diete umeek? Hauexek dira jasotako erantzunak:

¹² Coseriu-k honelaxe definitzen digu zer den arlo lexiko edo semantiko bat: balio lexiko amankomun batek batzen duen lexema taldea da, balio amankomun hau arloaren balioa da eta lexema hauek esanahiaren ezaugarri bereizgarrien bitartezko oposaketaz banatzen dute. COSERIU, E.: *Principios de semántica estructural*, Madrid, Gredos, 1977.

¹³ «Los mecanismos por los que se altera la estructura del significado léxico y gramatical son básicamente dos: *ampliación* y *disminución*, que ocasionalmente puede suponer su desaparición.

La **ampliación** consiste en la adición de uno o varios lexemas, que provoca la alteración del campo de tal manera que el nuevo lexema puede ocupar parte del campo de otros, lo que constituye una **restructuración** interna del mismo.

La **disminución** del campo consiste en la supresión de un lexema, que puede provocar también su restructuración, ocupando un lexema el espacio que deja el lexema desaparecido». ALONSO CORTÉS, A.: *op. cit.*, 2 or.

¹⁴ «*Topatu*» edo «*topa egin*» aditzak ere erabiliak dira batzuetan batuaz, hala ere gehienetan aurkitzen ditugunak «*aurkitu*» eta «*bilatu*» dira, maila jasoagokoak ote.

Batuaz	Etxeko hizkeraz	Malen	Andere
Idia	Idixe	<i>Idixe</i>	<i>Idixe</i>
Zezena	Idixe	Zezena	Zezena
Orriak	Orrixek	<i>Orrixek</i>	<i>Orrixek</i>
Hostoak	Orrixek	Ostoak	Ostoak
Hortzak	Agiñek	<i>Agiñek</i>	<i>Agiñek</i>
Haginak	Agiñek	<i>Agiñek</i>	<i>Agiñek</i>
Bilatu	Topeu	<i>Topeu</i>	<i>Topau</i>
Aurkitu	Topeu	Aurkitu	<i>Topeu</i>

Aipatutako bikoteetan kontrako fenomenoak suertatzen dira: Batuaz ezberdintzen diren animalia biak (*idia* eta *zezena*) izen bakar baten pean batzen dira Busturiko hizkeraz, *idixe*. Hala ere gure umeez euren arlo semantikoa aberastu dute ezberdintasun hartan oinarrituz. Ez da, bestalde, batere arraroa umeez «*ostoak*» esatea eta ez «*orrixek*», ziu-rrenez irakatsi bait diete «orriak» liburuetakoak direla eta, jakina, arbolan daudenak «*ostoak*».

Honetan ere ikusten dugu gertakariak nahiko isolaturik suertatzen direla eta orokortasunik ez daukagula, zeren eta familiako hizkeran bezalaxe, batuaz *hortzak* eta *haginak* direnak Malen eta Andererentzat *agiñek* hitzak estaltzen ditu. *Topeu* hitzaren kasuan Malenek estandarrea hurbilduz ezberdindu zituen *topeu* eta *aurkitu*, Anderek, ordea, ez. Honek azalpen erreza dauka. Beharbada, apur bat maltzurra izanik, jarraian galdetu zitzaizkien berba biak umeei, beraz ez da harrigarria momentu horretan Malenek ezberdintasun bat aurkitu behar izana, «*buscar*» eta «*encontrar*» galderei erantzutearren. Hala ere, normalean ez du inoiz erabiltzen «*aurkitu*», «*topeu*» edo «*topa*» baino:

Malen: sabalduban eta esban topa esebes

Malen: ordun esban topa esebes. Topako basenak ixen sien, ixengo sien sapatak, se amarrata eukin nebasen

Malen: lelengo topaten deue itxasoan, nai ixen deue topa Titanik-en restoak, ba, sobra diesen gausek ta topa nai ixen bien ba, selan da? kollar bat.

Malen: orduan topa bien baul bat

Andere: ta topaten asten da, estakit ser egin, topetan asten da eta txerria ta esebes, iñondik

Beraz, lau kasuetatik, bitan suertatzen da arlo semantikoaren zabalpena, batuaren erabileraren antzera, eta beste kasu bitan berdin eusten diote umeez etxeko banaketari.

3.5. Estandarreko forma barietatez «maskaratzen» da

Dagoeneko aipatu dugu batzuetan batuko hitzari bizkaierako itxura ematen diotela umeek. Hemen ditugu bereiztuta era honetan jaso ditugun guztiak¹⁵:

Batuaz	Etxeko hizkeraz	Malen	Andere
Arkakusoa	Ardixe		Arkakusue
Aulkiak	Sillek	Aulkixek	Aulkixek
Azkenean	<i>Askanien</i>	Askenien	Askenien
Barazkiak	Ortuariyek ¹⁶	Baraskixek	Baraskixek
Berria	Barrixe		Berrixe
Betilea	Betulie		Betilie
Dantzatu	Jantza ein	Dantza ein	Dantzeu
Eskumuturra	Eskuturre	Eskumuturre	—
Gerria	Garrixe	Gerrixe	Gerrixe
Haserretuta	<i>Asarratute</i>		Aserratute
Hodeiak	Edoixek		Odoixek
Ilargia	Iretargixe	Ilargixe	Ilargixe
Ilarrak	Iderrak		Illerrak
Ipurdia	Eperdixe		Ipurdie
Izara	Iserie	Isarie	Isarie
Kezkatuta	Arduratute, (preokupeta)	Keskatute, (prokupeta)	Keskatute, (preokupeta)
Lanean ari da	Bierrien dao		Lanien dao
Larrua	Narrue	Larrue	Larrue
Masaila	Matraille	Masaille	—
Sudurra	Surré	Sudurre	Sudurre
Sugandila	Surangillie	Sugandille	Sugandille
Sugea	Sugoie	Sugie	Sugie
Trumoia	Trugoie	Trumoie	Trumoie
Tximista	Iñestue	Tximistie	—
Untxia	<i>Konejue</i>		Untxixe
Urdina	Asule	Urdiñe	
Zorua, lurra	Bein ganie	Lurré	Lurrie

¹⁵ Bakarrik isladatuko dira umeek era honetan eratzten dituztenak, bestelako erantzunei dagozkien laukitxoak hutsik utziko dira.

¹⁶ Hauxe izan daiteke hitz honen azalpena: maiztasunaren aldetik, posiblea da ikas-tolan gehiagotan erabiltzea, hantxe bazaltzen dute eta.

Hemen, kasu gehienak bilduta, errezago ikus dezakegu zelan suertatzen diren nahasketa izugarriak. Batzutan batuko hitza hartu, eta bizkaierakoaren antz handia daukanez, ez dute erreparatzen hitz amaieran baino: *trumoie aserretute, askenien*... Bestetan, ez dute ezagutzen zein den bizkaierako hitza eta, bizkaieraz ari direlarik, bizkaierako bat erabili behar dute: batuko berba etxeko mugatzaile sistemaz janzten dute, eta kitto: *sugandille, masaille, baraskixek*... Hitz guzti hauek bizkaierakotzat jotzen dituzte.

Tximistie berba dela eta, behin, froga hauek egin baino askoz lehenago, afaltzen geundela, *iñestue* entzun nion Dorori. Gauaz ez nintzen oroitzen zelan zen hitza eta, logela berean geundela, Maleni galdetu nion ea zelan esaten zen «rayo» euskaraz. Berak azkar-azkar «*tximista*» erantzun zidan eta, jakina, nik zehaztu nion: «*bai, baña selan esatensue biskaieras?*», «*A!, ba tximistie!*». Uste dut nahiko argi dagoela umeentzat hauek direla bizkaierako forma peto-petoak gainera eta lar sartuta daudela euren lexikoan, zeren eta Dorori ordubete lehenago nik ez ezik Malenek ere entzun eta ulertu zion «*iñestue*».

Kasuotan esan dezakegu ordezkapen bat suertatu dela: estandarra > barietatea (estandarreko formak barietatezkoa ordezkatu du). Beste kasu batzuk ere ikusi ditugu, non erantzunetan herri fonologia-
ren arrastorik ez dagoen (batzuetan izan daiteke mugatzaileak hitzotan armonia bokalikorako lekurik ez daukalako):

Batuaz	Etxeko hizkeraz	Malen	Andere
Belea	Erroixe	Bularra	Belea
Bizkarra	Lepue		Bizkarra
Bularra	Bulerra		Bularra
Ekaitza	Saparradie, trugonadie		Ekaitza
Etzan	Etzun		Etzan
Hondartza	Plaixe	Ostoak Korrika	Ondartza
Hostoak	Orrixek		Ostoak
Korrika	Arrapaladan, arineketan		Korrika
Zabaldue, ireki	Idi	Sabaldue, ireki	Sabaldue

Eta beste hainbeste. Hala ere, kasu hauetan guztietan ezin dezakegu ziurtasun osoz esan berba hauek guztiak bizkaierakotzat ehuneko ehunean jotzen dituztenik. Hala ere, honela izan ezean, dena dela, baldin ez

badakite bizkaierako hitza eta dakiten bakarra batukoa bada, erabiliko duten bakarra hauxe izango da. Hobeto esanda, ezagutu arren —etxean entzuten dituztenean arazorik ez bait daukate ulertzeko esanahia— finaturik daukatena batukoa baino ez bada, honek esan nahi du etxeko lexiko horretaz jabetu ez direla. Hutsune bat daukate euren erregistroan beste erregistro bateko zatiekin eta apurrekin bete behar dutena.

3.6. Aroak

Eskolan badaude hainbat gauza erreskadan ikasten eta esaten ditugunak, hauek dira, beste batzuren artean, asteko egunak, hilabeteak edo urtarok. Gure umeei galdetuta zelan esaten diren honelakoak hauexek izan ziren erantzunak:

ASTEKO EGUNAK

Etxeko hizkeraz	Malen	Andere
Astelena	Astelena	Astelena
Martitzena	Martitzena	Asteartea
Eguastena	Eguastena	Asteaskena
Eguena	Eguena	Osteguna
Barikue	Barikue	Ostirala
Sapatue	Sapatue	Larunbata
Domeka	Domekia	Igandie

Malenen kasuan, bizkaierako formak agertu arren, segurtasun osoz ez zituen esan eta, ikus dezakegunez, zalantza batzuk ditu, hala nola «domekia» esatea eta ez «domeka» ez «domekie». Gainera, berak aitortu zidanez. «*Uste dot holan dala, liatu egiten nas eguastena eta eguena*». Hala ere, batzuk —korpusean jaso ditugunak, behintzat— erabilera arruntean agertzen dira:

Malen: oingo astien, sapatuen goixien jarrikogu denda;

Malen: sapatu-domeka kanpiñen pasatukogu.

Andereren kasua kuriosoagoa da, ez bait daki bizkaieraz zelan esan egunak, baina hori bai, «igandie» eta ez «igandea», bizkaieraz esateko eskatu bait nion. Baina beharbada harrigarriena da «Joxepantoni» kantarekin gertatzen dena: egun guztien izenak, bizkaierakoak, agertzen

dira jarraian eta Anderek berak kantatu dit behin baino gehiagotan, pandero eta guzti:

*«Joxepa Antoni kolore gorri,
kapitan baten alaba.
Aitak doterik emon ez arren,
Ez deu faltako senarra.
Astelehenian ezkondu eta
Martitzenian basora.
Eguaztenian orbela batu
Eguenian etxera.
Barikurako bendēja prestau
Zapatuan be plazara.
Domekan barriz, apaindu eta
Hamarretako mezara».*

Hauxe da kanta eta, esan legez, kurioa da Andere gai izatea denak kantatzeko baina kantatik aparte ez izatea esateko ezta batzuetan ulertzeko ere.

HILABETAK

Hilabeteen kasua bestelakoa da. Asteko egunak etxean familia osoak horrela erabiltzen baditu ere, hilabeteen bizkaierako izenak guztiz galduta daude. Elisak, amumak, honelako izenak eman zizkigun:

Urtebarri	
Febreru	Seseille
Martxue	Epaille, Martixe
Apirille	
Maiatza	
Junixu	Garille
Julixu	Garragarrille
Abuztue	
Setienbre	
Otubre	Urrixe
Nobienbre	Semendixe
Abendue	

Hala ere, berak erabilitakoak lehenbiziko zutabekoak dira, hau da, gazteleratik harturikoak. Besteak, bizkaierako forma «jatorrak», ezagu-

tu bai, baina ez ditu erabiltzen. Hau ikusita, hurrengo belaunaldian fenomeno ezberdin bi suertatzen dira: alde batetik, posiblea da honela erabiltzen irautea edo, bestalde, batuko formak hartzea. Lehen aukera Julenena, osabarena, da, baina Dorok eta Rosak batuko formak erabiltzen dituzte gehienbat. Ez dugu ahaztu behar biek euskara edo euskaraz irakasten dutela eta, beraz, batua egunero erabiltzen dutela.

Hau jakinda, ez gara harritu behar umeek «urtarrilla», «otsaila», «martxo», «apirilla»... eta abar esaten badute.

URTAROAK

Azkenik, urtaroak. Ezberdintasuna batuko eta bizkaierako formaren artean fonetika mailakoa bada, ez dago arazorik: bai Anderek bai Malenek «*ude*» esaten dute eta «*negue*» ere bai —azken honetan Andereren erantzuna «*negua*» izan zen arren, hizkera arruntean «*negue*» da forma erabilia—. Hala ere, ez bata ez besteak ez dute ezagutzen «*udagoien*» hitza eta «*udazkena*»-k ordezkatuta dago zeharo. Berdin gertatzen da «*udabarrix*e» berbarekin: umeengandik jasotakoa «*udabarrix*e» izan zen.

Malen: eguraldi ona egiten deuenien ba ondartzara joaten gara bueno neguen ez, uden bai baña neguen es.

3.7. Estandarraren erabileraren adibide batzu

Andererengan euskara batua errezago agertzen da. Berbaldi aske batean hasierako joera batua izan zela, zail suertatu zen bizkaierara pasatzea. Saiatu nintzen berbaldia zuzentzen nire interbentzioak ugariago eta bizkaieraz egiten, eta badirudi azkenean, grabagailu aurrean konfidantza apur bat gehiago hartuta, Anderek erregistro landua laga eta egunerokora jo zuela (denboraldi batez, behintzat).

Edonola ere, batuaz berba egiten duen bitartean, ba al dago bizkaierako lexikorik estandarrean ere irauten duenik? Eta, honela izanez gero, ze motatako lexikoa da?

—«*Eta nik ixengo dudales an...*»

—«*An saldiari emon janaria*»

—«*Animalieri emon janaria*»

—«*Es, andereñok es du ixten linterna eramaten*»

—«*Linterna duenak emoteko niri*»

—«*... ta berak es banes eukin*»

—«*Niri esebes, es sidaten ipiñi*»

- «Maleneri bes»
- «... gu lelengo juan giñen Torre viejara abioian bakarrik»
- «bera beranduao etorri seles»
- «etorri sen gure eiñe»
- «ogera sartu sen»
- «trenetik gabaraño, goixetik gaba, ta gabatik...»
- «Bada, olako toboganak, tubotxo batzuk, trapolina eta órrek gausak egon siren»
- «... euskaldunak, eta eurekin, eurekin jolasten...»
- «... deskojono batzuk eurekas»
- «Eurentzat, klaro, baña guretzat es»
- «andereñok esaten didales»
- «Pedaleo baten bebai»

Gehienetan irauten duten bizkaierako formak forma lotuak izaten dira, batzu aztertugabeak: -les, be, -eiñe.

Bestalde, aipagarria da «eurak» bizkaierako izenorde berezkoaren iraunkortasuna. Badirudi anaforiko honek, umeen erabileran anaforikoaren esparrua ez ezik, izenorde neutroarena ere betetzen duela:

Berak	Eurak
Haiek	

Beren	Euren
Haien	

Era berean, kurioa da egitura zehatz bat, etxeko hizkeraren berezkoa dena: «Órrek gausak». Geroago landuko dugu egitura honen erabilera¹⁷.

Bestalde, eta gai honekin amaitzeko, azaldutako egoera honetan —batuaz egiten ari delarik, alegia— aipatu behar da galderei erantzutean, galderak bizkaieraz eginda dauden legez, jasotzen den erantzuna batuaz ere dela; hala ere, errepikatzen diren terminoak galdetzen diren bezalaxe errepikatzen ditu Anderek:

- Nagoregaz?
- Nagoregaz»

¹⁷ Ikus. «Bestelako erabilera batzu» kapitulua.

Eta ez «Nagorerekin».

—Baña bakarrik areaz einye?

—*Areaz einye*

—Ta zelan trenien?

—*Trenien lagun batzuk egin genuen.*

3.8. *Sinonimo batzuk galeraren adierazgarri*

Etxeko barietateko formen atzerakada gaztelera eta batuaren aurrean beste gertakari batean ere da somagarria: sinonimoen kasuan, alegia.

Etxeko hizkeran batzuetan ikusten dugu sinonimo moduan erabiltzen direla, nolabait esatearren, bizkaierako berba «berezko» bat, gaztelaratik mailegututako beste berba batekin batera. Baina, zer daukagu gure umeen kasuan? Gehienetan hitz bi hauetatik, gaztelerazkoari eusten diote eta honen ondoan, sinonimo moduan, batukoa sartzen da lexikoan —batzutan batukoa delako kontzientziaz, bestetan bizkaieraz «maskaraturik»—:

Etxeko hizkeraz	Malen	Andere
Galasota /proibidute	Proibidute / debekatute	Proibidute / debekatute
Ardurature / preokupeta	Prokupeta / keskatute	Preokupeta / keskatute
Duen / Debalde	Debalde / doain	Debalde
Osta-osta / juxtu-juxtu	Juxtu-juxtu	Juxtu-juxtu

Honetaz gain, biak ezagunak badira ere, (*Proibidute, debekatute; preokupeta, keskatute...*), erabilerari begira, maiztasun askozaz handiagoz agertzen dira «*proibidute*», «*preokupeta*» edo «*debalde*» modukoak. Izan ere, ez Malenek ez Anderek, ez dute «*osta-osta*» edo «*duen*» ezagutzen¹⁸ eta, jakina, adibidez Malenen kasuan etxeko hizkeraz ari dela, ez du sekula «*doain*» edo «*doainik*» esango, «*debalde*» baino. Korpusean ondoko adibidea baino ez da agertzen:

Malen: Eurepebai ba preokupeta eta nigarres

¹⁸ Hauxe izan zen galdetegia egindakoan berba hauetaz galdetzean erantzun zutena, hala ere elkarrizketa arruntan, denboralditxo bat pasata, grabatu gabe eta galderarik egin gabe, berbok esan nizkien —perpaua normaletan txertatuta— eta ez zuten arazorik eduki, ederto-ederto jakin zuten zer esan nahi zuten; eta ziur nago etxean ere entzuten dituztela arazorik gabe.

3.9. Bestelako erabilera batzu

ÓRREK / HORIEK ERAKUSLEAK

Galdetegian honelako emaitza jaso genuen:

Batuaz	Etxeko hizkeraz	Malen	Andere
Txakur horiek	Órrek txakurrek	<i>Txakur órrek</i>	<i>Txakur órrek, órrek txakurrek</i>

Hauek izan ziren eman zituzten erantzunak. Beste momentu batean Maleni galdetu nion ea berak «*órrek txakurrek*» esaten zuen eta ezetz ihardetsi zidan, aurpegi arraro batez.

Goazen, bada, orain erabileran ze nolako adibideak topatzen ditugun:

Malen: ze kollar ori e..., selan da?, kollar ori Titanik-en joan san andra batena ixen san

Malen: eta baul orretan es san egon

Malen: justo estrena sanien andra ori il ein san

Malen: eta kontaten deu andra orrék...

Malenen hizkeran oso maiz ditugu, erabilera estandarizatuari dago-kion bezala, erakusleak atze posizioan. Hala ere, badirudi jokaera hau etxeko hizkeraren berezkoarekin txandakatzen dela:

Malen: ta orduen ori jokue da, ba,...

Malen: ba, ori jokue da beisbolen moduen

Malen: barrero órrek eskuek agertzen dies

Malen: eta bitxo órrek nire amari billurre emotentzien (formaz, órrek bizkaierari dagokiona da —ez horiek—, kokagunez, ordea, ez)

Dena dela joera hau ez da Andererena bezain finkoa:

Andere: Bada olako toboganak, tubotxo batzuk, tranpoliña eta órrek gausak egon siren.

Andere: Ikessitte ikastolatik. Daos e... cero urtetik daos ikastolan órrek.

Andere: Olako, olako kukaratxatxuek, olako bitxotxo batzuk eta gu sapaltzen órrek eta Iratxe ta ni or sillaren ganera igoten, se niri es sait gustaten órrek eta.

Andere: Baí, baña órrek egiten... Esaten suen erresa isan sela. Eu-rentzat, klaro, baña guretzat es.

Andere: Ba porteroak esin ditu artun batzuk eta gero da selako demonioak saintzeko órrek.

Ikusten den legez, honelako formak Andereren hizkeran bizkaieraz ez ezik batuaz berba egiten duenean ere agertzen dira, azkenengo bi esaldietan. Hau nahiko bitxia da, zeren eta estandarra eta barietatea gehien nahasten dituenak Andere izaten bait da eta Malenek normalean gehiago jagoten bait du bere hizkera. Hala ere, korpusetik ateratako datuotan *órrek* izenorde moduan agertzen zaigu lehenbiziko esaldian izan ezik. Beraz, ezin dezakegu ziurtatu erakusle funtzioa betetzean Anderek bizkaieraz dagokion kokagunea aukeratzen duenik beti.

URTEN / IGON

Batuaz	Etxeko hizkeraz	Malen	Andere
Irten (naiz)	Urten (dot)	<i>Urten (dot)</i>	<i>Urten (dot)</i>
Igo (naiz)	Igon (dot)	<i>Igo (dot)</i>	<i>Igon (dot)</i>

Urten:

Andere: urteten da eta seose pasaten saio

Andere: eta urteten dies eta gu egon bigara korritzen

Malen: bazkaltzen ban, urteten san futin edo estakit, bueno, seose eitten

Malen: juxtu urteten dies eskuek ormatatik

Igon:

Andere: ta jolasten gaosen bitartien ba alturita batera igon bigara

Andere: Bai, ta gero ganera igoten da txorromorropikotayoke

Malen: teillatu ganera igoten san

Galdetegian era batez erantzun bazuten ere, gero erabileran kontra-kontrakoa ikusten dugu: erabilera defektiboa edo ez-ergatiboa ez da inondik ere agertzen. Andereren lehenbiziko perpausean batuaz jarduten du, besteetan, aldiz, bizkaieraz ari dira Andere zein Malen eta, hala ere, sistematikoki ikusten dugu *urten* eta *igon* aditzen erabilera batueraren legera.

TXAKUR BI / BI TXAKUR

Batuaz	Etxeko hizkeraz	Malen	Andere
Bi txakur	Txakur bi	<i>Bi txakur</i>	<i>Bi txakur</i>

Malen: monta giñen bertako saldixen eta ba, buelta bi emon eta urrengoari tokaten yatzon

Malen: Bi metro dekosen bat

Andere: aingeru bi erdian eta Jesus olan il senean

Andere: Gitxi dogu, bi berreuneko edo.

Andere: Bi urtegas guarderixen ibili nintzen

Andere: Bi urtetan eukingun Mirari ta gero bi, beste bi urtetan eukin (d)ogu Maria Luisa.

Txandakako erabilera agertzen zaigu, hala ere ez dut uste galdetegian bertan batuko erabilera hain seguru biek adierazteak *bi* zenbakariaren atzeko posizioa bermatzea dakarrenik.

GURE / NAHI

Andere: Eta suk se naisu txakurre... selako kolore naisu?

Doro: Nik selako kolore gure doten?

Andere: Argiri es basun naiago eittie?

Doro: Igual eittengu naranja, edo lila, selan gusu? Morea, more...

Andere: Estakit, ba berdie nai basu seuk, e? baña es mesedes, Lisari nai basun, ez Argiri.

Malen: Orduen erdikoak guri bebai botaten dosku pelotie eta esatentzagu ba guk nai bagun leun bota eta bebai botetxu batzukas.

Malen: Ba lelengo topaten deue itxasoan, nai ixen deue topa Tita-nik-en restoak.

Nahiko adierazgarria da Andereren jokaera. Bere aitarekin dagoen bitartean *nai* baino ez da irteten bere ahotik, aitik beti *gure* errepikatu arren. Hau ikusita, uste dut nahiko ondo somatzen dela batuko formen sakabanatzea, eremu guztietara, berdin hizketakidea edo gaia zein den.

4. Erabileran parte hartzen duten eragileak eta egoera soziolinguistikoa

4.1. *Estilo eta erregistroak*¹⁹

Hizkuntz komunitate batean sistema bat baino gehiago erabiltzen denean, pentsatzekoa da sistema baten izaera formalagoa dela bestea

¹⁹ Ikus LABOV, William: *op. cit.* 18 or.; LÓPEZ MORALES, Humberto: *op. cit.*, 3 orr.; ROTAE-TXE AMUSATEGI, Karmele: *Sociolingüística*, Madrid, Síntesis, 1988.

baino, eta bigarren hau egoera egunerokoagoetan erabiltzen dela. Suposatze hau gure azterketaren esparru zehatzera eramanez gero zera ikus dezakegu: gure umeek hizkuntz sistema biren artean bizi dira, alde batetik euren berezko hizkuntzatzat har dezakeguna, euskara alegia (gehien erabilitakoa eta konpetentzia handienekoa), eta, bestalde, gaztelera. Bakoitzari erabilera eremu bat zaio egoki, baina hau ez da gure ikergaia oraingo honetan; baizik eta euskara sistema barnean erabiltzen dituzten bi azpisistemak: lehenbiziz, eta esan bezala, egoera informalagoetan erabiltzen duten erregistro kolokiala, etxeko hizkuntza, familia eta lagun artekoa; eta bigarrenez, ikasitako euskara batua, eremu formalagoetara murrizten dena²⁰.

Hiztunak, hizkuntz kontzientzia daukan heinean, bata edo bestea aukeratuko du barneratutako parametro batzuren arabera. Aukeraketa hau izan daiteke kontzienteagoa egoera batzutan eta bestetan sistematikagoa, baina mutur batetik bestera joango da hizketa egoeretan egon daitezkeen hurrengo aldakien arabera:

—Hizketakidea: Esan dezakegu barietatea erabiliko dutela umeek, baldin eta hizketakidea ezaguna bada. Hala ere, hau ez da guztiz zuzena. Ezaguna izateaz aparte, hizketakidea ere barietateaz aritu behar da. Ni beti aritzen naiz umeekin euren etxeko barietateaz —ahal dudan neurrian, jakina— eta jasotako erantzuna beti izaten da barietatea. Hala ere, bisita batean, Malen lehen momentutik zuzendu zitzaidan batuz eta zergatik egiten zuen galdetuta, erantzun zidan egia zela, nirekin bizkaieraz egiten zuela ahaztua zuela. Azken batez, ni ezaguna izan arren, kanpoko naiz. Beraz, umeek hizketakideak sailkatzen dituzte etiketa baten pean.

—Lekua: Malen eta Andereren kasuan hiru eremu dira nagusi: etxea, kanpoko harremanak (herria) eta eskola. Argi eta garbi lehenbiziko bietan bizkaiera izango da nagusi eta eskolan, zer esanik ez, batua.

—Elkarrizketa gaia: Eguneroko gaiei buruz aritzeko aukeratutako erregistroa etxekoa da. Bestalde, oraintxe ikusi dugun moduan batuerari dagokion eremurik nagusia eskola denez gero, honekin zerikusia daukaten gaiek bereganatuko dute erregistro formal. Izan ere, umeengan

²⁰ Lehen aipatu ditugu «sistema» moduan gaztelera eta euskara, eta «azpisistema» moduan euskara batua eta etxeko euskara. Termino hauek zehaztu eta hobeto izendatuko ditugu: gaztelera eta euskara, orokorrean hartuta, kodetzat joko ditugu; eta euskararen barnean estandarra eta barietatea estilo edo erregistrotzat. Honela, umeak euskaratik gaztelarrera edo gaztelaratik euskarara aldatzean, *kode aldaketa edo traslazioa* egiten duela esango dugu eta, aitzitik, aukeraketa batueraren edo etxeko euskeraren artean izanez gero, *estilo edo erregistro aldaketa edo traslazioa* egiten duela esango dugu. Ikus GUMPERZ, J. eta BENNETT, A.: *Lenguaje y cultura*, Barcelona, Anagrama, 1981.

ez ezik, gurasoengan ere soma daitekeen fenomenoa da: etxerako lanak egiten laguntzeko momentuan gurasoek ere egokitzen dute hizkerara; ez da ahaztu behar alde batetik eurentzako ere hori esparru formalak dela, irakasleak diren heinean, eta bestalde, liburuen hizkerak ere bide ematen duela horretarako (zerbait batuaz irakurtzen badugu, honek lagunduko du gure erregistroa batuerara eramaten).

—Aldez aurretik nolako *hizkuntz harremana* suertatu den aipatutako hizketakidearekin, lekuan eta gaiaz. Denok dakigu egiten dugun guztiarekin hizkuntza lotuta dagoela eta harreman bat hizkuntza batez finkatuz gero, oso zaila dela kodez aldatzea.

Gure aztergaia zehaztuz, esan behar dugu guri momentu honetan dagokiguna erregistro aldaketa dela (estandarra eta barietatea), hain zuzen, eta honen barnean, erregistro biren artean suertatzen diren interferentziak eta ordezkatzeko fenomenoak²¹. Batez ere, estandarra > barietatea norabidean agertzen direnak, aztertutako eremua barietatearena bait da. Posiblea da alderantzizko zentzuan ere interferentziak eta ordezkapenak suertatzea (barietatea > batua), baina horretarako, azaldu dugun moduan, estandarra erabilitako lekuen, gaien eta hizketakideen arabera egin beharko litzateke ikerketa²². Hala ere, hau ez da aztertua izan, beharbada lan hau susmo orokor batek eragin duelako: euskara batuak urte, hamarkada edo, batek daki, mende batzuk barru euskalkiak erabat ordezkatzeko dituela.

Esan dugun bezala, gaia oso lotuta dagokio erabiltzen den erregistroari. Umeek irakurtzen dituzten ipuin guztiak batuaz daude idatzita —bai eskolan bai etxean— eta honek isladapen zuzena dauka euren hizkeran. Esate baterako, Anderek, berbaldi batean, etxeko hizkeraz egin arren²³, ipuin bat kontatzeko eskatuta, berehala aldatzen du batuerara. Ez da momentu baten erabateko aldaketa, ez da konziente, baizik eta apunka-apurka, gaien sartuz doan heinean, erregistroa aldatu behar duela konturatzen da. Lexiko arloan ez da oso adierazgarria, baina erregistro aldaketa argi eta garbi ikus dezakegu batez ere aditzei eta armonia bokalikoari begira:

Ba bein batean basen... Txerritxuena! Txerritxuena. Ba bein batean basiren iru txerritxu ta amak esan sien etzea egiteko. Ta joan siren aurrerantza ta lastoa topaban ta «ni(k) lastoskoa ingot». Gero joan siren aurrerantza beste biak eta «nik, egurreskoa», topaban, «nik egurreskoa»...

²¹ Ikus *Interferentziak, ordezkapenak eta txandaketak* kapituloa.

²² *Estandarraren erabileraren adibide batzu* atalean honen aipamena egiten da.

²³ Etxeko hizkeraz, baina, hala ere, apur bat bortxatuta eta batuarekin beti presente, grabagailu baten aurrean paratzen zen estraineko aldia zen eta.

egurreskoa... Ta berak larrillosko-ladrilloskoa topabia(n), topaban. Ta larri-larrillosko topabenean einban larrilloskoa, ta or joan siren, otzoa etorri sen ta putz eta putz eta bota suen eta egurresko etzera joan sen txarritxo; putz eta putz, jausi sen. Joan sen ona, ladrilloskora, egieta-koa, joan sen orra ta tik!, joan sen eta yasta. Es sion bota eta putz, ta esin suen. Teillatutik bera, baiña ipin sioten katxarro bat eta ortik joan sen eta gas! Geiago es sen etorri.

Era berean, eskolako ikasgaien izenak izen aldagaitzak dira, beti esaten dituzte batuaz: «*Lan kuadernoa*» (Andere), «*Ingurunea*» (Malen), «*Dantza*» —eta ez «jantza»— (Malen), «... *ta bertan emotentsusie ba igual baserria*» (Malen). Izan ere, izen bereziak dira, ikasgaien izen bereziak, eta, hortaz, ezin dira aldatu nahiz eta esaten diren momentuan bizkaieraz aritu. Gazteleraz ere ikasgaien izenak aldagaitzak dira: «*lenguaje*» (Andere), ez bait dute esaten ez Anderek, ez Malenek «lengoia» edo «gaztelera».

Egoeraren eragina, bestalde, nabarmen agertzen zaigu ondoko el-karrizketa zatian:

— *Berba eitten badot asko, asten nas blablablabla... Grabaten saude?*

— Ez!

— A!

— Baña ser gertaten yatzu ordun?

— *Gaixorik nagoela!*

— Ori bakitt! Baña, diñot, berba eitten dosunien?

— *Ba, me pierdo, galdu eitten nas, galdu!*

Grabaketa zati txiki hau Anderek grabatua izan zela jakin barik burutu zen. Berbaldi honetan zehar, batuaz aritu zen batez ere, momentu hau baino lehenago eta geroago, beti grabagailuaren aurrean grabatua izan zelako kontzientziatz.

Hala ere, grabaketa etendu eta guztiz erlaxatu zen etxeko erregistroa aldatuz. Gertaera hau aprobeztatuz, tranpa txiki bat egin nion eta haxe izan zen emaitza. Erregistro aldaketa edo traslazioa egoerak eragin zuela *Grabaten saude?* perpausak bermatzen digu: grabagailua berriro piztuta zegoela susmatu bezain pronto *saude* aditzaren agerpena daukagu, eta ez saos, etxeko hizkerari dagokiona.

Esan bezala, etxeko hizkera finkatuta ez egoteak ziurtasunik eza dakar erregistroetan. Eguneroko hizketan normal-normal erabiltzen diren formak, hiztunaren kontzientzia tartean dagoela, kolokan hasten dira:

Behin baino gehiagotan —hala ere, ez beti— entzun diet bai Maleni, bai Andereri, honelako adierazpideak: «*Beinganera jausi jast*», «*Beinganien dao*»... Hala ere, galdetzean zelan esaten zaion horri, «lurré»

edo «lurrie» erantzuten dute. Forma aztertugabea da eurentzat. Badakite zer adierazten duen, adierazia barneratuta daukate, baina argitasun falta daukate adierazleari dagokionez. Beraz, momentu horretan ondo finkatuta daukaten hitzaz —batuko hitzaz— ordezkutzen dute. Amonari edo osabari galdera bera egitean, ordea, hauxe izan zen erantzuna: «bein ganie» Elisak eta «beren ganie» Julenek (azkenengo erantzun honetan, adibidez, ikus daiteke osabarentzat ere forma aztertugabea dela, hau da, ez daki berak esaten duen forma kontraktua «behearen gainean» idatziko genukeena dela, oster, «beien» esan zezakeen eta ez «beren»), hala ere ez bata ez besteak ez dute batuko formarik erabiltzen inoiz eta ezinezkoa da, hortaz, ordezkapenik suertatzea.

Ziurtasun falta polimorfismo kasuetan beharbada nabariagoa da. Busturiko hizkeraz, «ohe» hitza nominatibo kasuan «oe» eta determinatzailearekin «oyé» (e + a > ie [ye]) esaten bada ere, deklinabideko beste kasuetan jokatzean kontsonante epentetiko bat sartzen da hitzeko bi bokalen artean eta, honela «ogera», «ogetik», «ogeratu» eta abar egiten da. Umeek ez daukate arazorik eguneroko hizkeran. Hala ere, galdetegian Andereren erantzuna «ogea» izan zen. Hau da, bapateko hizkera ez den momentutik, ziurtasunik eza formak nahasatarazten dio umeari; berak «ohea» batuko hitza ezagutu eta erabili egiten du, forma finkatua da, baina ez da gauza bera gertatzen bere etxeko hitzarekin. Hau bapatekotasunez irteten da bere ahotik, baina ez da tinkoa eta honek nahastea dakar, kontzientzia jokoan sartzen den momentutik.

4.2. *Elebitasuna eta diglosia*

Puntu honi dagokionez, alderdi bi dira aztergai: alde batetik, elebitasuna eta diglosia, orokorrean eta Euskal Herriko kasuan zehazkiago, aintzat hartzen diren ohizko modua eta, bestalde, euskarari dagokionez, estandarra eta barietateak (batua eta euskalkiak) jokuan sartzen ditugun momentutik sortzen den egoera.

Aipaturiko lehenbiziko puntuari ekingo diogu alde aurretik, kontzeptuak apur bat argitzearren.

Zelan ulertzen dute autoreek «elebitasuna» eta «diglosia»? Zeri egiten diote erreferentzia? Ikus ditzagun definizio batzu Karmele Rotae-txeren aburuz:

Hablar de bilingüismo es referirse pues a un caso particular de plurilingüismo, aunque, de forma general, sea el término usual para designar que la situación rompe con la barrera del unilingüismo. [...] se entiende por bilingüismo la aptitud, facultativa o indispensable, para

comunicar con interlocutores de dos mundos... alófonos, por medio de dos idiomas que presentan entre sí una proporción de diferencia lingüística tal que pueda afectar o incluso excluir la comunicación²⁴. [...] «diglosia» designa una situación en la que los miembros de una comunidad son conscientes de que las variedades intralingüísticas o interlingüísticas de sus repertorios están jerarquizadas; tienen conciencia también de que ninguna de estas variedades, por sí sola, es suficiente para integrar socialmente a todos los miembros de tal comunidad²⁵.

Euskararen liburu zurian honelako zehaztapena egiten zaigu:

Elebitasuna, beraz, gizabanakoaren eta bere portakeraren mailako zerbait litzateke: egoera horretan, posible da bi hizkuntzak botere, status, prestijio eta funtzio maila berdin batetan egotea. «Diglosia», ordea, maila sozio-kulturaleko hizkuntz organizazio mota bati dagokio: hor ezinezkoa da hizkuntza biek maila berdina izatea, ez botere status-ez, ez prestijioz, ez funtzioz; horregatik, gizarte horretan eten bat sortzen da hizkuntza bien artean, nor bere eremura atxikiz, eta jendeak jokamolde desberdina agertzen duelarik hizkuntza bakoitzaz²⁶.

Beraz, eta laburbilduz, hizkuntz ezberdinei gagozkiela agertzen zaizkigu termino hauek sarritan; elebitasuna gizabanakoarena da eta diglosia gizarte mailakoa; diglosia egon dadin hizkuntza biak estatus maila ezberdinetan kokatu behar dira. Hala ere, hau ez da aipatutako fenomenoak aintzakotzat hartzeko modu bakarra.

M. J. Azurmendik antzera definitzen digu elebitasuna: «[...] podríamos decir que tanto el “bilingüismo”, como el “multilingüismo” o el “plurilingüismo”, son fenómenos que hoy suelen entenderse como un resultado posible desde una situación de “contacto de lenguas”, [...] en los que se da la relación, y la alternancia en el uso, entre dos variedades lingüísticas distintas». Hala ere, aurreraxeago ekarpen berri bat egiten digu: «Una primera delimitación del bilingüismo podría hacerse en función de la “distancia lingüística” entre las variedades lingüísticas en contacto, distinguiendo por lo menos entre dos grados: el “bilingüismo”, cuando se da entre lenguas distintas; y el “bidialectalismo”, cuando se da entre variedades distintas de una misma lengua»²⁷. Eta, jakina, diglosiaren mota bi ere ezberdintzen ditu: «[...] distinguiendo: la

²⁴ ROTAETXE AMUSATEGI, Karmele: *Sociolingüística*, Madrid, Síntesis, 1988. (53 or.).

²⁵ *Op. cit.* (60-61 or.).

²⁶ EUSKALTZAINDIA: *Euskararen liburu zuria*, Bilbo, 1978. (620 or.).

²⁷ AZURMENDI, M.J.: «Bilingüismo, diglosia», *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, Bilbo, Deustuko Unibertsitatea, 1981. (222 or.).

diglosia entre variedades lingüísticas distintas de la clase que sean [...] pero internas a una misma lengua, como por ej. entre el alemán estándar y el alemán suizo en la Suiza alemana, [...] “endodiglosia”; y la que se da entre dos lenguas distintas [...] y que podríamos llamar “exodiglosia”»²⁸.

Ferguson-ek ere honela garatzen zuen 1959 urtean diglosiaren kontzeptua²⁹: hizkuntza-sistema bereko barietate biren arteko diglosiari egiten zion erreferentzia, barietate formala (altua), eta «herri-barietatea» (bajua). Bakoitzak bere funtzioak ditu hizkuntza-komunitatean. Barietate formala prestigioduna da, estandarizatuta dago, egonkorragoa da eta ez da lehen hizkuntza moduan ikasten.

Eta Azurmendik berak esaten duenez, diglosia mota bi hauek elkarturik osatuko lukete Euskal Herriko egoera, eta, zelan ez, islادapen zuzena aurkituko genuke gure ikerketan: gaztelera-euskara exodiglosiaz gain, euskara estandarra-euskara barietatea endodiglosia ere aurkituko dugulakoan egon behar bait gara aldeaz aurretik: «Además, pueden también darse a la vez la endodiglosia y la exodiglosia en una misma comunidad, como por ej. en nuestro País Vasco, siendo entonces la endodiglosia una consecuencia y reflejo de la exodiglosia: $A < B \leftarrow (B < B')$ »³⁰.

Eta, azkenik, badirudi Ninyoles ere eritzi berekoa dela —hau katalanerari buruz ari delarik—. Honen ustez ere Azurmendik «endodiglosia» deitzen duena «exodiglosia»ren ondorioa da, eta lehenbizikoa konpondu ahal izateko, aurretik bigarrenari irtenbide bat eman behar zaio:

[...] no hay duda de que el segundo problema (B_a/B_b) está condicionado decisivamente por la existencia del primero (A/B) y no puede desligarse de él. El distanciamiento entre el catalán literario y la lengua coloquial no es sino la lógica consecuencia de la falta de enseñanza del idioma y de su ausencia en los niveles públicos, lo que viene dado por la situación fundamental A/B , es decir, la establecida entre el catalán y el castellano. Así, en tanto que persistan las actuales presiones prodiglóicas que determinan la separación funcional

²⁸ *Op. cit.* (227 or.). Domènec Bernardó-k eta Bernat Rev-ek ere uste dute gaztelera edo frantsesa eta katalaneraren arteko «lehen mailako diglosia»rekin bat «bigarren mailako» diglosia ere dagoela katalanera estandararen eta lekuz-lekuko katalanaren artean. BERNARDÓ, D. eta RIEV, B.: «Diglòssia a Catalunya Nord», in *Treballs de Sociolingüística Catalana*, I, Valencia, Tresi Quatre, 1977.

²⁹ APPEL, René, MUYSKEN, Pieter: *Bilingüismo y contacto de lenguas*, Barcelona, Ariel, 1996.

³⁰ AZURMENDI, M.J.: «Bilingüismo, diglosia», *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, Bilbo, Deustuko Unibertsitatea, 1981. (228. or.).

entre el castellano y el catalán, el divorcio entre el catalán culto y el catalán vulgar será un fenómeno inevitable y secundario. El problema realmente decisivo es el primero³¹.

4.3. *Interferentziak, ordezkapenak eta txandaketak*

Ikerketan zehar interferentziarik suertatzen ote den ikusteko gai izango gara. Baina, estrainekoz, jakin behar izango dugu zer den hizkuntza-interferentzia.

Interferentzia lotuta dago oraintsu azaldu ditugun «elebitasun» eta «diglosia» kontzeptuekin, eta, hortaz, hizkuntza-ukipenarekin. Edonola ere, autoreen artean ezberdintasunak daude *interferentzia* definitzeko edo erabiltzeko orduan. Weinreich-ek, esate baterako, lehenengo hizkuntzak bigarrenaren jabekuntzan eragiten duela proposatzen du, eta honelaxe azaltzen digu³²: «reorganización de modelos que resulta de la introducción de elementos foráneos en los ámbitos más estructurados de la lengua, como el grueso del sistema fonémico, una gran parte de la morfología y la sintaxis y algunas áreas del vocabulario»³³.

Definizio honek lehen hizkuntzatik bigarren hizkuntzarako norabideko interferentziari egiten dio erreferentzia. Gure ikerketarako guztiz baztergarria ez bada ere, definizio zabalago bat aurkitzen saiatuko gara. Eta Koldo Zuazok eskaintzen digu:

Quando dos lenguas entran en contacto siempre aparecen las interferencias. Cuando los sistemas son estructuralmente muy diferentes (caso del francés y el vasco) las interferencias serán menores que cuando los sistemas sean próximos (caso del francés y el occitano). También dependerá de la conciencia lingüística de los hablantes. Si los hablantes toman conciencia de que su variedad lingüística es diferente de la normalizada opondrán mayor resistencia que cuando consideran que su variedad no es más que un dialecto o patois de la variedad normalizada³⁴.

³¹ NINYOLES, Rafael Lluís: *Idioma y poder social*, Madrid, Tecnos, 1972. (80-81 or.). Ikus gai berari buruz ZUAZO ZELAIETA, Koldo: *Materiales para una descripción sociolingüística de la comunidad vasca*, Bilbo, Deustuko Unibertsitatea, 1983. (170 or.).

³² Ikus. *Estandarraren erabileraren adibide batzu kapituloa*; fenomeno honetara hurbiltzen da kapitulo honetan azaltzen dena.

³³ WEINREICH, U.: *Lenguas en contacto. Descubrimientos y problemas*, Caracas, Ediciones de la Biblioteca de la Universidad Central, 1974.

³⁴ ZUAZO ZELAIETA, Koldo: *Materiales para una descripción sociolingüística de la comunidad vasca*, Bilbo, Deustuko unibertsitatea, 1983. (196 or.).

Zuazok ez digu aipatzen ezein momentutan interferentzia bi hizkuntzen artekoa izan behar denik, baizik eta sistema edo barietate biren artean suertatzen dela. Bestalde, badirudi bere definizio honetan interferentziaren norabidea prestigiodun sistematik edo sistema normalizatutik prestigiogabeko edo normalizatu gabekorakoa dela. Beraz, hemen ederki sartuko litzateke gure azterketagaia: estandarretik barietaterako interferentziak.

«Integrazio» kontzeptua ere gehitu behar diogu interferentziari: «Tratar de interferencias obliga, por otro lado, a hablar de integración. Un elemento, en efecto, es interferencia en tanto no se integre en la lengua afectada; cuando lo hace, se adapta fonológica, gramatical y léxicamente al sistema de tal lengua, integrándose en él.»³⁵ Aukera izango dugu ikusteko estandarretik barietaterako interferentziak integratzen edo egokitzen diren ala ez.

Interferentzia hauek suertatuko direlakoan gaude³⁶, izan ere hauxe izan da azterketa hau egitera bultzatu gaituena. Baina, aztertzeko dago fenomeno hau ordezkapenetan edo txandaketetan agertuko den. Alegia, estandarretik sartutako interferentziak, egokituta zein ez egokituta barietatearen sisteman, txandakatuko dira barietatearen berezko formekin edota ordezkatzuko dituzte guztiz? Hau da, batuko forma umearen lexikoan sartzen den momentutik hiru aukera dira posible:

—Erregistro biak guztiz bananduta edukitzea eta, beraz, batuko hitz hori batua erabiltzen ari delarik besterik ez agertzea. Egoera hau ez da arruntena: komunitate eleanitzak ez dira inoiz egonkorrak —*eleaniztasuna* sistemen arteko fenomenotzat joz— eta beti suertatuko da interferentzia fenomenoren bat. Beraz, badirudi bi aukera baino ez direla benetan posibleak:

—Lexiko berria umearen hizkerara inkorporatzen da, baina aurretik ikasitako edo geroago ikas dezakeen lexikoarekin batera: biak erabil ditzake, nolabait txandakatuz, egoeraren edo momentuaren arabera, baina biak izango dira ezagunak eta erabilgarriak.

—Lexiko berriak, estandarrekoak, barietatearen lexikoari dagokion esparrua betetzen du guztiz. Ez dira sinonimo moduan erabiliko, baizik eta forma batek bestea arras desplazatuko du.

³⁵ ROTAETXE AMUSATEGI, Karmele: *Sociolingüística*, Madrid, Síntesis, 1988. (96 or.).

³⁶ Autore batzuren arabera, interferentzia A hizkuntzak B hizkuntzan daukan eragina da, baina beti egitura agramatikalak sortzen ditu. Konbergentzia A-k B-n daukan eraginaren ondorioa ere bada, baina honek ez du emaitz agramatikalik sortzen: B hizkuntza A hizkuntzara hurbiltzen da, hizkuntza-aukera batzuk ahaztuz edota fenomenoaren maiztasun indizeak aldatuz. Kasu honetan «konbergentzia» terminoa hurbilduko litzateke gehiago kapitulo honetan azaltzen saiatzen garen fenomenora.

Bestalde, aipatu behar dugu etxeko hizkera ez dagoela oraindik finkatuta, lehenengo hizkuntza moduan, nolabait esateko, umeak estandararekin harremanetan hasten direnean. Honek erreztuko du, era berean, interferentziak suerta daitezen. Izan ere, nabarmenagoak dira belaunaldi honetan gertatzen diren interferentziak aurreko belaunaldi-koak baino —ama euskaldunberria izanik eta guzti—: egunero erregistro biak erabili behar izan arren, lana dela eta, askozaz hobeto bereizten dituzte bati dagozkion formak eta besteari dagozkionak.

Ikus ditzagun guzti honen zenbait adibide praktiko, korpusetik aterata ahal izan ditugunak, hitz berriez jabetzeko modura hurbiltzearren:

—Aipatu dugu azterketan zehar barietateko hitza gazteleratiko mailegua izateak umeek hitzari eutsi diezaioten indartzen duela. Hala ere, hau ez da ezinbestez eta kasu guztietan gertatu behar den fenomeno. Beste batzuetan, ordea, batueraren bidez umeak «euskaldunago» soma ditzakeen hitzak erabiltzen ditu hizkera normalean, bere etxean erabiltzen direnak alboratuz: «aulkixek» esaten dute eta ez «sillek». Hala ere, kasu honetan, etxeko hitza erdaratik egokitutakoa denean, alegia, biak entzun ditzakegu euren ahotatik, batzuetan etxekoa eta bestetan batuko forma egokitua. Aztertu beharrekoa litzateke noiz erabiltzen den bata eta noiz bestea, badirudi, lehen begirada batez, nahiko era askean darabiltzatela, kontestu bertsutan biak entzun ahal izan ditudalako³⁷. Txandaketa fenomeno izango litzateke hau, eta ez ordezkapena.

Zehaztu behar dugu txandaketa hau bakarrik suertatzen dela bizkaierako hitza gazteleratik hartua denean —eta ez hitz guztiekin, jakina, adibidez, «tenedora» eta «kutxillue» ez dira inoiz txandakatzen «gani-beta» edo «sardeska»-rekin— izan ere, bizkaierako hitzak gazteleraren «kutsurik» ez daukanean, fenomeno hau ez da ia inoiz gertatzen:

Etxeko hizkeraz	Malen	Andere
Katagorrix	Urtxintxa	Urtxintxa
lñetasixe	Txingorra	Txingorra
Ortuarixek	Baraskixek	Baraskixek
Erroixe	<i>Erroixe</i>	Belea
Ardixe	<i>Ardixe</i>	Arkakusue

³⁷ Hala ere, aske dirudien edozein txandaketaren atzean beti egoten da arrazoren bat. Testuingurukoa, egoerakoa edo, besterik ez bada, hiztunaren psikolinguistika arlokoari dagokiona.

—Ikusi ditugu galdetegi batean emandako erantzunak. Hala ere, hauek, neurri batean adierazgarriak izan arren, ez dira zeharo erabaki-garriak. Eragile askok hartzen dute parte momentu batean berba bat edo beste ematerakoan: esate baterako, ikertzailearen aurrean umeak erakusten duen hizkuntz-kontzientzia maila, edota, hitz bi ezagunak edukita, erantzuteko momentu zehatzean bururatu zaion estraineko hitza bota izana.

Hau da, baliteke umeak batuko forma ematea baina egoeraren eraginez, honelako galdetegi batek suposatzen duen kontzientzia maila grabaketa askea baino nahikotxo altuagoa bait da. Ikusi dugunez, Andere eta Malenentzat oso lotuta dagozkie estandarra eta euren barietatea armonia bokalikoei lexiko arloan. Hortaz, neurri batean behintzat kontrola dezakegu umeak ematen duen hitza batukotzat hartzen duen edo, aldiz, batukoa izanik ere, bizkaierakotzat somatzen duena den.

Hala ere, honek ez du gure bigarren arazoa konpontzen; ezagutzen eta erabiltzen duen forma bakarra den edo, eguneroko erabileran, biak txandakatzen diren. Hitz bitan esateko, txandaketa fenomeno a suertatzen da edo batuko formak bizkaierakoa guztiz ordezkatu du?

Erantzuna ematen saiatuko gara grabaketa askeetara jotzen.

Adibide esanguratsua topatzen dugu Anderek eta Dorok elkarrekin egindako berbaldi batean. Grabaketa honetan saiatu ginen Andere, grabagailu aurrean bera bakarrik ez zegoenez gero, lasaiago egoten eta era honetan eguneroko hizkera errezago lortzen. Esan bezala, adibide adierazgarri bat daukagu: «jolastu» eta «olgeu» hitzak.

Doro: Ba joaten nas batzarretara, Bilbora edo Donostire, Seberreko-ra joaten nas eta gero batzuri klasie emotentas gabas euskeri(e) irakas-ten, eta olan ibiltzen nas. Da suk, ia, kontaixtasu sein dan geixen gusta-tzen yatzun asignaturie, ikasgaie.

Andere: **Jolastu.**

Doro: **Olgetie** da geixen gustaten yatzune?

Andere: Bai.

Doro: Ordun, sugaittik eskolie **olgeta, olge** eskolan esta? Beti.

Andere: Bai.

Doro: Bueno, ba, **olgeties** aparte ia se eitten dosun.

[...]

Andere: Ba Sanfermiñek dies alturitas eta beixek daos eta ein bideu au, ein bideu fuit-fuit; eta urteten dies eta gu egon bigara korritzen, ta **jolasten**, ta **jolasten** gaosen bitartien ba alturita batera igon bigara, ostantzien atrapaten badoskun kartzelara goas.

Doro: Ba guk **jokatzen** gendun, bakixu setara?

Andere: Setara?

Doro: Ba sure edadie euki genduni(e)n **jokatzen** gendun Axpeko elixpen. Suk **jolastensu** elixpen? Geur es sarie egon elixpen? Non egon sarie ba?

Andere: Axpen.

Doro: Axpen bai, baiña Axpen non, Axpe andixe da.

Andere: Etze barrixetan.

Doro: Atxondoko etzeetan?

Andere: Bai.

Doro: Ba gu Atxondoti(k)p(b)e ibiltzen giñen, eta baiña Atxondo eta elixpe antxe daos elixie be or dau te.

Andere: Bueno bai.

Doro: Eta setara **olgetan** egon sarie?

Andere: Pitxera, gero gause batera, estakit selan deitzen dan, e...

Doro: Ba guk **jokatzen** gendun Txopinke. Suk bakixu **jokatzen** Txopinke?

Andere: Es.

Doro: Ba nik Txopinke **jokatzen** eta Txalandraneka; bakixu **jokatzen** Txalandraneka? Orretan estakixu **jokatzen** suk, esta?

Andere: Es, esplikaxu etxien. Eta bebai **jolasten** suen Txorromorropikotayoke.

Doro: A, Txorromorro! Baiña ori bakixu **jokatzen** suk, es?

Andere: Bai, ipintzen da fila bat eta eitten da txorromorro...

Doro: Illeran, illeran paraten da, es?³⁸

Andere: Bai, ta gero ganera igoten da txorromorropikotayoke.

Doro: Kinkiliñopakote!

Andere: Eta olan

Doro: Eta? Eta oin estosu **olgetan** ortara, ala?

Andere: Bai ikastolan egon giñen egun baten **jolasten** txorromorrorra.

Doro: Da Axpeko lagunekas estosu **olgetan**, Txokondotik eta ortik?

Andere: Es, estogu **jolasten**.

Doro: Eta, bakixu setan **olgetan** gendun, bebai?

Andere: Setan?

Doro: Koreka.

Andere: Ser da? Selan da?

Doro: Koreka? Su(k)p(b)e bakixu **olgetan**, gertatzen dana da suk estosula deitzen koreka. Selan deitzentzasue suek?

Andere: Iskutalekua.

³⁸ Gurasoek alabei egiten dizkieten zuzenketen adibidea da hau (*Metodologia* atalean aipatua).

Doro: Iskutalekua edo eskonderite?

Andere: Eskonderitera.

Andere: Ba guk esatentzagun koreka esatentzagun orreri, eta gero, se geixao? Beste bat, joko bat edo olan, selan san...?

Andere: Eta arrixera, ba olan, e...

Doro: Gartxara.

Andere: Koiko-koixokara.

Doro: Koixoka.

*Andere: Koixoka **jolasten** suen?*

*Doro: Bakixu orretan **jolasten**?*

Andere: Bai.

*Doro: Ta **olgetansu**?*

Andere: Bai, ikastolan bai.

Doro: Bai, kontxo! Baten bat orduan bai. Eta koixoka, gero gartzara bebai.

Andere: Selan da?

Doro: A! Txanponakas. Txanpon handi batzukas ta borobil batetik, ba txakur txikiek edo txakur handiek ipini edo erredibikuek eta arek ataaten, ataatenbasenak berarentzako.

Transkribaketa zati honetan ikusten denez, joera ezberdin bi dauz-kagu. Alde batetik, Dorok berba biak ezagutzen eta erabiltzen ditu, polimorfismo edo txandaketa kasua da. Hala ere, Anderek «olgeu» hitza ederto ezagutu eta ulertu arren, eta behin eta berriz bere aitaren ahotik entzun arren, «jolastu» baino ez du erabiltzen. Batuko formak bizkaierakoa ordezkatu du, irentsi egin du bere lexikoan.

Eta haxe izaten da gertakari orokorra, badirudi sinonimoak ez di-rela esistitzen: hitz bat hautatu eta hori erabili, ez dago berba gehiagorik. Beste adibide bat ipintzearren: galdetegian Malenek «*barriro*» eta «*ostabe*» erantzun zituen, «*barriro*» bere lehenbiziko erantzuna izan zen, baina «*ostabe*» ere ezagutzen zuen. Hala ere, grabaketa guztietan behin ere ez da agertu azken berba hau, «*barriro*» hainbat aldiz agertu bada ere; eta ez da kasualitate hutsa «*barriro*» batuaz bultzatzen diren «*berriro*» eta «*berriz*» hitzen kidea izatea.

4.4. *Harreman sareak*

Gure bi umeak euskaldunzaharrak badira ere, bere eguneroko harreman sarea herriko edo ikastolako ume euskaldunberrietara ere hedatzen da. Zer gertatzen da kasuotan? Hau da, ume euskaldun berri hauek ikasi duten euskara ikastolakoa izan da, etxean normalean gura-

soak erdaldunak bait dira, eta Busturiko euskara ulergaitza suertatzen bide zaie. Honelako egoeretan arruntena izaten da gaztelerara jotea, honela euren arteko komunikazioan behaztopa harririk gerta ez dadin. Eta ez da suposamen hutsa, baizik eta Anderek berak hauxe bera kon-tatzen zidan, ikastolako zenbait umek ez diotela ulertzen hitz egitean. Batuaz jakin arren, erosoagoa da gure umeentzat etxeko hizkeraz ari-tzea, batez ere ikastolatik kanpo —edo ikastolan bertan, baina klastetik kanpo— gaia jolastea eta ez ikastea denean. Hizketakideak batuaz bai-no ez badaki, gaztelera izaten da irtenbiderik erosoena eta erabiliena.

Ikus dezagun zer dioskuen Anderek berak gai honetaz:

— Ser da erresago, euskaras ala erdaras?

— *Euskeras*

— Segaittik?

— *Es, eske euskeras... Ni euskalduna nais, ez erdalduna. Erderas esdakít ainbeste, esdakít ainbeste ník. Erresague da níretzat orí euske-ras, erderas erres bebai eitten yast baíña gatxague, pasadan urtien ga-txague eitten yasten, gatx-gatx-gatxa, ta esin naben ein, esin naben. Es yasten urtetan bokalak, baña oin erderas al dot ein, banoa obetzen.*

— Ba ník aittu tzut erdaras eitten sure lagunakaz...

— *A bai, klaro, klaro, lagunekas estakixe euskeras amak eta aittek, baña amak eta aittek eitten tzielako erderas eurek asten dies erderas. Nerea ta Olaian aitte euskaldune da baña ama es. Marita euskaldune da baña aitte es. Gero, Nurian aitte erdaldune, eta ama bebai.*

— Eta ordun, euren etzien selan eitten da?

— *Eitten dabie euskeras, baña Nuriak euskeras esin yeu ein. Badakí, ikastolan dabil, euskaldune ba, baña...*

— Ta ordun, suon artien, normalien selan eitten sue?

— *Erderas, guen artien erderas, ní Olaien artien batzutan euskeras, erderas. Bera asten badan erderas, ník erderas así ein bierkonas se lie itteste ta olan.*

— Eta ikastolan?

— *Ikastolan euskeras eitten dot nire lagunekas. Beti-beti-beti.*

— Ta errekreuen bebai?

— *Errekreuen beti. Esaten yeu «igoak botaten goaz?» ta esaten tzat lñakiri «es, olan es», «bagoas botaten ónek frutek?»³⁹ eta esatens-te «a baia, olan, olan da». Eta euskeras eittengu se eske lñakin ama eta aitte erdaldunek dies eta David-enak bebai. [...]*

— Ta aittuten dotzue dan-dana?

— *Estakit.*

³⁹ Aipagarria da berak ere ez dakiela zelan daukaten izena «órrek frutek».

Esan nahi dena zera da, ume euskaldun berrientzat ere herri euskaldun batean integratzeko biderik egokiena dela herri horretako hizkeraz jakitea, klasean eta kanpoan egiten diren euskara motak ezberdinak bait dira. Honek euskarazko komunikazioa oztopatzen du eta erderak, honela, berezko esparruak jaten dizkio euskarari.

Bestalde, biak, Gernikako ikastolara doazen heinean, Gernikako umeekin erlazionatzen dira eta hauengandik bizkaierako forma ezberdinak, Busturian erabiltzen ez direnak, ikasten dituzte. Hizkuntz ukipe-na fenomeno normala da, baina kasu honetan ez da oso markatua: le-xiko arloan, ez dirudi bi hizkerak lar ezberdinak direnik eta hitz gutxi ikasten dituzte, honetaz gain, normalean kontzienteak dira horrelako formak «Gerniken esaten diezela». Esate baterako Busturin «esnatu» «akordeu» esaten da, baina Gernikan «ixartu». Malenek «akordeu» erantzuna eman ondoren, galdetu nion ea ezagutzen edo erabiltzen zuen «ixartu» hitza eta erantzuna izan zen baietz, ezagutzen duela bai-na hori gernikarrek esaten dutela eta ez Busturitarrek. Hala ere, adibi-deren bat topa izan dut, hala nola Malenek «yatzo» laguntzaile forma erabiltzea batzutan Busturin erabiltzen den «yako»-ren ordez.

4.5. *Hitz berrien sorketa:*

Hizkuntza baten egoeraren adierazgarria da belaunaldi gazteek hitz berriak sortzeko zertan oinarritzen diren. Badirudi gaztelerak eremu ho-netan zabalkunderako lur landua daukala. Ikusiko dugu gure umeen adibide batzutan ze nolako berbak, umeek erabiltzen dituztenak, ager-tzen hasiak diren alor honetan⁴⁰.

Malen: Beti jolasten dogu ba, esdaitt, eskonderi... koreka jolasten dogu.

Andere: Fastidiau yaskue ta egon gara jolasten eskonderitera.

Malen: Ba pillako bronkak botatzen doskus

Andere: Eta bebai muti... «Andere por nosekien», «estakit nor es-takit norgaitik».

Andere: Ba Sanfermiñek dies alturitas eta beixek daos eta ein bideu au, ein bideu fuit-fuit. [...] ta jolasten gaosen bitartien ba alturita bate-ra igon bigara.

Andere: Jose jolasten deu asko eta altxaten genion eta niri eta sako de patatas egiten ni...sen...senidan

Tinieblas-era jolastu ere erabiltzen dute.

⁴⁰ Puntu hau «nazka», «enpague» eta «asko» komentatuko den adibideekin lotu dezakegu nolabait.

Jolasetan argi dago gaztelerak irabazten duela. Alde batetik nahiko ulergarria da, zeren eta umeek —orokorrean— ez bait daukate batere finkatuta zelan deitzen zaien horrelako gauzei —joku batzuk euren izenak dituzte, hobeto esanda, eduki dituzte aurreko belaunaldian— eta, honetaz gain, ikastola lekuri aproposenatarikoa bait da jokuak garatzeko. Honela izanda, ezagutzen duten forma bakarra estandarrarena bada, esate baterako *izkutalekua*, ziurrenez ez dute erabiliko eguneroko jardunean, hori klaseko hitza da eta. Klasetik kanpo umeak «hitz alternatiboak» behar ditu, bere eguneroko erregistro guztiz informala betetzen duten hitzak, eta zoritxarrez gaztelerara jo ohi du hauen bila.

Malen: Egun ori ixen san superona, ondo pasagun.

Malen: Ure superotz egon san.

Malen: inor bes kotxien eta umiek superbillurtute.

Gazteleraren itzaletara garatzen da lexiko berria: gaur egun «super» partikulak gazteleraz bide zabala eta oso landua badauka, euskeraz ere ikusiko ditugu honen aztarnak.

Malen: Baña nik, oso liste ixen nintzeles.

Andere: batzutan kabrie eitten nas.

Andere: Ondo, bai. Batzutan kabreatu, beste batzutan es.

Malen: eta bitxo órrek nire amari billurre emoten tzien.

Andere: olako bitxotxo batzuk.

Hemen dauzkagu bestelako adibideak. Gogoratu behar dugu galdegian bai Anderek bai Malenek «*Ariñe*» erantzun zutela eta ez «*liste*». Hala ere, erabilera mundu ezberdin bat da. Era berean, ume biek «*zomorro*» hitza primeran ezagutzen dute, baina grabaketetan behin baino ez du Malenek erabiltzen eta Anderek behin ere ez.

Malen: es baña gero dekotes Back Street Boys, Leonardo di Caprio, Devon Sawar, Los Handson...

Hau ere aipagarria da, zeren eta beste hizkuntza bat jokoan sartzen dugunean, ingelesa, alegia, badirudi hizkuntza honekin ezin dela euskara erabili, baizik eta gaztelerara jo behar dugula. Nolabait «*Los Handson*» lexicalexaturik dauka Malenek, «*Handson taldea*» esateak ezinezko dirudien bitartean. Izan ere, hau komunikabideen eragina ere izan daiteke, inguratzun gaituzten irrati, telebista eta aldizkari gehienak gazteleraz bait dira.

Andere: Malen por... olako txikitxu bat, Olentzerito.

Umeen jokuetara itzuliz, beste gertakizun bat ere da aipagarria: ez izenak ipintzeko momentuan gaztelerara jotzea ere! *Olentzero* badakigu euskarazko hitza dela, baina, hala ere, atzizkia gazteleraz ezartzen diote.

Bestelako esapideak:

Andere: Deskojono batzuk eurekas.

Andere: ... Matematikak erresak, euskera bebai, lenguaje erdis-erdis nao bebai eta gero musika txupao-mamao, gimnasia txupao-mamao, gero...

Malen: Anderek eta nik or pantxa-pantxa lo eitten sofán.

Malen: Oingo astien, sapatuen, goixien jarrikogu denda... tienda de kanpaña.

5. Ondorioak

5.1. Ume bien artean somatu izan diren ezberdintasunak

Anderek batueraren eragin gehiago dauka. Arrazoi bi dira posible, alde batetik adinaren kontua eta, bestalde, hizkuntz-kontzientzia. Adina dela eta, hau eragilea den ala ez jakiteko ikusi behar izango genukeen Malenen egoera duela hiru urte eta oraingoarekin erkatu, erregistro biak gaur egunean bereiztuago dauden ikusteko; edota Andereren egoera hiru urte barru ikertu, bere etxeko hizkeran batueraren eraginak berdin irauten duen ala makalagoa den.

Hizkuntz-kontzientzia ere izan daiteke honen eragilea. Izan ere, ume bien jarrerak bizkaiera eta batuarekiko ezberdinak dira. Malen harrago bizkaieraz hitz egiteaz eta saiatzan da beti egiten. Ez dauka arazorik batura pasatzeko, hizketakide motak edo egoerak horrela eskatuz gero; hala ere, nahiago du bizkaiera, hitz bitan, aldarrikatu egiten du.

Andereri berdin dio bata edo bestea erabiltzea, ez dauka horrelako kontzientzia pizturik eta estilo homogeneoagoak ditu: etxeko hizkeraz aritzen denean, batuko interferentzia askozaz gehiago erakusten ditu. Era berean, Maleni baino ziurtasun gutxiago somatzen zaio hitz egiteko momentuan.

Demagun adinaren kontua dela. Urteak pasa ahala ziurtasun gehiago hartuko al du? Erregistroak ezberdinduko ote ditu? Eta, honela izanez gero, etxeko erregistroa aberastuko al du? Arrikutsua da benetan euskalkietako aberastasun guztia galdu ahal izatea. Izan ere, gaur egun erabiltzen den komunikaziorako euskara batua esan dezakegu oraindik dagoela lantzeke, finkatzeke eta garatzeke. Euskalkien zeregina honetan handia da oso, altxor amankomun honetan bait datza etorkizunean gure hizkuntza aberatsa eta joria izan dadila edo, aitzitik, gero eta murritzagoa eta monotonoagoa.

5.2. *Interferentzia lexikoaren puntu nagusiak*

—Estandarraren eta barietatearen arteko ezberdintasun bakarra armonia bokalikoa denean, ezin da interferentziarik suertatu.

—Ezberdintasunak asimilazio edo disimilazioak, kontsonante epenetikoak, itxidurak eta abarrak direnean, interferentzia fonetikoak arruntak izaten dira; honetaz gain, umeek honelako formak integratzen dituzte, bizkaierazko moduan somatzen dituztelarik.

—Barietateko hitzak gaztelaratik harturiko maileguak direnean, joera da hauei eustea. Nekez egoten da interferentzia lexikorik eta, badi-rudi, gaztelarerekiko antzak —hots, gaztelaratiko maileguak izateak— indargarri legez funtzionatzen duela.

—Erro ezberdinetakoak direnean, batzutan interferentzia suertatzen da, beste batzutan ez; ez dago aukeraketa egiteko erizpide finkorik (beharbada, zenbait kasutan estandarri edo barietateari dagozkien esparruetan agerpen maiztasuna izan liteke arrazoia).

Argia da, bestalde, estandarrak —beste sinonimo batzuren artean— barietateari dagokion formari ere lekua emanaz gero, umeek etxeko berbari eusten diotela. Honela izan ezean, probabilitate askozaz altuagoak daude interferentzia suerta dadin.

—Arlo semantikoen egokitzapenari dagokionez, ezin dugu ondorio orokorrik atera: lau kasutatik bitan baturako aldaketa somatzen da, beste bietan berdin eusten diete umeek. Honetaz gain, korpusetik jasotako kasuen berregituraketa beti da zabalpena (murriztapen adibiderik ez dugu jaso).

—Interferentzia lexikoak gehienetan barietatearen sisteman integratzen dira (armonia bokalikoaren bitartez gehienetan). Esan bezala, behin integratuta, «estandar» kutsua galdu eta «barietate»aren zati bihurtzen dira. Honelako egoera batek lurra goldatzen dio ordezkapenari (ordezkapena txandaketaren oposaketa moduan ulertuz).

—Barietateko formen atzerakada estandarraren —eta gaztelararen— aurrean sinonimo batzuren erabileran ere ikusi dugu: etxeko hizkeraz sinonimo batzu aukeran badaude, gaztelaratik mailegatuak direnak aukeratzen dituzte. Honetaz gain, estandarreko formak ere ikasten dituzte goi-erregistroan erabiltzeko.

5.3. *Txandaketa eta ordezkapen prozesuak*

—Gai honetaz ere ez dago erabat esaterik beti prozesu bat edo bestea suertatzen denik. Izan ere, mota ezberdinetako adibideak aurkitu izan ditugu.

—Etxeko hitza erdaratik hartua denean batzutan gerta daiteke batuko hitz egokituarekin txandakatzea (*sillek / aulkixek*), baina ez kasu guztietan (*kutxillue, tenedora / *ganibeta, *sardeska*). Bestalde, etxeko hitzak gazteleraren antza ez daukanean, ez da ia inoiz txandaketarik agertzen: umeek forma bat edo bestea aukeratzen dute (bizkaierakoa edo batukoa) eta horixe erabiltzen dute erregistro bietan.

—«*Jolastu*» eta «*olgeu*» hitzen adibidea ordezkapen fenomenoaren adierazgarria da. Ezberdintasun nabarmena dago hiru belaunaldien artean: aitite-amumak barietatea darabilte ia-ia salbuespenik gabe; gurasoek estandar/barietate txandaketa gehiago erakusten dituzte (eta ordezkapenen bat, hala nola *imiñi* > *ipiñi*); alaben kasuan estandar > barietate ordezkapen gehiago eta txandaketa mordoa aurkitzen ditugu.

—Bestalde, txandaketei dagokienez, zera esan behar da: forma bi txandaketa «askean» —edo testuinguru ez oso zorrotzek murriztuta— erabiltzen badira, denboraren poderioz baten batek irabaziko eta bereganatuko du esparrua. Honetan batuerak abantaila dauka zalantza barik.

5.4. *Gazteleraren sarbidea*

—Bizkaieraren kasuan batez ere, non beharbada gazteleratik mailegatutako hitz gehiago dauden beste euskalki batzuetan baino, umearen hizkuntza-kontzientziak eraman dezake are mailegu gehiago hartzera: hizkuntza-kontzientziak bizkaiera erabiltzera bultzatzen badu eta etxeko hizkerari dagokion berba zein den zalantzan egonez gero, posiblea da gaztelerara jotea.

—Harreman sareei dagokienez, argi eta garbi ikusi dugu gaztelarren sarbide zuzena. Ume euskaldunzaharrak eta euskaldunberriak ez dira gauza elkarrekin komunikatzeko. Azken hauek dakiten erregistro bakarra, ikastolan ikasi duten erregistro bakarra, estandarra da eta euskaldunzaharrak barietatez aritzen direnean, ezinezko suertatzen omen zaie ondo ulertzea. Nagusientzat hau ez litzateke arazo handia izango, izan ere honelako komunikazioak aski arruntak izaten dira; baina olgetan dagoen ume batentzat askozaz errezagoa da denek ulertzen duten koderako traslazioa egitea —gaztelera, alegia— euren kodean traslazioa egiten aritzea baino.

—Belaunaldi gazteek sortzen duten lexiko berri eta berezkoak ere adierazten du norantza garatzen den hizkuntza. Zantzu arrisksua izan daiteke, beraz, *Hitz berrien sorketa* atalean aipaturiko egoera: ia berrikuntza gehienak gaztelaran oinarritzen dira.

5.5. *Estandarra barietatearen indargarri. Eskolaren garrantzia. Proposamenak*

Etxeko hizkera ez dago finkatuta. Hau egoera aproposa da ordezkapenak eta interferentziak gerta daitezen. Orain arte ikerketak gehienetan gazteleratik euskarara sortutako interferentzietan oinarritu dira. Kasu honetan, bi hizkuntz ezberdinen arteko ukipenari begiratzen diogu, baina bizkaiera eta batueraren arteko harremana hizkuntza berean kokatu behar dugu, hizkuntza bereko aldaki biren artean suertatzen diren ukipenak eta interferentziak, eta, ikusi dugunez, interferentziak handiagoak izaten dira sistemak urkoak baldin badira.

Etxeko hizkera oso murritzua da. Izan ere, bere erabilera esparrua gutxi gora behera etxean dago mugatuta: ikastolan batuaz egiten da, kaleko umeekin askotan edo, hobeto esanda, gehienetan, erdaraz ari-tzen dira eta, ikusi dugunez, batzuetan komunikazio ezintasuna izan daiteke eragilea. Malenen kasuan, batez ere, ikus dezakegu hizkuntz-kontzientzia nahiko agerian duela eta gustatzen zaiola euskaraz egitea («Gu euskaldunak gara eta euskaraz einbidu» da bere esaldia) eta, honetaz gain, bizkaera aldarrikatu egiten duela; edozelan ere, arrunta izaten da bere lagunekin ari dela erdaraz entzutea. Gauzak honela daudela, etxeko hizkerari dagokion eremua etxea bera da eta honek dakartzan galerak uste dut izugarriak direla: hizkera errez-erreza darabilte, lexiko arloan ezezik, beste mailetan ere, hala nola, syntaxian edo aditzak eratzean.

Adibidez, oso aditz gutxi erabiltzen dituzte, oinarritzkoenak, eta per-pausak horrela eskatuz gero, aditz hipotetiko bat erabili behar badute, orduan hasten dira zalantzak. Klasean oso ondo ikasi dute «izan liteke» esaten, baina badi-rudi honelakoak eskolan eta batuaz bakarrik erabiltzen direla, zeren eta ez dira gai honelakoak Busturiko hizkeraz esaten, hots, «ixen lei» ez omen da esistitzen.

Era berean, aditz erregimena ezberdina bada bizkaieraz eta batuaz, eguneroko elkarrizketetan normalena da «urten» eta «igon» bezalako aditz deponenteak deponente moduan entzutea, hau da, «urten dot», «igon dot». Baina egoera egunerokoa ez denean, ziurtasunik eza agertu egiten da. Izan ere, galdetegian kontzientzia osoa eskatzen zen hitzez hitz, umeak gaztelerako hitzari eman behar zion erantzuna bizkaierako aldakia zen, hain zuzen. Era honetan jasotako erantzunak, noski, bai Andererenak, bai Malenenak, «urten dot» eta «igon dot» izan ziren. Hala ere, ber-baldi askean, non ez zen eskatzen batuaz edo bizkaieraz egiteko, baizik eta hitz egiteko soilik, Malenen erreakzioa aditz honen aurrean aurkitu zenean ondokoa izan zen:

«Gero urten genuen, e..., urten genie... gen... urten giñenien ba Sukarrietatik...»

Grabagailu aurrean zegoela ez zekien zelan erabili behar zuen, ez zekien zein zen erabilera zuzena, alegia, erabilera zuzena batuaz egiten dena, «ez bait duzu ezer urteten», edo erabilera «arraroa».

Honelakoak euskaldun askori entzun dizkiet: esate baterako «deitu» aditzaren erabilera zuzena zein den eztabaidatuz, Larrabetzuko euskaldun batek ondokoa erabaki zuen, «*telefonoz deitu dizut, baina bentanatik edo kalean deitu zaitut*» eta Muxikako beste bati arraro suerta zitzaion Euskaldunon Egunkarian ez dakit zein futbolariri partidu batean jolasteko «deitu diotela». Nik galdetu Muxikan zelan esaten ote duten eta, jakina, erantzuna «deitu dotzie» izan zen.

Bestalde, beste fenomeno kaltegarriago bat ekar dezake etxeko euskara ez lantzeak. Ume batek etxeko hizkerako hitz baten ordeztatu batuko hitza ikasten eta erabiltzen badu, azken batez euskara da eta, denok suposatzen dugun moduan, egun bat iritsiko da non euskalkiak desagertuko diren, beharbada berezitasun dialektal batzuk izango dira, maila fonetikoan edo lexikoan, gazteleraz gaur egun gertatzen den legez, baina ezin dugu ukatu batasunerantz goazela. Baina bide honetan ez dugu ahaztu behar euskara ez dela bakarrik bide honetan, baizik eta gaztelerarekin bat bizi behar dituela bere gorabeherak. Hortaz, esan bezala, etxeko euskara indartzen ez bada, gaztele-rak bete ditzake hainbat hutsune. Esandako hau ez da hipotesi hutsa, gure umeen kasuan fenomeno nabaria eta arrunta izaten da. Adibidez, «ataria» ezagutu eta erabiltzen dute eskola kontestuetan edo idatziz. Hala ere, kontzienteki Malenek badaki batuko forma dela. Beraz, bizkaieraz mintzatzen ari dela, baztertu egiten du, ez da forma erabilgarria eguneroko hizkeran. Orduan, erabili beharreko hitza «etartie» ezagutzen ez duenez, gaztelerara jo eta «portala» da irten-bidea.

Honelako beste adibide bat eta, antza, nahiko zabalduta dagoena, ikastolako lagunei ere entzun diedanagatik, «asko» esatea da, baina ez «anitz» adierazteko, «nazka» baino. Egundaren baten Kamiñuganen bazkal-tzen geundela umeen klaseko lagun batzuekin haxe izan zen Male-nen perpausa gutxi gora behera: «Iderrak asko emoten dostie». Argi eta garbi denon begiradak Malenengana zuzendu ziren eta aita izan zen erantzuna eman zuena, ea zer zen «asko» hori eta euskaraz «en-pague» esaten dela, edo batuaz «nazka». Ume batek ihardetsi zion baietz, bere amari noiz edo noiz «enpague» entzun diola. Hala ere, hitza berarena ez bailitzan esan zuen, eta era batez egia da, «nazka» hitza baztertzera eta «asko» erabiltzera ohitu dira eta «enpague» entzu-na eduki arren, ez dute inoiz erabiltzen.

Laburbilduz, azterketa honi ekiterakoan estandarrak barietatean eduki dezakeen eragina topatzen saiatu baginen ere, beste gertakari batek aurre egin zigun: batuak ez ezik, gaztelerak ere esparruak kentzen dizkiola etxeko hizkerari. Euskararen historiaren momentu berebiziko batean gaurde, berpizkunde momentu batean eta Ninyoles-ek esaten duen bezala,

El idioma, triturado así en multitud de hablas locales separadas, acaba considerándose como una forma de expresión incompleta, y su utilización, en cada momento más restringida, queda confiada a su eventual *vis inertiae*. Ahora bien, erraríamos al creer que tal proceso de fragmentación es un hecho irreversible. Las lenguas pueden renacer, después de una fase anterior de decadencia, si vuelven a encontrar la cálida adhesión de sus hablantes⁴¹.

Baina bide honetan emango ditugun aurrerapausuak jagon behar ditugu, aztertu egindakoa eta planifikatu datorrena. Horregatik ere izango litzateke interesgarria eta garrantzitsua lagin txiki eta xume honi jarraipena ematea, aztertzea ea estandarra era egoki eta aberatsean sartzen ari den barietatean: berezitasunak gordez eta esparru guztietara ailegatuz, gaztelerari bidea zabaldu gabe.

Eskolak honetan zeregin handia bete behar du, umeek estandarra jasotzen duten eremurik nagusia den heinean. Zubi bat izan behar da umearen etxeko hizkera eta estandarra batuko dituen. «Helburua, eredu batuaren jabe egitea izango da, baina ez epe laburrean. Ez dot uste inork ukatuko dauanik horren beharrezana, baina bideak beste kontu bat dira. Gaurregun umeak hizkuntza arloan dituan aurretiazko ezaguerak ez dira sendotzen, baztertu egiten dira, eta hau ez da joka-bide egokia»⁴². Umearen euskera sendotu eta aberastu behar dugu, bestelako erabileretara heltzeko zubia eraikiz. Lagundu behar dio honetan eskolak umeari, erregistro berriaren jabekuntza urratsez urrats aurrera eramanez, aldeztu aurretik ezagutzen dituen erregistroak ere jago-ten eta garatzen.

6. Bibliografia

ALONSO CORTÉS, A.: *Lingüística general*, Madrid, Cátedra, 1992.

ALVAREZ ENPARANTZA, J.L., (TXILLARDEGI): *Euskara batua zertan den*, Oinati, 1977.

⁴¹ NINYOLES, Rafael Lluís: *Idioma y poder social*, Madrid, Tecnos, 1972. (78 or.).

⁴² URUBURU, Laura: «Bizkaieraren egoera OHO eta BBB irakaskuntzan», in *Bizkaieraren lekua gaur*, Bilbo, Deustuko Unibertsitatea, 1992.

- , *Euskal gramatika*, Donostia, Ediciones Vascas, 1978.
- , *Euskal Fonologia*, Donostia, Ediciones Vascas, 1980.
- , *Lingua Navarrorum*, Orain, 1996.
- APPEL, René eta MUYSKEN, Pieter: *Bilingüismo y contacto de lenguas*, Barcelona, Ariel, 1996.
- AZURMENDI, María José: «Bilingüismo, Diglosia», *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, Bilbo, Deustuko Unibertsitatea, 1981.
- BERNARDÓ, D. eta RIEV, B.: «Diglòssia a Catalunya Nord», *Treballs de Sociolingüística Catalana*, I, Valencia, Tres Quatre, 1977.
- BONAPARTE, Louis Lucien: *Le verbe basque en tableaux*, Londres, 1869, in *Opera omnia Vasconice*, Bilbo, Euskaltzaindia, 1991.
- COSERIU, E.: *Principios de semántica estructural*, Madrid, Gredos, 1977.
- Euskadiko K.A.ko 1994ko biztanleen udal-errola*, EUSTAT, Gasteiz.
- Euskal Herria multimedia entziklopedia*, Elhuyar, 1997.
- EUSKALTZAINDIA: *Euskararen liburu zuria*, Bilbo, 1978.
- , «Euskara batua eta euskalkiak irakaskuntzan», *Euskera*, XXIV, 1979.
- , Gramatika batzordea, *Euskal gramatika laburra: perpaus bakuna*, Bilbo, 1993.
- GUMPERZ, J. eta BENNETT, A.: *Lenguaje y cultura*, Barcelona, Anagrama, 1981.
- IDIAZABAL, Itziar: «Euskara eta eskola», in *Hizkuntza minorizatuen soziologia*, Tarttalo, 1986.
- LABOV, William: *Sociolinguistic Patterns*, Philadelphia, University of Pennsylvania Press, 1972.
- LÓPEZ MORALES, Humberto: *Sociolingüística*, Madrid, Gredos, 1993.
- MATTHEWS, P.H.: *Morfología. Introducción a la teoría de la estructura de la palabra*, Madrid, Paraninfo, 1980.
- MENDIGUREN, Xabier: «Euskara batua eta irakaskuntza», *Euskera*, XXIII, 1978.
- MITXELENA, Koldo: *Fonética histórica, vasca*, ASJU-ren Gehigarriak, IV, Gipuzkoa-ko Foru Aldundia, 1990.
- NINYOLES, Rafael Lluís: *Idioma y poder social*, Madrid, Tecnos, 1972.
- PAGOLA, Rosa Miren: *Euskal dialektologiaren atarian*, Bilbo, Gero, 1991.
- ROTAETXE AMUSATEGI, Karmele: *Estudio estructural del euskara de Ondárroa*, Durango, Leopoldo Zugaza, 1978.
- , «Komunikazio gaitasuna», in *Hizkuntza minorizatuen soziologia*, Tarttalo, 1986.
- , *Sociolingüística*, Madrid, Síntesis, 1988.
- SÁNCHEZ CARRIÓN, J.M., (TXEPETX): *Bilingüismo, Diglosia, Contacto de lenguas*, ASJU, VIII, 1974.
- URUBURU, Laura: «Bizkaieraren egoera OHO eta BBB irakaskuntzan», in *Bizkaieraren lekua gaur*, Bilbo, Deustuko Unibertsitatea, 1992.
- UZEI: *Hizkuntzalaritza hiztegia 1*, Donostia, Elkar, 1982.
- VILA, Ignasi: «Reflexiones sobre la lengua materna como vehículo de enseñanza», in *Hizkuntza minorizatuen soziologia*, Tarttalo, 1986.
- WEINREICH, U.: *Lenguas en contacto. Descubrimientos y problemas*, Caracas, Ediciones de la Biblioteca de la Universidad Central, 1974.
- ZARATE, Mikel: «Euskara batua eta euskalkiak», *Euskera*, XXIV, 1978.

ZENBAIT: *Euskal dialektologiaren hastapenak*, Bilbo, Udako Euskal Unibertsitatea, 1985.

ZUAZO ZELAIETA, Koldo: *Materiales para una descripción sociolingüística de la comunidad vasca*, Bilbo, Deustuko Unibertsitatea, 1983.

—, *Euskararen batasuna, iker 5*, Bilbo, Euskaltzaindia, 1988.

EUSKAL BOKALISMOAREN INGURUAN

Itziar Túrrez

Duela bost urte, aldizkari honen hamaikagarren atalean, artikuloaren sarreran (Túrrez eta Bediaga: 1995), hauek izan ziren gure hitzak: «Gaur egun, fonetikako lanek, garapen teknologikoari esker, zehaztasun handia lortu dute, fenomenoek deskribapen eta metodologiaren ekoizpenean objektibitate zientifikoa emanez» (73 or.) Gero halan jarraitu genuen:

Fonetika akustikoari dagokionez, Deustuko Unibertsitateko Fonetiko Ikertegian «Euskararen Analisi Akustikoa» azterketa burutu izan da euskararen fonema bokaliko eta kontsonantikoek perfila eskuratu ahal izateko. Urte asko eman du lan talde honek informanteen grabaketan, ikertegiko analisi eta bibliografia lanetan eta lan ondorioen idazketan. Eginkizun hauen emaitzak Deustuko Unibertsitateko Linguistika sailean etengabe agertzen hasi dira¹. Hiru liburu hauek lehenengo atala osatzen dute, *txistukariena* hain zuzen ere, eta honen ostean *bokalismoa* izango da aztergai. (73 or.)

Eta esandakoari erantzuna emanez, taldeak beste bi liburu argitaratu ditu, orain bokalismoaren inguruan², lehen atalean (1995) segmentuak aztertu dira eta bigarrenean (1998) sekuentziak.

Espazio arazoa dela eta, lehen lanaren berri ematera natorkizue, hurrengo atal baterako bigarrenari buruzkoa utziz.

¹ URRUTIA, H. ETXEBARRIA, M. TÚRREZ, I. DUQUE, J.C.: *Fonética Vasca 1. (Las sibilantes en el vizcaino)*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbao, 1988; *Fonética Vasca 2. (Las sibilantes en el guipuzcoano)*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbao, 1989; *Fonética Vasca 3. (Las sibilantes en los dialectos orientales)*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbao, 1991.

² *Fonética Vasca 4. (Las vocales en Euskera)* deitzen den liburuan, euskal bokalismoaren inguruan idatzitako lanen berri ematen da; ikuspegi akustikoetan finkaturikoak ez ezik, beste irizpideetatik sorturikoak ere kontuan hartuz. (Ikus 29-35 or.).

1. Sarrera

Dakigunez, historian zehar bokal-kontsonante oposaketari buruz hainbat eta hainbat linguista mintzatu da, iritzi desberdinak mantenduz (Straka: 1963, Delattre: 1964, Quilis: 1981, Rodríguez Ortega: 1988). Dena den, ondorio batera heldu dela esan dezakegu:

(...) la idea de vocal se ha asociado siempre con una serie de características auditivas, articulatorias y funcionales. La vocal sería, en principio, el sonido más audible, el más abierto, sin obstáculo alguno a la salida del aire y articulado con menor esfuerzo que la consonante. Ésta, además, requeriría un mayor gasto de aire en su pronunciación y se caracterizaría por la menor estabilidad de las posiciones articulatorias que la originan. (Gil: 1990, 76 or.).

1.1. *Sorketa bokalikoa*

Betidanik, artikulazio fonetikak soinu bokalikoen sailkapena egite-rakoan irizpide hauetan oinarritu da:

1.1.1. AHOTSMOLDEA EDO AHO IREKIDURA

- goikoak edo itxiak; adibidez, /i/ /u/
- erdikoak; adibidez, /e/ /o/
- behekoak edo irekiak; adibidez, /a/

1.1.2. AHOSKUNEA

- aurrekoak edo sabaikariak; adibidez /i/ /e/
- atzekoak edo belokoak; adibidez /u/ /o/
- erdikoak; adibidez /a/

Batzuetan, hirugarren irizpidea erabili izan da:

1.1.3. EZPAIN BOROBILTASUNA

- borobilduak; adibidez, /o/ /u/ /y/
- ez borobilduak; adibidez, /i/ /a/ /e/

Objektibitatea lor dezan Daniel Jones-ek (1917) *bokal kardinalak* deitzen den sistema asmatu zuen.

1.2. *Egitura akustikoa*

1948an Pierre Delattre-k hauxe baieztatu zuen:

Las resonancias que caracterizan el timbre de una vocal oral resultan de la filtración que sufre el tono glotal (la vibración de las cuerdas vocales) al pasar por la boca (y por las cavidades glotales que sobrentendemos aquí). La boca se comporta como un filtro (o un resonador, que viene a ser lo mismo) que no deja pasar nada más que ciertas vibraciones salidas de la glotis. Las frecuencias que la boca deja pasar son diferentes para cada vocal; y si son diferentes se debe principalmente a que las cavidades de resonancia que las filtran cambian de forma y/o de dimensiones. (480 or.)

Beraz, nahiz eta konposagaien frekuentzia berdina izan, armonikoen egitura ezberdinak —hots, tinbrea— bokalak desberdintzen ditu. Hemendik, ondorio gisa *formanteen* garrantzitasunera³ hel gaitezke.

1.3. *Aho artikulazio eta ezaugarri akustikoen arteko erlazioak*

1951 an Pierre Delattre-k erlazio hauek azaldu zituen:

- 1.3.1. Existe una relación directa entre la elevación de la frecuencia del primer formante, F1, y la abertura de la cavidad oral: cuanto más alta es la frecuencia del F1, más grande es la abertura total de la cavidad, y a la inversa.
- 1.3.2. Existe una relación directa entre el retroceso de la lengua y el descenso de la frecuencia del segundo formante, F2: cuanto más posterior sea la posición de la lengua, más baja es la frecuencia del F2, y a la inversa.
- 1.3.3. Existe una relación directa entre el redondeamiento labial y el descenso en la frecuencia del F2: cuanto mayor sea el redondeamiento y la profusión o proyección labial, más baja será la frecuencia del F2, y a la inversa.
- 1.3.4. Existe una relación directa entre la elevación frecuencial del tercer formante, F3, y el descenso del velo del paladar, como en la nasalización, y entre el mismo descenso en la frecuencia del F3 y la elevación de la punta de la lengua hacia una posición retrofleja.

Honetaz ere Stevens eta House (1955) mintzatu ziren.

³ Egia esan, ezinbestekoak bakarrik lehen eta bigarren formanteak dira. Hauen berri grafikoa *Carta de formantes* delakoaren bitartez ematen da.

2. Metodologia

Hona hemen landu diren atalak:

- galdeketa lekuak
- berriemaileen hautaketa
- galdeketa eta galdekizuna
- grabaketak eta analisisa

2.1. *Galdeketa lekuak*

Ezberdintasun geografikoa eta honen banaketa dialektala kontutan harturik, honako atal hauek bereiztu izan dira:

- Euskalkiak
- Azpieuskalkiak
- Barietateak

Atal hauek, banaketa dialektal klasikoari dagozkionak (Yrizar: 1981, 39-45), zehazki izan dira aztertuak, eta gutxienez, aldaki bakoitzeko informante bati egin zaio galdeketa. Leku batzuetan, dentsitate handiagatik, galdeketa bat baino gehiago burutu da.

2.2. *Berriemaileen hautaketa*

Hona hemen lan taldean informanteen aukeraketarako hartu diren kriterioak:

- Sexua: galdeketa egin dutenak gizonezkoak dira, hauen ahotsa, tinbrearen ikuspuntutik, gardenagoa delako.
- Adina: hogeita hamar urtetik hirurogeita bost urterarteko pertsonak izan dira inkestatuak.
- Konpetentzia linguistikoa: berriemaileen ama-hizkuntza euskara bada ere, hauek elebidunak dira. Ama-hizkuntzaren ezagutza ez da irakaskuntzarekin garatu, hau da, informanteek ez dute alfabetaze gradua lortu.
- Sendiaren jatorria: kriterio honekin interferentziak ekiditzen saiatu gara, eta honetarako bai informantea eta bai honen gurasoak jatorri berekoak izan behar dira.

2.3. *Galdeketa eta galdekizuna*

2.3.1. GALDEKETAK

Berriemaileak hautatu ondoren, hurrengo urratsa, hauei galdeketa egitea izan da, honen garapena galdekizunaren itaunek zehaztu dutelarik. Informantearen aldaki linguistikoan ez eragiteko, galderak gazte-leraz egin izan dira, eta beti ere, inkestatzaile zein informantearen neutralitatea bilatu izan da.

2.3.2. GALDEKIZUNA

Bokal guztien ezaugarri fonetikoak aztertzeko, honako kriterioak dituen galdekizuna prestatu zen:

- 2.3.2.1. Hiztegi amankomunaren «corpus» baten hautapena.
- 2.3.2.2. Sustantiboaren erabilera, nahiz eta batzutan beste unitate lexikoen laguntza beharrezkoa izan.
- 2.3.2.3. Textuinguru berezi toniko zein atonoen hautapena, hauek izanik:
 - Hasierako bokala (silaba askea)
 - Hasierako bokala + kontsonantea (silaba trabatua)
 - Kontsonantea + erdiko bokala (silaba askea)
 - Erdiko bokala + kontsonantea (silaba trabatua)
 - Kontsonantea + amaierako bokala (silaba askea)
 - Amaierako bokala (silaba askea)

2.4. *Grabaketak eta analisisia*

Grabaketak egiteko Uher Report Monitor bobina irekiko magnetofonoa, eta materiale akustikoen analisirako DSP Sona-Graph Model 5.500, Kay Elemetric Corporation-ekoa erabili izan dira. Emaitzen prozesatze lana SPSS programa estatistikoaren bitartez bete izan da, aldagai hauek erabiliz:

- aurreko elementua
- atzeko elementua
- toniko/atonoa
- silaba aske/silaba trabatua
- iraupena
- F1
- F2
- F3

3. Ondorioak

3.1. *Deskribapena eta konparaketa*

3.1.1. DESKRIBAPENA

Frogatua izan zen bezala, euskalkien arabera, txistukarien erabilera desberdina da. Aipaturiko lan haietan jarraitutako bidea honetan ere erabili izan da, beraz euskalki bakoitzak fonema bokalikoen duen jarraera aztertuko da banan banan⁴.

3.1.2. KONPARAKETA

Alde batetik euskalki⁵ bakoitzak eta bestalde euskara osoak dabilen sistema hobe ikus dezagun, emaitzen aurkezpena egiterakoan lehen aipaturiko patroia unibertsala, bokal kardinalen sistema hain zuzen, erreferentzia gisa hartu da berekiko konparaketa emanez. Halaber, euskara beste bi hizkuntzak —hots espainiera eta frantsesa— inguratzen duenez, bi hizkuntza hauekiko konparaketa eskaini da.

A. Bizkaiera

Euskalki honetan bost bokal erabiltzen dira: /i/, /e/, /a/, /o/ eta /u/. Gehienetan fonemen gauzatzean sakabanatze guti ematen da. Alofonoak dagokionez bakarrik bat agertu izan da: [æ], /a/ ren bariantea delarik.

1. EZAUGARRI AKUSTIKOAK

Fonema bakalikoaren ezaugarri akustikoetatik mintzatzerakoan bi puntu izango dira nagusi: iraupena eta egitura akustikoa —hots, formanteen lekuraketa—. Irakurketari erraztasuna emateko asmoz, aipaturiko datu hauek taulen bitartez eskainiko dira⁶, balore bakoitzaren ertaina jasoz.

⁴ Ikus *Fonética Vasca 4*, op. cit., 47-234 or.

⁵ Euskalki bakoitzari dagokionaren arabera.

⁶ Euskalkiz euskalki eskema bera errepikatuko da.

1.1. Iraupena

/i/	56.1 msg.
/e/	58.1 msg.
/a/	63.4 msg.
/o/	61.0 msg.
/u/	55.0 msg.

1.2. Egitura akustikoa

	F ₁	F ₂	F ₃
/i/	355,5	2.171,0	2.799,1
/e/	491,8	1.791,5	2.604,9
/a/	670,6	1.427,2	2.499,0
/o/	516,0	1.096,5	2.291,1
/u/	374,3	1.066,2	2.381,0

2. KONPARAKETA

Dakigunez, lortutako emaitzetatik —hots, bi formanteen lekuraketa-tik— hiruki bokalikoa sortzen da. Eta, esan den bezala, konparaketa bidea irekitzen digu⁷. Halan, bokalak bizkaieraz gaztelaniaz baino irekiagoak dira haien lekuraketa erdi-aurreratuagoa delarik. Beste konparaketari dagokionez, adibide gisa, esan dezakegu bizkaieraz /i/ kardinala baino irekiagoa dela eta atzerago lekuratzen dela; ostera /a/ itxiagoa da⁸.

B. Gipuzkera

Euskalki honetan bost bokal erabiltzen dira: /i/, /e/, /a/, /o/ eta /u/. Fomenen gauzatzean gradu baxuko sakabanatzea ematen da. Bizkaieraz

⁷ Ikus 3.1. atalean azaldutakoa.

⁸ Konparaketak osatzeko, ikus *Fonética Vasca 4*, op. cit., 239-262 or.

gertatu den bezala, hemen ere [æ] alofinoa agertzen da errealizazio guztietan tonikoa delarik.

1. EZAUGARRI AKUSTIKOAK

1.1. Iraupena

/i/	57,2 msg.
/e/	61,5 msg.
/a/	65,2 msg.
/o/	68,8 msg.
/u/	57,7 msg.

1.2. Egitura akustikoa

	F ₁	F ₂	F ₃
/i/	359,7	2.184,0	2.734,5
/e/	504,8	1.779,8	2.569,4
/a/	706,6	1.439,0	2.518,3
/o/	500,8	1.013,5	2.137,0
/u/	384,2	989,6	2.173,9

2. KONPARAKETA

Gipuzkeraz goiko bokalak gaztelaniaz baino irekiagoak dira haien lekuraketa erdi-aurreratuagoa delarik. Gainera, gipuzkeraz goiko eta erdiko bokal tarteaz gaztelaniazkoak baino txikiagoa dugu. Beste konparaketari dagokionez, adibide gisa, esan dezakegu gipuzkeraz /u/ kardinale baino irekiagoa dela eta aurrerago lekutatzen dela; ostera, /a/ ren irekidura zein lekuraketa oso antzekoa da.

D. Iparraldeko Goi-Nafarrera

Euskalki honetan ere aipaturiko bost bokalak: /i/, /e/, /a/, /o/ eta /u/ agertzen dira.

1. EZAUGARRI AKUSTIKOAK

1.1. Iraupena

/i/	53,3 msg.
/e/	56,1 msg.
/a/	59,0 msg.
/o/	56,9 msg.
/u/	51,8 msg.

1.2. Egitura akustikoa

	F ₁	F ₂	F ₃
/i/	360,8	2.043,6	2.684,8
/e/	492,9	1.743,8	2.682,4
/a/	646,7	1.358,1	2.594,4
/o/	509,1	1.050,0	2.354,2
/u/	386,9	1.044,6	2.437,6

2. KONPARAKETA

Euskalki honetan agertu diren goiko bokalak gaztelanian erabilitakoak baino irekiagoak dira, haien lekuraketa gainera aurrerratuagoa delarik. Ostera, erdiko bokalen irekidura oso antzekoa da. Bestalde, goi-nafarreraz /i/ kardinala baino irekiagoa zein atzerago lekuratua aurkitzen da. /u/ bokalari dagokionez irekidura handiagoa izan arren ere lekuraketa aurrerratuagoa dela esan dezakegu.

E. Mendealdeko Behe-Nafarrera

Euskalki honetan, besteen antzera, bost bokalak agertu dira. Fone-men gauzatzean, orain arte gertatu den bezala, sakabanatze txikia aurkitu da.

1. EZAUGARRI AKUSTIKOAK

1.1. Iraupena

/i/	64,5 msg
/e/	63,9 msg.
/a/	66,7 msg.
/o/	68,9 msg.
/u/	58,4 msg.

1.2. Egitura akustikoa

	F ₁	F ₂	F ₃
/i/	380	2.149,2	2.788,0
/e/	518,1	1.781,2	2.474,6
/a/	724,8	1.412,8	2.356,5
/o/	548,3	1.071,6	2.160,0
/u/	407,6	964,0	2.280,0

2. KONPARAKETA

Mendebaldeko behe-nafarreraz goiko bokalak gaztelaniaz baino irekiagoak dira haien lekuraketa erdi-aurreratuagoa delarik. Beheko bokala —hots /a/— erdirago kokaturik aurkitzen da. Beste konparaketari dagokionez, /i/ kardinala baino irekiagoa da, bere lekuraketa atzeratuagoa delarik. /u/ren kasuan nahiz eta irekiduran desberdintasun txiki bat agertu —euskaraz irekiagoa— lekuraketan antzekotasuna ematen da.

Frantsesez erabiltzen den sistema bokalikoarekiko esan dezakegu euskalki honetan agertu den /u/ frantsesean erabilitako /o/ itxia baino pixka bat irekiagoa dela. Bestalde, erdiko bokalak, irekidurari dagokionez, frantseseko erdi irekiekin bat datozte.

F. Ekialdeko Behe-Nafarrera

Orain arte izan den bezala bost bokalak agertu dira. Bizkaieraz eta Gipuzkeraz deskribatu den legez, hemen ere [æ] alofinoa agertu da

errealizazio guztietan tonikoa delarik eta silaba askean trabatuan baino maizago kokaturik.

1. EZAUGARRI AKUSTIKOAK

1.1. Iraupena

/i/	57,0 msg
/e/	59,1 msg.
/a/	65,0 msg.
/o/	64,7 msg.
/u/	58,5 msg.

1.2. Egitura akustikoa

	F ₁	F ₂	F ₃
/i/	347,9	2.277,0	2.920,6
/e/	503,5	1.878,8	2.675,7
/a/	730,0	1.469,1	2.252,7
/o/	520,6	1.058,1	2.281,2
/u/	382,8	1.035,8	2.434,7

2. KONPARAKETA

Batetik, euskalki honetan gauzatzen diren goiko bokalak gaztelanian errealizatuak baino irekiagoak dira, haien lekuraketa erdi-aurrera-tuagoa delarik. Ostera, erdiko bokalen irekidura oso antzekoa da. Bestetik, ekialdeko behe-nafarreraz /i/ kardinala baino irekiagoa zein atzerago lekurtua aurkitzen da. Beheko bokalaren kasuan —hots /a/— nahiz eta irekiduran desberdinak izan —euskaraz irekiagoa— lekuraketan bat datozte.

Beste konparaketari dagokionez —frantses hizkuntzarekikoa, alegia— mendebaldeko behe-nafarreraz mintzatzerakoan azalduriko fenomenoak berrizkatu direla esan daiteke.

G. *Lapurtera*

Lapurteraz, beste euskalkietan izan den legez, bost bokalak agertu dira. Halaber, fonemen gauzatzea oso antzekoa izan da.

1. EZAUGARRI AKUSTIKOAK

1.1. Iraupena

/i/	73,4 msg
/e/	79,9 msg.
/a/	75,9 msg.
/o/	76,9 msg.
/u/	61,7 msg.

1.2. Egitura akustikoa

	F ₁	F ₂	F ₃
/i/	334,2	2.366,8	2.958,6
/e/	497,2	1.905,5	2.552,3
/a/	773,3	1.522,6	2.488,1
/o/	514,7	1.073,9	2.201,5
/u/	352,9	1.007,8	2.421,3

2. KONPARAKETA

Lapurteraz goiko bokalak gaztelaniaz baino irekiagoak dira haien lekuraketa erdi-aurreratuagoa delarik. Ostera, erdiko bokalen irekidura oso antzekoa da. Bestalde, erdiko bokalak —hots, /e/ eta /o/— irekidurari dagokionez, kardinal erdi-irekien inguruan kokatzen dira. /a/ren kasuan nahiz eta irekiduran desberdintasun txiki bat agertu —lapurteraz irekiagoa— lekuraketan antzekotasuna ematen da.

Frantsesa konparaketa neurri erabiliz, alde batetik, /i/ lapurteraz baino aurreratuagoa eta, bestalde, /u/ atzeratuagoa dela aipa daiteke.

H. Zuberera

Zubereraz, sei bokal agertzen dira; alde batetik, beste euskalkietan gauzatuak, beraz amankomunak —/i/, /e/, /a/, /o/ eta /u/— eta bestalde, berezia: /y/.

Alofonoei dagokionez bi agertu dira:

—[Ø] /y/ ren bariante

—[ae] /a/ ren bariante

1. EZAUGARRI AKUSTIKOAK

1.1. Iraupena

/i/	68,0 msg.
/e/	71,0 msg.
/a/	76,7 msg.
/o/	82,0 msg.
/u/	85,0 msg.
/y/	80,8 msg.

1.2. Egitura akustikoa

	F ₁	F ₂	F ₃
/i/	352,8	2.411,5	3.179,0
/e/	508,5	2.002,0	2.744,6
/a/	820,8	1.448,5	2.507,9
/o/	504,8	1.024,2	2.288,4
/u/	390,0	948,8	2.403,0
/y/	378,9	1.812,2	2.441,9

2. KONPARAKETA

Goiko bokalen lekuraketa analizatzerakoan desberdintasuna nabaritzen da; alde batetik, zubereraz /i/ gaztelaniaz baino atzeratuago

kokatzen da. Beste konparaketari dagokionez, euskalki honetan mintzatzen direnek /i/ kardinala baino atzeratuago gauzatzen dute eta /u/, irekiagoa izanez gain, kardinala /o/ itxia den lekuraketarekin bat dator.

Zubereraz /i/ frantsesez baino irekiagoa izanez /e/ itxiari hurbiltzen zaio. Irekidura neurketaz jarraituz fenomeno bera /u/rekin gertatzen da; halan, frantsesez /o/ itxia baino irekiagoa dela esan daiteke.

Lekuraketari dagokionez, desberdintasunak nabaritzen dira ere; alde batetik, /i/ atzeratuagoa eta, bestalde, /u/ aurreratuagoa aurkitzen baitira.

Atal honi bukaera eman baino lehen, euskalki guztien arteko konparaketa eskeintzen da⁹.

3.2. *Sintesia*

Euskarak bost fonema bokaliko ditu: /i/, /e/, /a/, /o/ eta /u/. Zubere-raz seigarren bokal bat agertzen da: /y/ hain zuzen ere.

Fonema hauen izaera hurrengo oposaketen bitartez froga daiteke:

- i/e: beti «siempre» / bete «llenar»
mendi «monte» / mende «siglo»
itxi «cerrar» / etxe «casa»
- i/a: giro «ambiente»/garo «helecho»
bi «dos» / ba «si»
bizi «vivir» / bazi «salsa»
- i/o: piztu «encender» / poztu «alegrarse»
biga «dos» /boga «remar»
hiri «ciudad» / hori «eso»
- i/u: piztu «encender» / puztu «inflar»
larri «apuro» / larru «piel»
hiri «ciudad» / hiru «tres»
- e/a: erbi «liebre» / harbi «nabo»
epel «templado» / apal «humilde»
herri «pueblo» / harri «piedra»
- e/o: erpe «garra» / orpo «talón»
meta «montón» / mota «tipo»
erre «quemar» / erro «raíz»

⁹ Ekialde eta mendebaldekoen artean sorturikoa, batez ere. Ikus, *Fonética Vasca* 4, op. cit., 259 or.

- e/u: eme «hembra» / ume «niño»
erpe «garra» / urpe «bajo el agua»
urte «año» / urtu «deshelar»
- a/o: hartu «coger» / ortu «huerto»
gara «somos» / gora «arriba»
atso «vieja» /otso «lobo»
- a/u: har «gusano» / ur «agua»
makur «inclinado» / mukur «torpe»
meza «misa» / mezu «mensaje»
- o/u: hor «ahí» / ur «agua»
zor «deuda» / zur «madera»
agortu «agotar» / agurtu «saludar»

Gainera, zubereraz /y/ eta /u/ren arteko oposaketa ematen da, honela:

- y/u: hürtze «avellano» / hurtze «licuefacción»
phezü «carga» / phezu «talud»

Aipaturiko fonemen ezaugarri artikulatorio zein akustikoak hauek dira:

a) *Artikulatorioak*

- /i/: goiko, aurreko.
- /e/: erdiko, aurreko.
- /a/: beheko, erdiko.
- /o/: erdiko, atzeko.
- /u/: goiko, atzeko.
- /y/: goiko, aurreko, bemoldua.

b) *Akustikoak*

- /i/: bokaliko, ez kontsonantiko, ez trinko, difuso, ez lodi, zorrotz, ez bemolizatu.
- /e/: bokaliko, ez kontsonantiko, ez trinko, ez difuso, ez lodi, zorrotz, ez bemolizatu.
- /a/: bokaliko, ez kontsonantiko, trinko, ez lodi, ez zorrotz, ez bemolizatu.
- /o/: bokaliko, ez kontsonantiko, ez trinko, ez difuso, lodi, ez bemolizatu.
- /u/: bokaliko, ez kontsonantiko, ez trinko, difuso, lodi, ez bemolizatu.
- /y/: bokaliko, ez kontsonantiko, ez trinko, difuso, ez lodi, zorrotz, bemolizatu.


	<i>i</i>	<i>e</i>	<i>a</i>	<i>o</i>	<i>u</i>	<i>y</i>
<i>Bokaliko</i>	+	+	+	+	+	+
<i>Kontsonantiko</i>	-	-	-	-	-	-
<i>Trinko</i>	-	-	+	-	-	-
<i>Difuso</i>	+	-	-	-	+	+
<i>Lodi</i>	-	-	-	+	+	-
<i>Zorrotz</i>	+	+	-	-	-	+
<i>Bemolizatu</i>	-	-	-	-	-	+

Euskal triangelu bokalikoa

Ondorio gisa euskal fonema bakoitzaren iraupen eta formante er-tainak, taula baten bitartez, eskeintzen dira.

	Iraupena	F ₁	F ₂	F ₃
<i>/i/</i>	58,8	355,9	2.209,3	2.839,5
<i>/e/</i>	61,3	499,1	1.825,1	2.661,4
<i>/a/</i>	65,3	706,2	1.433,3	2.474,5
<i>/o/</i>	65,1	513,8	1.061,2	2.254,6
<i>/u/</i>	57,2	379,9	1.028,9	2.350,6
<i>/y/</i>	80,0	378,9	1.812,2	2.441,9

Hona hemen, bi formanteetan oinarrituriko euskal triangelu bokalikoa:



Bibliografia¹⁰

- DELATTRE, P. (1948): «Un triangle acoustique des voyelles orales du français», *The French Review*, 21, 477-484. Ondorengo liburuan bildua: Delattre, P. (1966), 236-242.
- DELATTRE, P. (1951): «The physiological interpretation of sounds spectrograms», *Publication of the Modern Language Association of America*, 66, 864-876. Ondorengo liburuan bildua: Delattre, P. (1966), 225-235.
- DELATTRE, P. (1964): «Change as a correlate of the vowel consonant distinction», *Studia Lingüística*, XVIII, 12-25.
- DELATTRE, P. (1966): *Studies in French and Comparative Phonetics: Selected Papers in French and English*, The Hague eta Paris, Mouton.
- ETXEBARRIA, M., IRIBAR, A., TÚRREZ, I., URRUTIA, H. (1998): *Fonética Vasca 5 (Las secuencias vocálicas en euskera)* Bilbao, F.B.V.
- QUILIS, A. (1981): *Fonética acústica de la lengua española*, Madrid, Gredos.
- RODRÍGUEZ ORTEGA (1988): «La división vocal-consonante basada en el tono fundamental», *Estudios de Fonética Experimental*, III, 209-231, Barcelona, Universidad de Barcelona.
- STEVENS, K.N., HOUSE, A.S. (1955): «Development of a quantitative description of vowel articulation», *Journal of Acoustical Society of America*, 27, 484-493.
- STRAKA, G. (1963): «La division du langage en voyelles et consonnes peut-elle être justifiée?», *TrLiLi*, I, 17-99.
- TÚRREZ, I., BEDIAGA, I., (1995): «Euskal fonetikaren inguruan», *Enseiukarreen*, 11, 73-80.
- URRUTIA, H., ETXEBARRIA, M., TÚRREZ, I., DUQUE, J.C., (1988): *Fonética Vasca 1. (Las sibilantes en el vizcaíno)*, Bilbao, Deustuko Unibertsitatea.
- URRUTIA, H., ETXEBARRIA, M., TÚRREZ, I., DUQUE, J.C. (1989): *Fonética Vasca 2. (Las sibilantes en el guipuzcoano)*, Bilbao, Deustuko Unibertsitatea.
- URRUTIA, H., ETXEBARRIA, M., TÚRREZ, I., DUQUE, J.C. (1991): *Fonética Vasca 3. (Las sibilantes en los dialectos orientales)*, Bilbao, Deustuko Unibertsitatea.
- URRUTIA, H., ETXEBARRIA, M., TÚRREZ, I., IRIBAR, A., (1995): *Fonética Vasca 4 (Las vocales en euskera)*, Bilbao, Deustuko Unibertsitatea.
- YRIZAR, P. DE (1981): *Contribución a la dialectología de la lengua vasca*, Zarauz, Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa.

¹⁰ Bokalismoaren inguruan sortutako bibliografiarako ikus *Fonética Vasca 4*, op. cit., 263-265 or.

Enseiukarrean



Deustuko
Unibertsitatea

.